

ZU HEMEN ZAUDE goiena



Punta-puntako pilota txapelketa

17 urteren ondoren, bi debagoiendarrek elkarren kontra jokatuko dute / 28

Rezusta, Irribarria,
Tolosa eta
Mendizabal III.a,
eguztenez Oñatiko
frontoian egindako
pilota aukeraketa.

XABIER URZELAI

Antzuola-Bergara, esleituta

41,7 milioi eurotan (BEZ barik) adjudikatu dituzte Deskargako saihebidetako azkeneko zatiaren obrak / 2



GABONAK ETA SANTAMASAK

Eskualdean azoka ugari asteburuan: Gabonetakoak, trukeak egiteko, eta beste / 'Herriak' saila

Presoen eta iheslarien aldeko dinamika, eskualdean ere bai: 'Kalera, Kalera' / 3 eta 'Herriak' saila

| SINADURAK | |
|--|--|
|  AMAGOIA LASAGABASTER / 6 |  HORAZIO ARGARATE / 9 |
|  AINTZANE OIARBIDE / 36 | |

Gipuzkoako Atletismo Federazioak Uribarren eta Carrascal arrasatear atletak saritu ditu / 12

Emakumezkoen Gabonetako txapelketa, abenduaren 30ean eta 31n Aretxabaletan / 16

puntua +
Mirari Alberdiri elkarrizketa, EAEko toponimiaz
Huhezi: 40 urte beteta, aurrera begira



VW Tiguan berria

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Antzuola-Bergara 41,7 milioi eurotan esleituta

Zubieder, Mariezcurrena, Tesinsa eta Urbycolan enpresek osatzen duten aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zion atzo Bidegiko administrazio kontseiluak; aurreikuspena da 2019ko lehen seihilekorako bukatuta egotea saihesbidea

Ubane Madera DEBAGOIENA

"GI-632 errepideko Antzuola-Bergara zatiko saihesbidea amaitzearen exekuzio proiektua Zubieder, Mariezcurrena, Tesinsa eta Urbycolan enpresek osatzen duten aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zaio 41.724.085,81 eurotan (BEZik gabe), eta 25 hilabeteko epean egingo da. Obra

hori 2019ko lehen seihilekoan amaituta egotea aurreikusten da, eta, horrekin, Gipuzkoako Biribilgunea bukatutzat emango da". Halaxe iragarri zuten atzo, eguena, Bidegiko administrazio kontseiluan Deskargako saihesbidearen azkeneko zatiaren esleipena. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren hitzetan, "Gi-

puzkoako gaitasun handiko sare osatzeko falta zen errepidea" da Antzuola eta Bergara lotzen dituen Deskargako errepidea. "Obra honi esker, eskualde eta gipuzkoar guztiak konektatuta egongo dira. Lurralde orekaz gain, Deskargak eragin zuzena izango du lurraldeko ekonomian", industriak berebiziko garrantzia



Deskarga hasieran dagoen biribilguneraino dago saihesbidea eginda. GOIENA

duen bi eskualde, Goierri eta Debagoiena, gaitasun handiko autobidearekin lotuta egongo direlako, azpimarratu zuten Deskargako errepidea eraikitzea onartu zutenean.

Obra egitea eraiki zeneko aurreikuspena zen 55 milioi euroko obra izango zela. Esleipena, berriz, 41.724.085,81 eurotan egin dute; hori bai, BEZik gabeko kopurua da hori.

|  LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROKAK %100ean DIRUZ-LAGUNDUAK | | | |
|---|---|--------|-----------------------|
| | IKASTAROKAK | ORDUAK | DATAK |
| FABRIKAZIO MEKANIKOA | | | |
| FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | | | |
| MF0091_2 | UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA. HEIDENHAIN FRESA | 80 | 2017/01/16-2017/03/02 |
| FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA | | | |
| MF0107_3 | UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ | 90 | 2017/02/13-2017/04/06 |
| KATALOGOZ KANPO | | | |
| EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. MCOSMOS | | 30 | 2017/01/23-2017/02/07 |
| ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA | | | |
| KATALOGOZ KANPO | | | |
| AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN EKIPO ETA ELEMENTUAK INSTALATZEA | | 60 | 2017/01/16-2017/02/16 |
| AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMAK ABIAN JARTZEA | | 60 | 2017/03/06-2017/04/06 |
| AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK I.MAILA | | 30 | 2017/02/06-2017/02/21 |
| AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK II. MAILA | | 30 | 2017/03/06-2017/03/21 |
| ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA | | | |
| ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA | | | |
| MF0233_2 | UF0321: EXCEL | 50 | 2017/01/30-2017/02/23 |
| MF0237_3 | UF0346: KOMUNIKAZIO ERAGINKORRA ETA TALDE-LANA | 60 | 2017/03/06-2017/04/06 |
| | UF0044:TARTEKO AGINTARIAREN EGITEKOA LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOAN | 30 | 2017/01/11-2017/01/26 |
| BESTE BATZUK | | | |
| ORGA-JASOTZAILEEN ERABILERA | | 10 | 2017/01/23-2017/01/30 |
| | | 10 | 2017/03/06-2017/03/13 |
| ZUBI-GARABIEN ERABILERA | | 10 | 2017/02/06-2017/02/09 |
| | | 10 | 2017/03/20-2017/03/23 |



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEA: Miguel Altuna Institutua - Ibargarai kalea 1, 20570 Bergara.
Tel: 943 76 70 49 // **Mug:** 688 81 50 70 // **Eposta:** ikastaroak@imaltuna.com // **www:** imaltuna.com

Bost kilometroko enborra

Aintzane Oiarbidek, Diputazio-ko Bide Azpiegiturako diputatuak, emandako xehetasunen arabera, GI-632 errepidearen zati horren trazatu berriak 5.000 metroko enborra izango du. Bergarako Bentaberri inguruan hasiko da eta Deskargako tunel berria baino zertxobait lehena go amaituko da. Bi galtzadako autobidea izango da: noranzko bakoitzean 3,50 metroko bi erreie izango ditu eta 2,50 metroko bazterbideak kanpoaldean eta metro batekoak barrualdean.

Bidegorria ere bai

Bestalde, errepidearen eraikuntza lanak aprobetxatuz, Antzuola eta Bergara lotuko dituen bidegorria ere egingo dute.

2017ko urte hasieran ekingo diete obrei, eta 25 hilabete dituzte bukatzeko. Ordainpeko azpiegitura izango da. Behin lanak bukatuta, Diputazioaren aurreikuspena da errepide zaharrea eta, beraz, Antzuolako herrigune ondoko bidean eguneroko trafikoa 11.000 ibilgailutatik 1.000 ibilgailutara murriztuko dela.

26 langile gertu daude Fagor CNAtik borondatez irteteko

Hori ez da nahikoa zuzendaritzaren "beharretarako"; EH Bilduk Jaurlaritzaren "inplikazioa" eskatu du

U.M. DEBAGOIENA

Oraingo astean batzarretan ibili dira Fagor CNAko zuzendaritza eta enpresa batzordeko ordezkariak, enpresak kalera-tuko duen langile kopurua zehazteko. Bertako iturriek Goienari helarazitako azkeneko datuen arabera, 26 langile gertu daude enpresa uzteko. Edozein modutan, kopuru hori ez da nahikoa enpresaren "beharrei" erantzuteko. Enpresa batzordeak adierazi du kaleratze kopuru zehatza jakinaraztean "ekintza gehiagorako deialdiak" egingo dituztela.

Oraingo astelehenean ordubeteko lanuztea egin zuten, protesta modura.

Bost kilometroko enborra

Egoeraren aurrean, Arrasateko EH Bilduk Jaurlaritzaren "zuzeneko inplikazioa" eskatu du, baita ere enpresako arduradunena, "kaleratzerik egon ez dadin posible liratekeen neurri guztiak aztertze" gogora ekarri eskualdeak "krisi industrialaren eragina zuzenean" jasan dituela. Langileei "elkartasuna" adierazi die.

"Preso gehienak isolamenduan daude"

IGOR LETONA 'KALERA, KALERA' EKIMENEN KIDEA

Preso eta iheslari ohiek *Kalera, Kalera! Bakea eta askatasuna irabaztera* dinamika abiatu dute, "euskal preso, iheslari eta deportatuak Euskal Herrira eta etxera" ekar ditzaten lortzeko

Ubane Madera DEBAGOIENA

Presoak etxeratzea lortzeko gizartearen mobilizazioa "ezinbestekoa" dela diote; horregatik, kalera ateratzen dabilta aldarrikapenak (tokian tokiko ekimeak 'Herriak' sailean).

Kartzeletako egoera larriagoa dela salatzen duzue; zertan okertu da?

Aieteko adierazpenean eskatu zitzaion ETari borroka armatua albora zezan; ETak pauso hori eman zuen. Bost urteren ondoren, Espainiako Estatuak pausorik ez emateaz gain, kontrako jarrera hartu du bake prozesua oztopatzeko. Adibideak ugariak dira: nazioarteko begiraleak Auzitegi Nazionalera deitu zi-



Igor Letona. UBANE MADERA

tuen deklaratzera, Herrira mugimendua disolbatu egin zuen presoengandik eta urrutirago joan eta abokatuarekin ere sartu zen (...) Egoerak zertan egin duen txarrera? Presoek dispertsatuta segitzen dute, baita gaixo daudenak ere, Europarengatik ez balitz, *Parot doktrina*-k indarrean segituko luke, eta Josu Arkauzena moduan beste 10-12 pertsona daude, non eta espetxean jarraitzen duten, zigorra beteta dutenean. Espainiako Estatuak bake prozesu hori blokeatzeko interesa izateaz gainera, ikusten dena da mendeku politika aplikatzen dabiltzala.

Zenbat debagoiendarri eragiten die? 10-20 pertsonak preso segitzen dute, oso baldintza gogorretan: dispertsatuta, gehienak isolamenduan (22 ordu ziegan); eta pentsatu zer den, senide moduan, Algecirasera, Jaenera... joatea: gauean irten, hurrengo egunean 40 minutuko bisita egin, eta beste 1.000-1.200 kilometro egin bueltatzeko. Ekonomikoki ze desgaste... 16 senide hil dira joan-etorrietan. Ez da bakarrik Debagoieneko egoera; lau bat kenduta, gainontzekoak Madrildik behera dispertsatuta daude. 350 preso inguru daude.

Besterik nahi baduzu gaineratu...

Uste dugu egoera berria datorrela. Espainiako Estatuak hainbat eragile politikok, Euskal Herrikoek eta estatu frantsesekoek esan dute gaur egungo testuinguru politikoan dispertsioa mantentzeak ez duela inolako zentzurik. Halako agertokian, PPK gehiengo osoa ez edukita aukera berriak irekitzen dira. Horiek erabiltzen jakin behar dugu, eta, horretarako, herritarren mugimendua ezinbestekoa da. Horregatik diogu mobilizatu beharra dagoela eta horregatik herritarrei eskatzen diegu laguntzeko.

Behar diren jostailuen erdiak batu ditu Gurutze Gorriak

Debagoieneko Gurutze Gorriak eskerrak eman gura dizkie bazterkeria egoeran dauden umeendako jostailuak batzeko kanpian parte hartu dutenei. "Diru laguntza eta jostailuen bidez, eskaeraren erdia betetzea lortu dugu", zehaztu dute. Hala, "azken txanpan" parte hartzera animatu dute. Ekarpentarako: Laboral Kutxa 3035 0001 51 0010018156.

Kurdistanen aldeko manifestaziorako autobusak eskualdetik

Bihar, abenduak 17, manifestazioa egingo dute Bilbon, 12:30ean, *Faxismoaren aurrian, Gora Kurdistan* lelopean. "Turkiako gobernuak Kurdistan herriari ezartzen dion errepresioa eta sarraskiak" salatu dituzte. Askapenak autobusak antolatu ditu: 10:30ean Gari baitik eta 10:45ean Elorregitik. Izena Arrasateko Iratin eta Oñatiko Arranon eman daiteke.

ERNE

"SD EIBAR" BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaitetz: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831

SDEIBAR

#kutsatuzureafizioa



Goi-mailako
elikagaiak
Alimentos de
calidad superior

gurearen zaporea



Eusko Labelek marka ziztatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak.

Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu.

Gureak ematen duen gozamina.

hazi
LANA, ITASOETA ETA LURRALDEAN BOSTATZEN
DIREN HAZIEN BERRA, USTURAL Y ALDEKORAREN



DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
ETA ENERGIETIKOEN BARRA
DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y
ENERGÍA Y COMERCIO

Debagoieneko kirol txartelarekin zer?

AIZPEA URIBE BALANTZATEGI

ELGETA

Orain dela urtebete, Debagoieneko Kirol Txartela desagertu zen, udalen artean desadostasunak egon zirelako.

Zeintzuk galdu dugu horrekin?

Herri txikietan bizi garenok edo beste herri batean lan egiten duten pertsonak.

Zergatik?

Beste herri batean erroldatuta egoteak igerilekuko harpidetzak garestitu egiten dituelako.

Adibidez, Bergaran erroldatu gabeko familia batentzat, harpidetza osoa -bi nagusi eta bi umerekin (3-13 urte)- 731,74 euro irteten da urtean -bainuetxe gabe 595,16 euro-.

Ni, lehen, Bergaran bizi nintzen, eta kirol instalazioek urteetan izan duten bilakaera ikusi dut bertan, gutxienez 15 urtetan harpidedun izanda.

Badakit igerileku batek gastu asko dituela, baina Bergarako Udalak Agorrosinen gastuen gainean erakutsitako informazioa ez zen oso ondo zehaztu. Hau da, kirol arlo osoa hartu zuten Agorrosinen galeren berri emateko; bertan, kirol elkarteei emandako diru laguntzak, Labegaraietako instalazioen gastuak, eta abar zeuden.

Gainera, udal batek ematen dituen zerbitzuak erabiltzaileek ordaindu behar dituztela eta gastu horiek herritar guztiek ez dituztela zertan ordaindu esatea demagogia da.

Udal batek eskaintzen dituen zerbitzu guztiek gastuak dakartzate eta ez dira erabiltzaileen gain gastu horiek sartzen; adibidez, Zabalotegiko pelikulen gastu guztiak bertaratzen diren ikusleek ordaintzen dituzte?

Bergarako Udalari eskatzen diot Debagoieneko txartela berriro ateratzen laguntzea, bailaran erroldatuta edota Bergaran lanean gaudenoi, Bergaran erroldatu moduan ordaindu ahal izatea harpidetza, kirola egitea instituzio guztiak adierazten duten bezala, derrigorrezko, beharrezko eta oinarri den garai hauetan.

Euskara mingainean eraman

IRATI ITZIAR

OÑATI

Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen VI. Inkesta Soziolinguistikoak kritika asko jaso ditu; bereziki, emaitzekin egindako irakurketa positibistak.

Ez dizuet ezer berririk kontatuko; izan ere, euskararen biziberritzea *impasse* egoera baten dago: ezagutzak gora egin du, baina erabilerak ez.

Bada, horrekin lotuta, bitxikeria bat kontatuko dizuet, nire ustez, poztekoa dena eta Debagoieneko biztanleoi zuzen-zuzenean dagokiguna.

Aspaldikoa da debagoiendarron artean erosketak egitera edo bestelako mediku eta espezialistak bisitatzea Gasteizera joateko ohitura.

Ikustekoa izaten da Gipuzkoan jaieguna denean Boulevard zentro komertzialak jasaten duen *inbasioa*, eta egun horietan fenomeno xeble bat gertatzen da: Boulevarden entzuten da Gasteizko auzo askotan baino euskara gehiago.

Nik neuk txantxetan esan ohi dut Boulevard euskararen *arnasgune instrumental*a bihurtzen dela.

Baina Boulevard ez da irla bat eta Gasteizen euskara momentu politean dago.

Hortaz, hurrengoan hirigunera bisitan joatea proposatzen dizuet eta eraman zuekin euskara mingainean, harrituko zarete.

"El euskera no entra en mi contrato" eta Idazlaguna

ESTEPAN PLAZAOLA

BERGARA

Euskarazko izena duen eta Santiago Ospitalearen ondoan dagoen Gasteizko kafetegi batean gertatu zait astean.

Pintxo bat jan eta trago bat hartzeko asmoarekin sartu naiz.

Barra barruan emakume bat, 25-30 urte ingurukoa; kanpoan beste bi, bere lagunak, itxuraz.

Tortilla pintxoa seinatatu eta "zerena da?", galdetu diot.

Zerbitzaria isilik geratu da niri begira, seguruenak, erdaraz galdetzea eskatuaz baina mutu. "Zerena da?", errepikatu dut. "¿Qué?", berak. "¿A ver de qué es?". "De atún y pimiento", erantzun dit. "Jarridazu... ponme...", esan diot.

Zerbitzaria lagunei zuzendu zai, baina nik ere entzuteko moduan: "Yo euskera no, no entra en mi contrato" Niri, gero: "¿Te caliento?". "Bai", erantzun diot. Zerbitzaria, berriz, begiak handi, niri begira; lagunek albotik, "que sí". "No si ya sé, pero a mí en euskera no. Además no pienso aprender".

Ordurako mikrouhin-labearen zuzen pintxo. "Déjalo", esan diot. "No pasa nada", esan diot.

Alboko taberna batera joan naiz.

Hango zerbitzariak ere gutxi zekien euskaraz baina arazorik gabe moldatu gara.

Hainbestekorik ez, baina praktikan antzekoak entzun izan ditugu eta entzuten ditugu Bergaran ere: "Euskaraz jartzeko ez dugu astirik izan", "eske euskarazkoa jartzeko ez dago lekurik", "euskaraz

zertarako?, erdaraz danok dakigu eta"...

Baina, horiek, zorionez, gutxi batzuk dira.

Gehien-gehienak adibide positiboak dira eta horiek nabarmendu nahi ditut.

Jardunek, udalaren laguntzaz, bultzatutako Idazlaguna programaren barruan, Bergarako 120 komertzioak konpromisoa hartu dute euren kartelak euskaraz edo euskaraz nagusiki jartzeko.

Euskaraz edo euskaraz nagusiki, bai; izan ere, *Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusi den esparruak behar ditu* (Eusko Jaurlaritzak, Euskara XXI, 2009).

Euskaraz edo euskaraz nagusiki: txorizo-tortilla, %20ko beharapenak, mugurdi-biskuita/biscuit de frambuesas...

Baina 120 komertzio horiez gain, beste 60 herritar boluntario (idazlagunak) prest agertu dira eskatzen duten dendei kartelak euskaraz jartzen laguntzeko.

Bezero guztion lana da Idazlaguna programako komertzioei hartutako konpromisoa bete dezaten eskatzea eta betetzen dutenak eskertzea eta animatzea.

Bezero guztion lana da erosten dugun dendako jabeari esatea erosketetan ere euskara inporta zaigula.

Horretarako, kanpaina antolatu du Jardunek.

Har dezagun parte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo irizti-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharreak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otarola Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus



NISSAN QASHQAI
DCI 110 CV (81 KW) 6M/T 4X2 5ATEREkin
N-CONNECTA **21.990€** RENGATIK*



UNITATE MUGATUAK.
ARABAUTON SOILIK.

EKIPAMENDUA BARNE:
▶ SABAI PANORAMIKOA
▶ SABAIKO BARRA
▶ 360° KO KAMERA

ARABAUTO Portal de Gamarra, 46 A-B - 01013 Vitoria-Gasteiz. Araba. Tel. 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>

Kontsumo mistoa: 5,6 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 g/km.

*PSP gomendatua penintsulan eta Balearretan, barne dauzka FAR, garraioa, Nissan Assistance, sustapenaren deskontua eta BEZ. Eskaintza balioduna Nissan Qashqai N-Connecta 110CV (81kW) 6M/T 4x2 berri bat eskuratzen duten partikular eta autonomoentzat, sabai panoramikoarekin, sabaiko barrekin eta ordeko gurpilarekin, baldin eta eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailu bat ematen badute eta RCI Banque-ren Magic Planaren bidez finantzatzen badute. Eskaintza balioduna 2016/12/31ra arte. Irudikatutako modeloa: Nissan Qashqai Tekna.



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

Elkartasuna bai, baina baita justizia ere

Din-dan-don, din-dan-don... badatoz Gabonak, alai bezain triste. Bihotzak guztiz samurturik, laster batean ditugu hemen mundua salbatzeko elkartasun kanpainak.

Elikagaien bankuak, gaixotasun arraroak ikertu ahal izateko diru batzea, ezer ez duten umeentzako jostailu bilketak...

Joan dadila aurretik, benetan miresteko ahaleginak iruditzen zaizkidala guztiak ere. Baina, egia esan, amorrua ere sartzen zait gorputzean barruraino.

Batetik, gure agintariek inoiz ez dutelako onartzen gizarteak behar larriak dituela.

Elikagai bankuak behar ote ditugu pobreziaren muinean bizi diren euskal familiak gosez ez akabatzen?

Horrenbeste inbertitzen den garapen eta ikerkuntza sailak ez ote du dirurik edozein gaixoren beharrei erantzuteko?

Eta bestetik, zergatik egiten gaituzte kanpaina horiek gu, herritarrok, salbazioaren arduradun?

Berriz diot, ez pentsa elkartasunari mugak jarri nahi dizkiodanik.

Benetan miresten dudana ezaugarria da jendearen

eskuzabaltasuna, justuan daukana ematea, ez sobran duena.

Hala ere, bakoitzari berea.

Instituzioek guk baino baliabide ekonomiko –gure diruaren administratzaileak dira– eta bitarteko gehiago dituzte behar denari laguntzeko. Eta hori ez da elkartasun kontu bat, justizia kontu bat baino.

Iruditzen zait elikagaien bankua behar duen herria ez dela harro egoteko herria.

Bukatzeke, Gabon alai bezain triste honetan, nora ezean Turkian, Grezian edo Alepoko kaleetan benetako errefuxiatu noiz bilakatuko zain dauden milaka pertsonen oroitua nahiko nuke.

Lagun batek esan zidan Europar Batasuneko herrialde bakoitzak, portzentajea, berari legokion gerra-iheslariak hartuz gero, ataundarrek 17 herritar gehiago izango zituztela. Aretxabaletarrok, hortaz, bost bat familia? Zer da hori, ba, gurea moduko herri solidarioarentzako?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



ZEUK ESANA

Gabonetako zuhaitzak: artifizialak ala naturalak?

SU TA GAR

Ba, behin zuhaitz artifizial bat erosita, bizitza guztirako da. Batzuek esango dute kutsagarria direla artifizialak, baina, bueno, bizitzan behin erosita, ez da hain larria izango, ala?

Eta garbiagoa eta erosoagoa ere bada; izan ere, naturala asko zaindu behar da, eta jausten zaizkion hostoak-eta jasotzen nahikoa lan izango dute gurasoek. Umeek ez dute-eta halako lanik egingo.

Duda barik, eraginkorrena, artifiziala!

NURIA FDZ. DE ARROIA

Kanporako naturala, lurra emunda, urtero ebalteko. Barrurako artifiziala, urtero bera.

AMALUR

Eta non lor daitezke naturalak, ba? Norbera mendira joanda eta ama lurrari lapurtuta? Errotik kenduta? Ene... jarraibide ederra seme-alabendako...

Txinan egindako artifizial horretako bat erosi, eta bakea, bai ama lurrarendako, eta baita gurasoendako ere.

ZUHAITZ PAGOETA

Joño... naturalak askoz politagoak dira, erakargarriagoak. Ez dago dudarik!

Baina kontua –edo gako– da zuhaitza ondo zaintzea, hurrengo urterako ere erabil ahal izan dezagun.

Izan ere, ez da jasagarria urtero zuhaitz natural bat erosten ibili beharra, kapritxo hutsagatik, ezta?

Gauzak tentuz eta soseguz egin behar dira, eta, erosten duguna erosita ere, zaintza beharrezkoa da.

HURRENGO ZENBAKIAN: ADINGABEEN ARTEAN ALKOHOLA EDATEA PREBENITZEKO HELBURUAREKIN, GOBERNUAK LEGE BAT ERAMANGO DU KONGRESURA. Iritzia eman: berriak@goiena.eus / goiena.eus.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Goiz Arana.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber
Aranburuzabala (Kultura),
Leire Kortabarria (Ekonomia).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Jokin Uribeebereberria.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko
Jaurlaritzak
diruz
lagundutako
aldizkaria

PROTAGONISTA

"Bailarako boluntarioak mimatzea da nire lana"

XABIER JORRIN CARITASEKO DEBAGOIENENKO ARDURADUNA

J. Bilbao/ M. Bikuña ARRASATE Caritas Gipuzkoak 50 urte bete ditu, eta datozen sei hilabeteetan hainbat jarduera egingo ditu mende erdia ospatzeko. Caritaseko Debagoieneko arduradun Xabier Jorrinek elkartearen eta ospakizunen nondik norakoak azaldu ditu.

Aste bukaeran ekitaldia egingo duzue Donostian urrezko ezteiak ospatzen hasteko.

Hala da. Autobusean joango gara Debagoienetik 30 lagunetik gora. Herritarrei ospakizunera joateko gonbita egiten diegu. Ekitaldi polita izango da.

Caritasen historia pixka bat gogoratzea da ekitaldiaren helburua. Bideo batzuk eta hainbat tokitatik bildutako materiala egongo dira; adibidez, dokumentu zaharrak.

Dokumentu zahar horietan badago Debagoienari erreferentziarik egiten dionik?

Urtean lau alditan kanpainak egiten ditugu. Elizetan dirua eskatzen dugu, eta duela 25-30



Xabier Jorri, Caritaseko Arrasaten duen bulegoan. JOSU BILBAO

urteko dokumentu batzuk aurkitu ditugu. Zenbat diru biltzen zen parrokia bakoitzean, bileretan hartutako erabakiak eta diru hori nola bideratzen zuten adierazten dute dokumentu

horiek. Boluntarioek egindako dokumentuak dira.

Urteurren berezia izanik, interbentzio bereziak egingo dituzue.

Oraindik hainbat gauza prestatzen gabilta, baina

jardunaldi batzuk antolatuko ditugu, baita erakusketak ere. Gabonetan laguntza berezia bideratuko da Alepoko eta Ekialde Hurbileko beste ospitale batzuetara. Belengo ospitale baterako dialisi makinatarako laguntza ere bidaliko dugu.

Osasuntsu dago Caritas Debagoienean?

Beti gabilta aurrera begira, baina, egiari zor, boluntarioak beti behar ditugu. Egitekoak asko dira, erronka asko ditugu, eta horiei aurre egiteko boluntarioak ezinbestekoak dira. Debagoienean 60 bat boluntario ibiliko dira, guztira, gaur egun. Horiek zaintzea eta mimatzea da nire lana. Arrasaten 25 inguru, Oñatin hamar bat, Bergaran 15 inguru, eta herri txikietan hiruzpalau bakoitzean.

Gazte jendearen erreleboa da falta dena?

Badaude gazte batzuk, baina nabarmena da dabilen jendea adinekoa dela. Gazte jendea pixka bat inplikatzeko eta horrelako kontuetan sartzea da gure gizaratearen erronka nagusia, azken finean. Unibertsitateekin kolaborazio berezi bat martxan jartzeko asmoa daukagu. Lerro hauen bidez gazteak gonbidatu gurako nituzke.

HAU BE BADOGU!

Carlos Urkijori kritikak sare sozialetan



Espainiako Gobernuko ordezkarria Euskadin eta bere emaztea kaleko saltzaile bati disko bat erosten zebiltzala *harrapatu* zituzten:

@dialonsomesa: "Carlos Urkijo Gobernuko ordezkarientzako, TopManta-n erostekotan isuna jaso beharko zenuke, baina berak egiten badu bere bizitza pribatua da..." (itzulita).

Harrera ona izan du 'Zirkorrika' abestia

#Korrika trending topic bilakatu da asteon, *Zirkorrika* 20. Korrikako kanta berria aurkeztu ondoren:

@AEK_eus: "Gozatu, zabaldu, dantzatu, abestu 20. #korrika-ren abestia, #zirkorrika".

@orekatx: "20. Korrika dator! Goazen ilusionista eta malabarista guztiak!"

@kilometroak: "Hori da hori kantu puska! #lekaixoka diogu, gora #euskara!".



P ONGI ETORRI
ARRASATE PARKING



LAUBIDE PARKINGA

LEHEN 2 ORDUAK

DOAN

LEHENENGO HILABETEAN

Arrasate
MURIAS PARKING 1

Arrasate
MURIAS PARKING 2

www.muriasgrupo.com



Mendieta (udal zinegotzia), Gorospe (Santamas komisiñoako kidea) eta Gutierrez (Trikitixa eskola) aurtengo kartelarekin. I.C.

Santamasak ekintzaz beteta datoz aurten ere

Arrasateko Trikitixa Eskolak, Udalak eta Santamas Komisiñoak 2016ko santamasak aurkeztu dituzte. Aurtengo helburua herritarrak jaiaren parte sentitzea da. Horregatik, haurrentzako, gazteentzako eta nagusientzako egitaraua prestatu dute

Ibon Carmona ARRASATE

Kulturateko areto nagusian egin zuten prentsurrekoan, Arrasateko kultur taldeen izenean Antxon Gutierrez (Arrasate Trikitixa Eskola), Komisiñoako Onintze Gorospe eta Kultura eta Euskara zinegotzi Juan Ramon Mendieta izan ziren.

Ekintzak santamasen aurretik

Egitarauan sartuta, Juan Ramon Mendieta hurrengo egunetarako udalak antolatutako ekintza ezberdinak aipatu zituen. Horien artean, Santamas Pilota Txapelketako finalak (abenduak 16, 19:00), Biteri plazako izotz pistaren irekiera (abenduak 23) eta Benito Lertxundik Amaia Udal Antzokian eskainiko duen kontzertua (abenduak 23, 19:30) azpimarratu zituen.

Kultur taldeek parte hartzen duten ekitaldiei dagokienez, abenduaren 17an, goizeko haiaiketean, borobileko dantza saioa parte hartzaile egongo da herriko plazan, herriko dantza taldeen eskutik. Ondoren, arratsaldeko zazpietan, santamasetako kuadrillen arteko hirugarren herri probak egingo dira

herriko plazan. Abenduaren 18an, goizean, santamasetako padel eta tenis txapelketetako finalak jokatuko dira, eta 17:30ean haurrentzako ginkana mitologikoa egingo da herriko plazan.

Abenduaren 22a nobedadeekin

Aurtengo santamas eguneko egitaraua ekintzaz gainezka dator, beste behin (informazio gehiagorako, ikus *Santamasak 2016* gehigarria). Aldaketa nagusietako bat herri bazkariaren tokiarekin lotuta dago; izan ere, Musakolako kiroldegian egin beharrean, Azoka Plazan egingo da aurten.

Juan Ramon Mendieta azaldu duenez, aurtengo jaien aurrekontua 78.400 euro ingurukoa izan da (41.368 euro Santamas Komisiñoak eta 37.075 euro Udalak). Prentsurrekoa amaitzeko, antolatzaileen partetik, santamasak behar bezala ospatzeko bi ohar gehitu nahi izan zituen Gorospek: "Eraso sexistek ez dute lekurik izango. Horrez gain, herritarrak ahalik eta ekintza gehienetan parte hartzera animatzen ditugu".

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
Kontxi Lazkano - Pedagogoa
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa

Laguntza eskolarrak

Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak


Estimulazio goiztiarra

Arreta psikologikoa genero indarkerian

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Izozkitegia

Gozotegia

Italiar izozkitegia

Kafetegia

Santamas jai zoriontsuak!

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

Jose Ramon Otamendi

harategia

Olarte 13 - Tel.: 943 79 62 28

eya

etxetresna elektrikoak
estilo guztietako lanparak zure esku

Gabon zoriontsuak!

Iturriotz 21 • Tel.: 943 79 03 84 • eyalec@telefonica.net
ARRASATE

Laubideko aparkalekua ireki du Murias enpresak

Biteriko aparkalekua ere kudeatuko du enpresa talde berberak. Laubideren kasuan, lehen bi orduak doakoak izango dira urtarrilaren 12ra arte eta egun horretatik aurrera orduko 1,55 euro ordaindu beharko da; Biterikoan, 1,20 eurokoa da orduko prezioa

Jokin Bereziartua ARRASATE

Zortzi urtez itxita egon ondoren, martitzenean ireki zuten Laubideko aparkalekua. Udal Gobernuak Murias enpresa taldearekin lortutako akordioari esker ireki da berriro aparkalekua eta irekierako eskaintza moduan, urtarrilaren 12ra bitartean lehen bi orduetan ez da ordaindu beharko. Denbora hori igarorostean, orduko 1,55 euro ordaindu beharko dute erabiltzaileek. Tarifa bereziak ere izango dira, hileko abonua, hileko alokairua, egunekoa edo gauekoa... Lehen egunetan ez da mugimendu handirik izan, eta Murias enpresak prentsa ohar

bidez aditzera eman duenez, herriko merkatariekin kontaktuan jarriko dira arrasatearrentzat onuragarriak izan daitezkeen merkataritza-akordioak bilatu eta sinergiak sortzeko asmoz. Laubideko aparkalekuak txandakako 165 plaza ditu.

Biteriko aparkalekua ere Muriasek kudeatuko du. Biterin 1,20 euro ordaindu beharko da autoa ordubetez aparkatuta izatearren; Biteriko aparkalekuak 432 plaza ditu. Plaza horietatik 137 txandakakoak dira, eta gainerakoak bertako egoiliarrentzat erreserbatuak. Guztira, beraz, 597 aparkalekuren kudeaketa eramango du Muriasek.

Eskarmentu handiko enpresa

Muriasek bost aparkaleku kudeatzen ditu egun: Laudion, Lasarte-Orian, Errenteriako Nieseren Merkataritza Gunean, Durangoko tren geltokian eta Donostiako autobus-geltokian. Hori bai, jakiteke dago irekierak Arrasateko aparkatzeko arazoa konpontzen lagunduko duen.

ARRASATE IRRATIA

Urteko azken saioak

Datorren astean *Igo autobusera* irratsaioaren urteko azken saioak eskainiko dira, astelehenean egubakoitzera. Eguenekoa izan ezik, saio guztiak, beti bezala, 10:00etan hasiko dira. Eguenean, berriz, santamasak direla-eta *Igo autobusera* saio berezia izango da, azokaren gaineko nobedade ezberdinak oinarri izango dituen. 12:00etan emitituko da.

Olarke kaleko muralak bozkatzeko azken egunak dira

Otalora Lizentziaduna eta Olarte kale arteko eskailera pasabideko pareta margotzeko sei proposamenen arteko hautaketa zapatu arte egin ahal izango da. Botoa Biztanleen Arreta Zerbitzuan edo Arrasateko Udaleko webgunean eman daiteke. Bozkatzeko, derrigorrezkoa izango da nortasun agiri zenbakia ematea -edo AIZ-.



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Fidel

Iraultza egin, eta iraultzari fidel mantentzen zen bakarra, Castro, Fidel, zendu da. Zendu ondoren, epaia datorrela jakinda, denetariko hitzak entzun ditugu bere izen mardul horren atzetik. Historiak -nahiz eta errelato inuzenterik ez dagoen- denboratxo bat lagaz gero, bereak esango dizkigu. Nik neuk, castrotarren zaharrenarentzako, iraultzaile tituluarekin gelditzen naiz. XX. mendeko asmoak eta ezinak ondo laburbiltzen dituen izena dugu *iraultza*. Gure eremu txikian ere, oraindik orain, bere burua iraultzaile daukatena asko daude: horra hor, Eguberri aurretik gaudela, mesianismoren bertsio gaurkotua.

Dena dela, Fidel bizitzako urte gehienetan zerbait izan bada, erretzailea izan da. Gustuz edota Kubako industriari mesede egin nahian, bere betiko irudia tabako purua eskuan duela denen begi nian gordeta gelditu da. Azkenean, bera ere erraustua izan da. Komandanteak ondo baitzekien hautsa garelara eta hauts bihurtuko garelara. Baina kontuan izan, irakurle gogokoa, hautsa ere, askotan, harrotu egiten dela.

Mustatxa Bakery & Sweets

Tarta pertsonalizatuak

Opari gozoak, ezberdinak eta bakarrak egiteko aukera: klik, mezu edota dei bakar batekin, eta enkarguz

www.facebook.com/mustatxa/ web orrialdean 'silviaadriano@gmail.com' helbidean edota 655 67 66 41 telefono zenbakian egin daiteke kontaktua berarekin.

Arkitektura ikasi eta langabezian geratu ostean, betidanik "izugarri" gustatu zaizkion eskulanak ogibide bihurtzen hasi zen Silvia Carreiro. Mustatxa proiektua kasualitatez sortu zuen: "Lagun batek probatzeko esan zidan eta gutxira hasi nintzen tarta pertsonalizatuak enkarguz saltzen". Benetako tartak egiten ditu, jatekoak direnak, baina jateko ez direnak ere sartzen dira Mustatxaren menuan. Eta ez hori bakarrik: pixoihal itxu-



Silvia Carreirok egiten dituen hainbat tarta pertsonalizatuak bat.

“ Ilusioa sortzen duten opari ezberdinak dira ”

rako tartak ere egiten ditu. Hori bai, tarta pertsonalizatuak dira Mustatxako izarra: "Ilusioa sortzeko opari ezberdinak dira. Adibidez: oparia jasoko duenaren argazki bat bidaltzen dida-

te eta saiatzen naiz bere ezauzgarri nabarmenen baten bidez ahalik eta antzekoena egiten". Umeendako baino gehiago, enkargu gehienak pertsona helduendako izaten dira.



Fondant-tarta pertsonalizatuak, tarta faltsuak eta pixoihal-tartak egiteko aholkuak

Informazio gehiago: 655 67 66 41 [f facebook.com/mustatxa](https://www.facebook.com/mustatxa)

Ondo ibili santamasetan!



SARRILAGINTZA-LANAK
24 ORDUZ ZURE ZERBITZURA.
OINETAKOEN KONPONKETA
Giltzen kopiak - Era guztietako labanen zorrozketak

Bañez doktorea 6, behea • Tel.: 943 79 74 87 Mugikorra: 687 77 71 57
raoscerrajero24horas.com

EH Bildu: "Urtebete galdu dugu norabiderik gabe"

Koalizio ezkertiar eta abertzaleak uste du "argazki asko eta mami gutxi" izan dela 2016ko aurrekontua gauzatzeko orduan; 2017rako 20tik gora emendakin aurkeztu dizkiote gobernuaren zirriborroari, tartean Etxezarretaren erosketa (270.000 euro)

Jokin Bereziartua ARRASATE

2016ko udal aurrekontuaren balorazioa egin eta datorren urterako emendakinak aurkezteko prentsaurrekoan, EH Bildu nabarmendu du urtebete galdu dela norabide gabe lan egiten: "Argazki asko eta mami gutxi. Plan asko aurreikusi dira, baina denak berandu gauzatu dira". Gainera, 2017ko udal aurrekontua lantzeko gobernuak erabiltako prozedura kritikatu dute: "Gobernuak dio hilabete luze eman digula lanketarako, baina denbora gehiago behar da. Arrasatearren dirua da eta, egunerokotasuneko kontuez gain, ari gara etorkizuneko herria ere



EH Bilduko Artola, Fernandez, Barberena, Larrañaga eta Larrea. JOKIN BEREZIARTUA

zizelkatzen; alkatearen memoria arinegia da eta hortik gobernuaren asmo politikoetatik gutxi jakin dezakegu".

Hala ere, lanerako eta akordioetarako prestutasuna dutela nabarmendu dute; horren adibide moduan jarri dute ordenantza fiskaletan lortutako akordioa.

Etxezarretaren aldeko apustua

Abenduaren 20ko osoko bilkuran landuko du udalbatzak 2017ko aurrekontua. EH Bildu 20tik gora emendakin aurkeztu ditu eta esanguratsuen da, kopuruari erreparatu, Etxezarreta eremua erosteara (270.000 euro): "Aisialdirako, naturaren zaintzarako eta lehen sektorea bultzatzeko apustu interesgarria da. Dakigunagatik, honako hau da aspalditik dugun aukerarik onena eremu hori herriari emateko. Orain da unea". Gainerako emendakinetan, aipatzekoak dira Amaia antzokian konponketak egiteko 50.000 euro, hileta zibiletarako eremu apropos bat egokitzeko 44.000 euro, langabeen formaziorako 30.000 euro eta auzoak biziberritzeko euro bat. Azken hori sinbolikotzat dute,

uste dutelako lantalde espezifiko bat behar duela gaiak, Obrak Zerbitzuak Mantenua eta Auzoak batzordetik (OZMA) harago. Bestalde, gobernuaren beste partida batzuk kentzea eskatzen dute. Esaterako, Cinemetro-aren alokairua kentzea (44.000 euro), 12.000 euro kostatuko den Erdi Aroko feria ez antolatzea edota Gabonetako argien alokairuaren partidak kentzea (21.140 euro). Ezberdintasun politikoez harago, gobernuarekin esertzeko ahalegina egingo dute berriro ere: "Borondatea erakusten badute azken unera arte negoziatuko dugu, uste dugulako egiten ditugun ekarpenak interesgarriak direla. Gure botoa ez dago alde zurretik markatuta".

Baleikeren emendakinak

Aurrekontuen barne-prozesua eta aurkeztuko dituen emendakinak herriararen aurrean aurkezten ari da Baleike. Martitzenean San Andresen egon ziren eta atzo, berriz, Portaloian; gaur Musakolan egongo dira, 17:00etan. "Gobernu taldeak prozesu itxia erabili du aurrekontuak lantzeko", salatu dute.



AS Reformak

• ERREFORMAK OROKORREAN
• BIOERAIKUNTZA

Zarugalde kalea 6 - 1
ARRASATE
Tel.: 943 08 27 39
607 95 79 11
www.asreformak.net

Ohiturei utsiz, jan dezagun txistorra lagun artean!!
Bihotz-bihotzez, urte berri on!!

erreka

t a b e r n a - j a t e t x e a

Ondo ibili santamasetan!



Zerrajera 4 behea 20500 Arrasate
Tel.: 943 53 32 72
erreka@errekajatetxea.eu



JOSE MARI SALEGI

HARATEGI • URDAITEGIA



Euskal okela, bertan egindako txorizoa,
tripakiak eta solomoa

Olarate kalea 20
ARRASATE



ARPE

Ile apaindegiko artikuluak

Kontzeziño 4 behea ARRASATE Tel.: 943 79 78 09

Ondo pasa santamasetan!

- Kalitate onena, prezio ezin hobean.
- Aholkularitza.
- Konfiantzazko denda.

'Alde' txartelak, jarrera matxistei "alde!" esateko

Emakumeen Mundu Martxa plataformak, Kitzikan elkartearen eta Pottogorriak taldearen babesarekin, Alde ekimena abiatuko dute datozen jai egunetarako: *Alde* txartelak utziko dituzte herriko tabernetan, jarrera matxistarik ikusiz gero "beldurrik gabe" erabiltzeko

Jokin Bereziartua ARRASATE

Indarkeria matxistaren aurkako eguna aprobetxatuta, Alde ize-neko dinamika aurkeztu zuten Arrasateko Emakumeen Mundu Martxa plataformako kideek azaroaren 25ean. Bada, asteon, ekimenaren lehen ekintzaren berri eman dute: herriko tabernetan *Alde* txartelak utziko dituzte santamasetan zein Gabon giroko ospakizunetan jarrera matxistak atzemanez gero, txartel horiek "irrotasunez eta beldurrik gabe" erabiltzeko. Diotenez, jarrera matxistak "noiznahi eta nonahi" ikusten diren arren, jai giroko testuinguruetan areagotu egiten dira.

Horregatik, Emakumeen Mundu Martxak, sexu askapenerako Kitzikan elkartearen eta Pottogorriak taldearen babesarekin, dei berezi egin die arrasatearrei: "Jendarte parekide eta osasuntsu baten bizi gura badugu, kolektiboki, herri gisa, erantzun behar diogu indarkeria matxistari. Horretarako plazaratzen dugu *Alde* txartela. Jaiak ere guztionak izatearen alde gaude la adierazteko eta hori eragozten duten jarrera eta eraso matxistei 'alde' esateko. Giro onaren eta *ligoteo* sanoaren alde gaude lako eta tabernetako olagarroei 'alde' esango diegulako".



Azaroaren 25ean aurkeztu zuten Alde dinamika, Seber Altuben. IMANOL SORIANO

Beste esparru batzuetara ere bai Izan ere, emakume bakar batek beldurra pasatzen duen bitartean erantzukizuna herritar guztiena dela defendatzen dute.

Bestalde, Emakume Mundu Martxako kideek aurreratu dute aurrerantzean ekintza gehiago antolatuko dituztela: "Alde ekimena ez da urte berriko biharanunarekin bukatuko, denbora beharko dugulako sistema hetero-patriarkal honetan indarkeria matxista errotik erausteko". Eta, gaineratu dutenez, oraingoan jaien testuinguruan

jendarteratu badute kanpaina, euren asmoa da hurrengo asteetan eta hilabeteetan beste esparru batzuetara zabaltzea. Aurreikusitakoak, adibidez, ikastetxeetara, komertzioetara, eragile sozialetara eta kultura zein kirol elkarteetara zabaltzea Alde dinamika.

Azken helburua da, aditzera eman dutenez, egungo egoerari buelta ematea: "Tratu onak eta jarrera positiboak gailenduko diren arte, martxan jarraituko dugu. *Alde* txartelak beldurrik gabe eta irrotasunez erabili".

Taxi-busa kentzeak kexak eragin ditu, aipamen pertsonalekin

Arrasate eta Aramaio arteko garraio zerbitzu publikoa indartzeko 2001ean sortu zen taxi-bus zerbitzua -32.975 euro- kendu izana kritikatu dute zenbait herritarrek. Kexak erabakiaren aurka azaltzera animatzen ditu gainerako herritarrek, udaleko langile bati eta Udal Gobernuako zinegotzi bati aipamena eginda. Gobernuak ekintza gaitzetsi du: "Kexak beti onartuko ditugu, baina ez ditugu onartuko eremu publikoetan zuzenean pertsonen izenak aipatzen diren kexak". Gaineratu dute, besteak beste, egungo zerbitzua hobea dela. EH Bilduk, berriz, ukatu egin du zerbitzua hobea dela: "Ez ditu herritarren beharrak asetzen".

AEDk kudeatzailea behar du, egunean lau orduz jarduteko

AEDk lan eskaintza baten berri eman du. Euskara elkarteak kudeatzaile bat behar du egunean lau orduz lan egiteko. Interesatuak eskatuko zaie kontabilitate ezagupenak izatea, ofimatika ezagupenak izatea, euskaraz idazteko gaitasuna izatea -EGA mailakoa edo baliokidea- eta urtarrilean lanean hasteko gertu egotea. Horrez gain, baloratuko da kudeaketa ekonomikoan eskarmentua izatea, webguneen eta sare sozialen kudeaketan eskarmentua izatea, AEDko bazkide izatea eta euskararen aldeko lana ezagutzea. Curriculumuma bidali behar da abenduaren 23a baino lehen: aed@aedelkarte.eus.

Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra, izotz pista Biteri plazan

Aurten ere Gabonetako izotz pista jartzea erabaki du Udal Gobernuak: "Iazko arrakasta ikusita -[4.000 erabiltzailetik gora izan zituen], aurten ekimena errepikatzea erabaki da". Aurtengoa iazkoa baino handiagoa izango da, 278 metro koadrokoa -iaz 171 metro koadro zituen-. Umeak, euro baten truke, ordu erdiz ibili ahalko dira eta 18 urtetik gorakoendako, berriz, bi euro izango da prezioa. Ohiko ordutegia da 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 21:00etara. Abenduaren 23an eta urtarrilaren 2an, 3an eta 4an, arratsalde egongo da zabalik bakarrik, eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Aurrekontua da 21.138 eurokoa.

'Kalera, Kalera': itxialdia, ziega eta manifestazioa

Euskal preso eta iheslari ohiek antolatuta, *Kalera, Kalera* ekimena Arrasatera helduko da asteburuan. Gaur eta bihar, herriko preso ohiak Seber Altuben jarrita dagoen ziegan egongo dira txandaka eta bihar arte, gura duten herritarrekin batera, itxialdia egingo dute Kulturateko klaustroan. Ekimena borobiltzeko, auto-karabana egingo dute Leintz Gatzagatik Arrasatera eta ondoren, 19:30ean, manifestazioa egingo dute herriko kaleetan zehar. Antolatzaileek uste dute gatazkaren ondorioak gainditzeko "ezinbestekoa" dela presoen eta iheslarien gaia konpontzea: "Sakabanaketa eta isolamendu politikek bere horretan diraute".

Renault CAPTUR eta Renault KADJAR
Crossover Gama

Crossover Gama (Renault Kadjar eta Renault Captur): kontsumo mistoa (l/100km) 3,6 eta 3,8 bitartean. CO₂-aren isurla (g/km) 95 eta 131 bitartean.

AUTOBERRI San Andres, 8. Tel. 943 712 472. ARRASATE - MONDRAGÓN

Uribarren eta Carrascal "pozik" jasotako sariekin

Gipuzkoako Atletismo Federazioak bi atleta arrasatearrak saritu zituen joan den astean egindako ekitaldian. Modu horretan, atletek, urtean zehar egindako lanagatik aitorpena jaso zuten, bereziki, lortutako marketan oinarritua izan zena

Ibon Carmona ARRASATE

Pasa den eguenean, Gipuzkoako Atletismo Federazioak lurraldeko atleta nabarmenenak saritzeko gala egin zuen Donostiako Musikeneko eraikinean. Aurtengo ekitaldian, Arrasateko atletek protagonismo berezia izan dute, Iñigo Uribarrenek (Real Sociedad) eta Eneko Carrascalak (Arrasate Atletismo Taldea) sari bana jaso zuten eta.

Uribarren, atleta onena

Jauzilari arrasatearrak ekitaldiko sari potoloena jaso zuen: gizonezko atleta onenaren Adegi saria. Aurtun, Uribarrenek 16,13 metroko saltoa egitea lortu du jauzi hirukoitzeko modalitatean, eta horrek, hein batean, saria lortzera eramana du.

Joan de asteko gala baino egun batzuk lehenago izan zuen Uribarrenek aitorpenaren berri. Eta, egueneko ekitaldian, ahoan irribarrea zuela jaso zuen saria. "Albiste pozgarria da, eta, neurri batean, urte guztian zehar egindako lana eta esfortzua konpentsatzen du. Datorren urteko probei begira ere, errekonozimenduak lanean jarraitzeko indarra emango dit", esan du Uribarrenek.

Jauzilariak abenduaren 30ean hasiko du pista estaliko denbo-



Iñigo Uribarren, Gipuzkoako atleta onenaren saria jasotzen. ARRASATE ATLETISMO TALDEA

raldia, eta, horrez gainera, otsailen Espainiako txapelketan arituko da.

Carrascal, gazteetan onena

Arrasate Atletismo Taldeko atleta Uribarrenen modalitate berean lehiatzen da, eta, daukan adina kontuan izanik, aurtun 14,94 metroko marka egitea lortu du.

Urteko atleta gazte onenaren saria jaso du Carrascalak. Haren esanetan, sariarekin, herriko atletismo taldearen osasun ona berresten da. "Jaso ditugun bi

sariekin, argi geratzen da entrenatzaileek eta prestatzaileek lana modu egokian egiten dutela. Izan ere, horien izena sarietan jasotzen ez den arren, gure emaitza onen *errudun* nagusienetariokoa dira".

Jauzilari gaztea entrenamenduetan buru-belarri dabil; izan ere, asteburu honetan pista estaliko denboraldia hasiko du, eta hasteko gogotsu dago. Hala ere, Uribarrenen antzera, Carrascalak ere otsailean egingo diren Espainiako txapelketa absolutuak ditu begiz jota.

Santamas krosean 300 lagun espero dituzte, domekan

Arrasate Atletiko Taldea Kanpazarrek antolatzen duen lasterketak –Enrike Kabiketa memoriale– 39 urte beteko ditu etzi, hilak 18. Ohi moduan, goizeko lehen orduan gaztetxoendako probak izango dira (5-14 urte bitarteko gazteak, 10:30etatik 12:00ak arte); Eta ondoren etorriko da koadrilen arteko lasterketa, 12:30ean.

Antolatzaileek momentuan bertan hartuko dituzte izenak (5 euro) –denboraz joatea komeni da– eta korrikalariak sei kilometro pasatzeko lasterketa izango dute aurretik. Azken urteotan 300 lagun inguru animatu izan dira lasterketan parte hartzera.

Gizonezkoek ere hipopresiboak egiteko ikastaroa

Gimnasia abdominal hipopresiboak abdominalen tonua hobetzea du helburu. Ariketa simple batzuk eginda, gorputzeko hainbat atal hobetzen dira: zoru pelbikoa, gerri-ondoa, bizkarrezurraren postura...

Hala, jakinekoa da gimnasia mota hori emakumeentzat oso onuragarria dela, baina gizonezkoendako ere oso ona da. Horregatik, Udal Kirol Zerbitzuak gizonezkoen artean praktika hori sustatzeko kanpaina jarri du abian. Beste eskola bat jarriko dute, astearteetan, 17:15ean, Uarkapen. Lehenago, baina, probatzeko aukera emango dute, abenduaren 20an (17:15). Kiroldegira deitu behar da txanda hartzeko.

Gurutze Gorriarekin kolaboratuko du MUK azken partiduan

Azken urteotan Ointxe! Klubaren ekimena izan da Gabonetan partidua solidario bat egitea. Elikagaien bilketa egin izan dute, eta, iaz moduan, aurtun ere jostailuak batuko dituzte Gurutze Gorrikoen kanpainarekin bat eginda.

Hala, zapatuan (18:30) MUK Ardoiren bisita izango du urteko azkenengo partiduan, eta klubeko arduradun eta jokalariek 17:00etatik egongo dira jostailuak jasotzen: "Jostailu berriak izan behar dira, erabilitakoak ez dute balio, iaz egoera txarrean zeuden asko jaso genituelako. Berriak, ez sexistak, eta ez belikoak", adierazi du klubak. Gainera, 5 euroko txartelak jarriko dituzte salgai.

Santamas jaiek pilota eramango dute Uarkapera

Santamas jaien barruan, pilotari profesionalak izango dira Uarkapen abenduaren 22an (18:00). Eskuz binaka, Mendizabal III.ak eta Martijak Jakaren eta Erostarberen kontra jokatuko dute. Eta partidua nagusian Urrutikoetxea-Beroiz eta Ezkurdi-Merino II.a izango dira zein baino zein gehiago.

Bestalde, gaur, 19:00etan hasita jokatuko dituzte klubeko gaztetxoek Santamasetako Pilota Txapelketako finalak. Hastapenetan, Aranburuzabala-Madinabeitia izango da partidua; haurretan, Antxia-Belar; kimuetan, Madina-Abasolo; infantiletan, Irasuegi-Bengoa; eta kade-te mailan, Etxezarreta-Marquez.

www.harremandenda.org

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Produktu bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako!

Pobretutako herrialdeen ekoizleen egoeraren ardura daukagu. Eman dezagun benetako pauso bat egoera hau mantentzen duen mekanismoaren aurka, merkataritza konbentzionalaren irizpideak alde batera utziz.

Modu honetan, egiten duten lanagatik soldata duin bat edukiko dute, beraien **duintasuna eta garapena ahalbidetzeko!**



**Aukeratu... BIDEZKO MERKATARITZA
Praktikatu... KONTSUMO ARDURATSUA**

Atzean istorio berezia duten opariak egiteko aukera !!



Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran aurkituko gaituzu!

Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza...

"Maila handia" egon da akordeoi lehiaketetan

Arrasate Hiria lehiaketako lehen saria Jianan Tian txinatarrak irabazi zuen, puntu laurdeneko diferentziarekin Aydar Salakhov errusiarra eta Jose Valente portugaldarra atzean utzita. Gipuzkoako Lehiaketa eta Jaialdian parte hartzen handia egon zen

Ibon Carmona ARRASATE

Pasa den asteburuan, akordeoi doinuak nagusi izan ziren Arrasaten; izan ere, beste urte batez, Hauspoz elkarteak 24. Arrasateko Akordeoi Lehiaketak antolatu zituen. Euskal Herritik, Espainiatik eta nazioartetik etorritako 400 akordeoilari inguruk hartu zuten parte.

Nazioarteko lehiaketa Txinara

Jianan Tian txinatarrak izan da aurtengo Arrasate Hiria lehiaketako irabazlea. Hauspoz elkartearen lehendakari Aitor Furundarenaren esanetan, Asiako herrialdean akordeoia asko jotzen den instrumentu bat da. Hala ere, duela urte batzuk arte, elkarteak ez zuen hango zaletasunaren berri. Hori dela eta, akordeoilari txinatarren presentzia duela urte gutxiko joera dela adierazi du.

Bigarren saria Aydar Salakhov errusiarrek eraman du, eta hirugarren saria Jose Valente portugaldarrak. Valentek derri gorrezko obraren interpretazio onenaren saria eta SUDC elkarteak ematen duen Jatorra saria ere eraman zituen.

Txapelketa nahiko lehiatua izan dela dio Furundarenak: "Lehen eta hirugarren sarituen artean puntu laurdeneko dife-



Nazioarteko lehiaketako sarituak: Salakhov, Tian eta Valente. IMANOL SORIANO

rentzia egon da; hortaz, bigarren edo hirugarren sailkatuak irabazi izan balu, irabazle justua izango zen baita ere". Orokorrean, Hauspoz-eko lehendakaria gustora azaldu da lehiaketako parte hartzaileek erakutsi duten kalitatearekin: "Jende asko maila handian lehiatu da, eta emaitza horren erakusle argia da".

Inguruko laguntzarik gabe lehiaketa antolatzea ez zen posible izango, eta, horregatik, Furundarenak Udalaren eta herriko elkarten alde gizatiarra azpimarratu nahi izan du.

Harrobia osasuntsu

Nazioarteko lehiaketarekin batera, Gipuzkoako Lehiaketa eta Jaialdia ere egin ziren. Eskualdeko txapelketei dagokienez, senior mailan Ane Urbizu tolosarra izan zen garailea; junior mailan onena, berriz, Beatriz Leonardo galiziarra; eta haurren mailan, Manuel Loureiro galiziarra nagusitu zen.

Bi ekitaldi horietan, akordeoi-joleen parte hartzea oso handia izan da, eta hori, Furundarenaren ustez, harrobia ongi dagoen seinale da.

Goikobalu abesbatzak bi emanaldi eskainiko ditu bihar

Harreman erakundearen aldeko emanaldiaz gain, Elai eta Elai Txiki abesbatzek parrokiaren abestuko dute

I.C ARRASATE

Goikobalu abesbatzak bi kontzertu emango ditu bihar: alde batetik, Harreman gobernuz kanpoko erakundearen aldekoa; eta bestetik, Elai eta Elai Txiki taldeena.

Kooperazio proiektuen alde

Urtero antolatzen den kontzertua izaten da, eta abesbatzako talde ezberdinek hartzen dute parte bertan. Emanaldiarekin, Harreman erakundeak urtean zehar aurrera eramandako ekintzei amaiera eman nahi die. Ekintza horiek bizitza duin baterako aukerak sortzea eta bidezko merkataritzan aktiboki parte hartzea dute helburu, eta aurten ugariak izan dira.

Bihar, 20:00etan hasita, San Frantzisko elizan eskainiko den kontzertuarekin, elkarteak eskerririk beroenak helarazi nahi

dizkie laguntza lanetan aritzen diren guztiei.

Gabon kantak parrokiaren

Harremanen aldeko kontzertuaz gain, Elai eta Elai Txiki taldeek doako kantu emanaldia eskainiko dute bihar San Juan Bautailatzailearen parrokiaren, 18:00etan hasita.

Kontzertuaren lehenengo zatian, Elai Txikikoek lau Gabon kanta abestuko dituzte: *Gabon Gabon*, *Arin-Arin Kristauak*, *Kanta Aleluia* eta *Gabon Eguna*. Haurren abesbatza duela lau inguru urte sortu zen, eta bederatzita neska-mutikoz dago osatua.

Elai Txikikoek emanaldiaren ostean, Elai abesbatzak Georg Friedrich Händelen *Mesias* oratorioko zenbait konposizio kantatuko ditu. Horrez gain, Gabon kanta batzuk ere abestuko dituzte.

Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur

Gabonetako jaiei begira jarrita, Arrasate Musikaleko ikasleek urteko egun hauetan ohikoa izaten den zuzeneko kontzertua eskainiko dute gaur Kulturatego aretoan (18:30). Taldeka zein bakarka, ikasleek hainbat abesti interpretatuko dituzte; batzuk Gabon kantak izango dira.

Kontzertu horrez gain, bandak ohikoa den Gabon zaharreko

kontzertua eskainiko du urteko azken egunean. Emanaldi hori Amaia antzokian izango da, 13:00etan hasita.

Big Band taldearen CDa salgai

Arrasate Musikaleko taldeak bederatzita kantaz osaturiko abesti bilduma kaleratu du. Diskoak bost euroko salneurria dauka, eta, hain zuzen ere, leku hauetan erosteko aukera egongo da: Elkar liburu dendan, Arrasate tabernan eta Musika Eskolako idazkaritzan.

Sikol

lentzeria

Tel.: 943 79 89 32
Olarte kalea 7 - ARRASATE

Bila gaitezazu Facebooken eta Instagramen

Gabon zoriontsuak!

"Harro nago herriko eragile aktiboa garelako"

XABI IGOA BERTSOLARIA ETA BERTSO ESOLAKO KIDEA

Aurtengo Gabonetako jaialdiaren atarian, bertsolaritzak Aramaion gaur egun duen osasun mailaren argazkia atera eta aztertu du Xabi Igoak

Xabi Gorostidi ARAMAIO

Xabi Igoa Aramaio bertsolaritzako Eskolatik ateratako beste herribitxi bat da. Gaur egun, nagusien talde autogestionatuan aritzen da, eta pozik dago Eskolak daraman bidearekin.

Aramaion bertsolaritza errotuta dagoen zaletasuna dela esatea ez da albiste. Hala ere, nola ikusten duzu gaur egun bertso eskolaren osasuna?


Osasuntsu dagoela esan dezakegu. Urteak joan urteak etorri, bertso eskolako kideen kopurua mantentzen dugu, eta pozik egoteko modukoa da. Aramaio bezalako herri txiki baten, eta ditugun aisialdi aukerak ikusita, seinale ona da. Baina kopuruen ginetik, osasuntsu dagoen adierazlerik garbiena da herrian parte hartzen duen eragile aktibo bat dela. Horri ematen diot nik garrantzia. Beste eragile batzuek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen dugu: Sargardo Egunean abesten, eguneko zentroan saioak eginez, edo hizkuntza gutxituei buruzko mahai inguruan kantatzen. Elkarlanerako gaitasuna positiboa da herriarentzako.

Herriko elkarten arteko sinergiak ezinbestekoak dira, ezta?

Hala da. Santa Ageda eskea da beste adibide bat. Ekintza sinplea iruditu daitekeen arren, egun berean trikiti eskolako, abesbatzako eta bertso eskolako kideak aritzen gara. Horrek, nire ustez, beste garrantzi bat ematen dio ekintzari berari.

Zifrei dagokionez, zenbat kidek osatzen duzue Bertso Eskola?

Aurten, lau talde gaude, hiru gaztetxoak eta nagusien talde autogestionatua. Paula Amilburu eta Peru Abarrategi dabiltza gazteen taldeen irakasle lanak egiten. Guztira, ikasleen, irakasleen eta partaideen artean, 20 lagun bueltako taldea gara, nahiz eta, egia esan, zifra zehatza zein den ez dakidan.



Xabi Igoa, pozik, Bertso Eskolak ematen dituen emaitzekin. XABI GOROSTIDI

"ASTEROKO LANAREN ERAKUSLE DA 2017KO TXAPELKETAKO KANPORAKETETAN EMANDAKO MAILA"

Nolabait, belaunaldi gazteei heltzen zaie aurrekoek izan duten zaletasunaren haria?

Hori da. Hala ere, plazaz plaza bertsotan aritzea ez da erraza izaten. Banan-banan ateratzen dira horretarako gaitasuna dutenak. Normalean, 18 urte bete eta kanpora ikastera joatean disolbatzen dira bertso eskolako taldeak. Baina, modu naturalean, hiru edo lau urtean behin beti atera izan da plazatik plazara aritzeko gogoz dagoen bertsolaria bat. Ni irten nintzen, ondoren Paula, jarraian Peru, aurretik Manex, Andere, Iker... Hala ere, garrantzitsuena gazteen hiru talde horiek mantentzea da. Horiek bermatzea lortuz gero, bertso familia elikatzen jarraitu dezakegu.

Arabako Txapelketako azken fasean 18 bertsolari arituko dira, eta horietatik sei Aramaiokoak zarete.

Parte hartzaileen herena, ez da marka makala gero.

Pozik egoteko da, bai. Lan onaren erakuslea da. Astero-astero, martitzenero, bertsotan egiteko elkartzeko garen seinale da. Gerta liteke finalerdietako pase batean denak aramaioarrak izatea. Kasualitate eta karanbola asko behar dira hori gertatzeko, baina aukera hor dago. Puntuazio oso aldrebesak beharko lirateke, baina tira...

Zure kasuan, zein motibazioekin ekingo diozu 2017ko txapelketari? Gogotsu. Bertso eskolan gogoz prestatzen ari gara txapelketa, nahiz eta oraindik bi hilabete falta diren. Ilusioarekin gaude. Ez dut helburu zehatzik jarri nahi arlo pertsonalean; bestela, gero, lotsagarri geratu naiteke. Aurtengo Gabonetako bertso saioa ate-joka dator eta gonbidatu bereziekin, gainera.

Sustrai Colina, Iker Zubeldia eta Oihana Iguaran etorriko dira, eta, azkenean, Peru Abarrategi izango da eurekin arituko dena. Guretzat, garrantzitsua da, urtean egiten dugun areto saio bakarra izaten delako. Beti saiatzen gara elite mailako bertsolariak gurera ekartzen.



Auzolanerako eta obra txikiarako laguntzak eskatzea ere onartu zuten X.GOROSTIDI

Gureia auzoko lanak esleitu dituzte ezohiko osoko bilkuran

Aurkeztutako zazpi enpresen artean Excavaciones Arrasateren aurrekontua izan da lehiaketako garailea

X.G. ARAMAIO

Ezohiko osoko bilkura egin zuten atzo, eguna, Aramaio Udaltzako ordezkariak. Hiru puntu bozkatu zituzten, eta horietan garrantzitsuena zen Gureia auzoko euri urak bereizten dituen saneamendu sarea, elektrizitate, kale argiteria eta telefono kanalizazioak eta zoladura proiektua esleitzeara.

Urteko proiekturik garestienetakoa izanik, urtea amaitu baino lehen lanak esleitzea zen Udaltzaren asmoa, horrela diru-laguntzak baliatu ahal izateko, eta aho batez onartu zuten lanen esleipena.

Zazpi aurrekontu

Eraikuntzako enpresek azaroaren 17ra arte izan zuten euren aurrekontuak aurkezteko epea, eta guztira zazpi enpresa aurkeztu ziren. Hirigintza batzordean proposamenak aztertu

zituzten, baina guztietan aukerarik merkeena zena *baja temeraria* egoeran zegoen.

Gainontzeko aurrekontuekin alde nabaria zuela ikusita, euren proiektuaren nondik norakoak azaltzeko aukera eman zitzaion Asfaltados y Construcciones Morga enpresari. Emandako azalpenek ez zituzten teknikarien zalantzak argitu, eta, ondorioz, Excavaciones Arrasate SL enpresari esleitu zaizkio lanak. Azken horiek aurkeztutako aurrekontua 417.877,90 euro da, BEZa barne.

Auzolanak eta obra txikiak

Eguneko beste bi puntuetan auzolanerako eta obra txikiarako diru laguntzak eskatzea onartu zuten aho batez. Arraga auzoan areka batzuk egitea eta kiroldegiko lanen bigarren fasea aktibatzea izango dira finantzaturako diren lanetako batzuk.

Ikastaroa produktu fitosanitarioen profesional izateko

Arbel Kooperatibak produktu fitosanitarioen erabiltzaile profesionala izateko titulua eskuratzeko ikastaroa antolatu du, Aramaio Udaltzaren laguntzarekin. Urtarrilaren 30etik otsailaren 3ra bitartean egingo da Aramaio Udaltzako osoko bilkura gelan, eta bost orduko saioak izango dira (15:00etatik 20:00etara). Asistentzia beharrezkoa

izango da eta azken egunean azterketa egingo dute.

Izen ematea zabalik

40 laguntzako ikastaroa izango da eta debagoiendar guztiei zuzenduta dago.

Interesa dutenek 945 445 119 telefonora deituz edo *arbel@arbel.eus* helbidera idatziz egin dezakete izen ematea. Ikastaroaren prezioa 50 euro izango da eta Aramaion erroldatuta daudenek deskontua eskuratzeko aukera izango dute.

Desfileak zabalduko du Gabonetako azoka

Aretxarte merkatarien elkarteko hainbat dendak hartuko dute parte eta 50en bat herritar elkartuko dira gaur karpa barruan jarritako alfonbra gorrian atzera eta aurrera; bihar, ostera, artisauen, ekoizleen eta merkatarien postuei egingo diete lekua han

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak antolatutako desfilea neguan izango da lehenengoz; izan ere, Herriko Plazan jarritako karpari esker, eguraldi txarraren beldurrik ez dute. Gaur izango da, 19:00etan, eta Gabonetako azokari hasiera emango dio ekitaldiak.

Jaiki elkarteko dantzariak irekiko eta itxiko dute desfilea, eta musika jarriko du AZ Gaubelak bikoteak. Alfonbra gorrian, ostera, 50en bat herritarrek jardungo du modelo lanetan honako denda hauetako generoa erakusteko: Belar Meta, Haurrak, Kilima, M-5 kirol denda, Gemes estetika zentroa, Lie lurrindegia, eta Laura ile-apaindegia. "Argiak direla, musika dela, Gabon giroa sortuko dugu karpa barruan", jakinarazi du Idoia Elexpuruk, Aretxarteko presidentea, eta gaineratu: "Neguko generoa erakutsiko dugu eta, bide batez, herritarrek animatuko ditugu herrian bertan kontsumitzera". Merkatarien elkarteak gonbidatuta gaztaina saltzailea ere izango da plazan, gaur arratsaldean.

Azoka zapatuan eta domekan

Kaleak girotzeko helburuarekin Gabonetako argiak gaur piztuko ditu Udalak. Eta bihar azo-



Aretxarteko hainbat kide desfilearen berri ematen. MIRARI ALTUBE

karen atea irekiko dituzte; goizez eta arratsalde izango da zabalik zapatuan (10:00-14:30 eta 18:00-20:30) eta domekan, goizez bakarrik. Herriko artisauak (bitxiak, margolanak, egurrekin eta larruarekin egindako lanak...), ekoizleak (barazkiak, gazta, okela...), elkarteak (UDA eta Hiruatx) eta Aretxarteko merkatariak izango dute lekua han, eta guztira hogeit hamar postutik gora elkartuko dira. Jatekoa eskainiko du Hankabeltz urdaitegiak, eta taberna ere izango da, Orlyk jarriko

du, hain zuzen ere. Aurtengo karpa zertxobait handiago dela iragarri zuten Udal ordezkariak; hortaz, erosoago egon ahal izango dira erosle eta bisitariak zein saltzaileak.

Kontzertua martitzenean

Astelehen arratsaldean, ostera, egurrezko jolasak izango dituzte neska-mutikoez karpian bertan. Eta martitzenean, abendua 20an, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Leizarra musika eskolako hainbat instrumentutako ikasleek 18:00etan.



David Agirre eleberriarekin

Triángulos en la cueva eleberria idatzi du David Agirre aretxabaletarra eta egunotan argitaratu da. Haren lehen liburua da eta misterioaren munduan eman ditu lehen pausoak: "Altxorraren bila ibiliko dira eta nik pistak emango ditut. Hainbat tokitan girotutako istorioa da", dio. Bai liburua, bai Agirrek berak etxean egiten dituen kremak eta xaboiak salgai izango ditu bihar eta etzi, Gabonetako azokan.

Azokako partaideak

Artisauak

- Izaro Sanchez
- Iban Urreta
- Nerea Maskariano
- Nerea Uribebarria
- Okila taldea
- Dabid Agirre
- Kontxi Gonzalez

Ekoizleak

- Joxe Lonbide
- Amaia Murgiondo
- Mendibitza
- Jakion

Aretxarte

- Belar Meta
- Mari Merke
- Amaia
- Lie
- Atai
- Tinta Beltza
- Txilarra
- Hankabeltz
- Orly

Beste batzuk

- UDA
- Hiruatx


Jostailu bilketa gaur eta bihar

Jostailu bat, irribarre bat kanpainaren barruan jostailuak jasoko dituzte Herriko Plazan, gaur (17:00-19:30) eta bihar (11:00-13:00), Greziako eta Saharako kanpamenduetara bidaltzeko. Jostailuek egoera onean egon beharko dute, eta pilarik gabe. Mahai jolasek (puzzleak, dominoak...) fitxa guztiekin egon behar dute eta eskolako materiala ere jasoko dute: margoak, liburuak...

Dirua ere jasoko dute, Gurutze Gorriari emateko, eta hark Debagoieneko umei jostailuak erosteko. Bi ekimen egingo dituzte: txokolatea eta bizkotxo zati bat eskaini bi euroren truke eta eskulanak egin euro baten truke. Herritarrei eskatu diete bizkotxoak egiteko etxean eta plazara eramateko, 17:00etarako, txokolatearekin jateko.

Webgune argiagoa eta erabilgarriagoa du orain Udalak

Webgunea (*aretxabaleta.eus*) berritu du Udalak, eta garbiagoa, argiagoa eta erabiltzeko samurragoa egin gura izan dute. "Batez ere, telefonoz eta tableten bitartez erabiltzeko da samurragoa, euskarri horietara egokitu dugulako formatua, jakinik gero eta jende gehiago ibiltzen dela Interneten horien bidez", jakinarazi du Unai Elkoro alkateak.



Webgunearen portada. UDALA

'Aretxabaletako ziklokrosa' hilaren 21ean eta 26an

UDAREN 70. urteurrena borobiltzeko Arteman komunikazio enpresak egindako *Aretxabaletako ziklokrosa* dokumentala emango dute Arkupen, hilaren 21ean eta 26an, 19:30ean. "Dotorea da benetan dokumentala, hunkigarria; Manolo Zubillaga lasterketen antolatzaileak, pasadizo ugari dakartza gogora", jakinarazi dute UDAkoek.

Bideoklipa grabatzeko jendea behar du Crap taldeak

Aretxabaletako eta Arrasateko kideekin osatutako Crap musika taldeak bideoklipa grabatu gura du, bihar, zapatua, kuartelean. Horretarako, baina, jendea behar dute ikusle agertzeko bideoan. Interesa dutenei kuartelean agertzeko esan diete bihar, 14:00etarako; garagardoak eta jatekoa taldekideen kontura izango dira iragarri dute.

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



Txapelketaren berri emateko elkartutako ordezkariak eta Arizmendi/UDAKo jokalariek. MIRARI ALTUBE

Emakumezkoen futbolak bere lekua du Gabonetan

Hamabigarrenez dator Arizmendi kirol elkarteak antolatutako txapelketa; abenduaren 30ean eta 31n jokatuko dute, eta batetik izango dira alebinak, infantilak eta kadeteak, eta bestetik, gorengo mailako Real Sociedad, Oiartzun eta Debagoieneko selekzioa

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumezkoen kirolari eta, kasu honetan, futbolari bultzada emateko helburuarekin, hamabigarrenez antolatuta du Arizmendi kirol elkarteak Emakumezkoen Gabonetako txapelketa. 30ean eta 31n izango da, Ibarra futbol zelaian, eta debagoiendar guztiak gonbidatu dituzte.

Alebinek, infantilek eta kadeteek jokatuko dute abenduaren 30ean, goizean goiz hasi eta iluntzera arte. Elkartuko diren taldeak honako hauek izango dira: Arizmendi/UDA, Aloña Mendi, Bergara, Antzuola, Lagun Onak, Eibar, Urki, Lazkao eta Mutriku.

Abenduaren 31n, ostera, gorengo mailako taldeek jardungo

dute norgehiagokan 10:30ean hasi eta eguerdira bitartean. Aurten Athletecek ezin etorria agertu du, eta horren ordez Oiartzun izango da: "Probintzia txiki honetan bi talde daudela gorengo mailan aprobeztatuta, Gipuzkoako txapelketa antolatzea pentsatu dugu", argitu du Arizmendi kirol elkarteko Gorka

Gabilondok. Oiartzunen, gainera, txapelketa ondo baino hobeto ezagutzen duen Oihana Aldai atezain aretxabaletarra dago, Arizmendin zein Mondran jardundakoa.

Realari dagokionez, txapelketa guztietan izan da: Realeko kontseilari Aitor Diaz de Mendibilek adierazi du gogotsu etortzen direla: "Jokalariekin egon izan naiz eta oso gustura etortzen dira. Aprobeztatuta zuek galdeztzeko profesional baten jardunaren gainean". Debagoieneko

selekzioari dagokionez, hautatzaile aldaketa egin dute, eta aurten Esti Loiti eta Tito Etxeandia izango dira taldearen ardur hartuko dutenak.

Unai Elkoro alkateak eskerrak eman gura izan dizkio Arizmendi maila horretako txapelketa antolatzeagatik Aretxabaletan. Eta kirola egiteko baliabideak errazteko konpromisoa hartu du: "Gure esku dagoen guztia egingo dugu instalazioei dagokienez egoera ahalik eta duinean jardun dezazuen".

"Polita da hainbat urteren ostean itzultzea"

OIHANA ALDAI OIARTZUN TALDEKO ATEZAINA



M.A.

Ilusioz etxera itzultzeko jokatzera?

Bai, horixe. Bertan hasi nintzen ni alebin, infantil, kadete... eta urtero jokatzeko nuen txapelketa. Hainbat urteren ostean itzultzea oso polita da.

Emakumezkoen futbolak makalduta dago Debagoienean; zer egin?

Jakinean nago, urtetxo batzuk daramatzate. Aurrerapauso handiak ematen dabilta emakumezkoen futbolearen eta

gero eta indar handiagoa dugu; hortaz, horretara animatuko nitzuke. Dibertitzeko, lagunak egiteko, eskolako kontuak ahazteko... ondo dator futbola edo beste edozein kirol.

Bolada txarrean sartuta dabil aurten Oiartzun...

Talde guztiak indartu dira ondo, geu ere bai, baina zorte txarrekin gabilta. Badakigu gai garela aurrera egiteko, eta Gabonetako atsedendialdiaren ostean indartsu itzuliko gara.

'Kalera, Kalera'-k deituta, gaur elkarretaratzea eta itxialdia

Eskualdeko ekitaldiekin egingo dute bat bihar, besteak beste, Arrasaten izango den manifestazioarekin

M.A. ARETXABALETA

Kalera, Kalera ekimenak deituta, Aretxabaletan ere hainbat ekitaldi izango dira urtarrilaren 14ra bitartean. Gaur, egubakoitza, esaterako, elkarretaratzea egingo dute Pagaldaixenean, 19:00etan, eta ondoren, 20:00 aldera, itxialdia udaletxean; gaua pasatuko dute han.

Bihar, ostera, eskuorriak banatuko dituzte goizean; 13:00etan, elkarretaratzea egingo dute Eskoriatzako plazan eta 17:00etan, auto-karabanen jaitsiko dira Gatzagaindik Arrasatera

19:00etan izango den manifestazioarekin bat egiteko.

Abenduaren 24an Zaballako espetxera (Araba) martxa egingo dute eta iluntzean txistorra eskaini Mitarte kalean (19:00). Abenduaren 31n, ohi legez, elkarretaratzea egingo dute, 19:00etan, plazan; eta urtarrilaren 1ean, brindisa izango da Urbaltzen (01:00).

Urtarrilaren 7rako kontzertuak iragarri dituzte herriko hainbat tabernatan eta 14an, zapatuan, Bilbon egingo den manifestazioa joateko dei egin dute.

Olio-pinturak eta akuarelak daude Arkupen hilabete osoan

M.A. ARETXABALETA

Gurutze Mujika aretxabaletarrak egindako sei olio-pintura eta Raket Perez de Arenazaren hamar akuarela daude Arkupeko erakusketa aretoan. Urkulu gai hartuta egindako lanak dira guztiak: "Biok gara baserritarrak eta oso denbora libre gutxi dugu. Eta konturatu gara urruti joan barik, Urkuluk aukera mordoa eskaintzen dituela".

Iazko udazkenetik hona egindako lanak dira; Mujikak, ohi bezala, olioak egin ditu eta Perez de Arenaza akuarelekin dabil orain: "Orain dela bi urte hasi nintzen eta oso gustura nabil urarekin jolasean". Lanok



Mujika eta Perez de Arenaza. M.A.

egiten asko disfrutatu dutela diote biek ala biek, eta, orain, herritarrek ere horiekin goza dezaten gura dute.

Iñaelektrik, Xistor eta Akulu kontzertuan, Mikel Unanue gogoan

Herriko hainbat musikari elkartuko dira bihar, zapatua, Mikel Unanue gogoan izateko. Herriko Plazako arkupeetan izango da kontzertua, eta han izango dira honako hauek: Iñaelektrik (21:00), Xistor Igor San Juan (21:30) eta Akulu (22:00). "Sabinak eta lagun batzuek grabatutako *La Mandragora* disko kantuak joko ditugu", jakinarazi du San Juanek, eta bertso batzuk ere gertatu dituzte.

Uztailen hil zen Unanue, eta, orain, musika lagun hartuta izan gura dute gogoan. "Ea lagun zahar asko elkartzen garen eta sasoi bateko kontuak kontatuta Mikel gogoan dugun", dio San Juanek.

Aurrekontua %0,5 handitzeko proposamena

Udal Gobernuak udalbatza osatzen duten alderdiei 2017ko aurrekontuaren proposamena aurkeztu die, abenduaren 22an egingo den osoko bilkuran bozkatzeko. Oraindik erabakirik hartu gabe, oposizioa proposamenaren aurka agertu da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako 2017ko aurrekontua abenduaren 22an egingo den osoko bilkuran erabakiko du udalbatzak. Udal Gobernuak dagoeneko aurkeztu die proposamena oposizioa alderdiei.

"2017ko aurrekontua 5.359.298 eurokoa da, 2016koa baino %0,5 handiagoa. Iazko aurrekontuarekin alderatuta, gastu arruntetan hobekuntza dago, energia-aren kostuaren aurrezpenaz... eta inbertsioak handitu ditugu, diru laguntzak sendotuz euskara, kirol eta kultura taldeei gehiago lagunduz", adierazi du Joserra Zubizarreta alkateak.

Irizpide nagusiei dagokionez, zerbitzu sozialak bermatuz, iraunkortasuna eta ingurumena hobetzeko ekintzak egingo dituztela dio alkateak: "Kontsumo energetikoa, ur-sareko matxurak konpondu... Irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetu nahi dira, bertako kontsumoaren eta komertzioaren aldeko apustua eginez". Azkenik, adierazi dute sarrerak eta gastuak parekatuta daudela.

Oposizioa aurka

Irabazi eta EH Bildu alderdiak aurrekontu proposamenaren kontra daude. EH Bilduko Aitor Zubizarreta bozeramaileak hau

adierazi du: "Batetik, aurrekontuak ez dira eztabaidatu. Bestetik, aurten PERCOa egin da eta ondorioak ez dira aurrekontuetan islatzen...". Gaineratu du irizpide aldaketa bat izan dela: "Laguntza nominatiboak kendu zituzten aurreko aurrekontuak egiterakoan, baina, oraingoan, nominatiboak jarri dituzte; aldaketa honen inguruan ere ez dakigu ezer".

Hala, eskaera eta baldintza batzuk jarriko dituzte. "Aurrekontuak egiterakoan, Eskoriatza bizi bat egiteko herriaren parte-hartzea behar da. *EskoHitza* moduko zerbait egitea... Komertzioa sustatzeko partida handituko genuke, prekarietateari dagokionez, azterketa sakon bat egiteko 10.000 euroko partida bat jarriko genuke, eta karpak bat erostea beharrezkoa da, beti alokatzen ibili beharrean...".

Irabaziko Rafa Bernal bozeramaileak, berriz, adierazi du "kontinuista" eta "epe motzeko" aurrekontu proposamena dela.

5.359.298 EUROKO PROPOSAMENA EGIN DU UDAL GOBERNUAK 2017KO AURREKONTUAN

"Zati handiena gastuetara bideratzen da". Hori horrela, Irabazik adierazi du aurrekontuak krisi ekonomikora, sozialera eta ingurumenera bideratuak egon beharko lirakeela: "Enpleguaren, garapen jasagarriaren, berdintasunaren, gazteriaren eta lankidetzaren partidak handitu nahi ditugu".

Irabaziren hiru proposamenak

Batetik, partida bat sortu nahi du Irabazik, Udaletik enplegu bat sortu dadin. Bestetik, ingurumenari bideratutako laguntzak handitu nahi ditu: "4.000 euro eskasekoak dira eta guk partida hau nabarmen handitu nahi dugu. Eskoriatzarako iraunkortasun plan bat sustatzeko, gaur egun oinarritzko zerbait dena". Eta, azkenik: "Behar gehiago dituzten herrialdeei, 5.000 euroko laguntzatik 12.000 euroko laguntzara handitzea nahi dugu".

Elizateen Elkartea pozik

Elizateen Elkarteko Iñaki Kerejeta bozeramaileak adierazi du ez dagoela aldaketa handirik aurreko eta datozen aurrekontuen artean: "Gure proposamenak sartzen dira aurrekontuetan, eta partidak pixka bat handitu zaizkigu... beraz, ondo iruditzen zaigu".



IX. Silbestradie aurkeztzeko batu zirenak talde argazkian. I.B

Silbestradie moztortuta egitera bultzatu gura dute aurten

Abenduaren 31n, haurren lasterketa egingo da goizean eta arratsaldean helduen lasterketa izango da

I.B ESKORIATZA

Aurten ere ospatuko dute Eskoriatzako San Silvestre eguna. Eskoriatzako Udalak eta Kirol Elkartek antolatuta, IX. Silbestradie egingo da, VI. Manuel Muñoz Milia sariarekin batera. Martizenean, egitaraua aurkeztuko, osoko bilkuren aretoan batu ziren Kirol Elkartekoak, udal ordezkariak eta norbanakoak.

Goizean, haurren txanda izango da; 10:30ean, dortsalen margoketa eta haurren lasterketarako izen ematea egingo da. 12:00etan, hamar urtetik behe-rakoen lasterketa hasiko da eta ostean, 12:30ean, txistor-jana egingo dute. Arratsaldean, berriz, 17:25ean, brindisa egingo da, eta 17:30ean hasiko da lasterketa. 18:00etan, Herriko Plazan jarriko den luntxarekin amaituko dute.

Helduen lasterketan, partaide guztiek lau kilometro batera

egingo dituzte, eta, milia bat geratzen denean, Manuel Muñoz Milia jokatu da. Hau da, milia bat geratzen denean –kilometro eta 600 metro– hasiko da norgehiagoka. Azkarrenak saria jasoko du, baina lehiatzea hautzkoa izango da.

Jai giroa bultzatzeko

Iñaki Uribetxeberria antolaketa taldeko kideak hau adierazi du: "Helburua jai giroa sustatzea da. Lasterketa hau antzinako ohitura da, Brasildik datorrena. Han ere antortzekin korrika egiten zuten, jai giroan... eta guk berdin egin nahi dugu Eskoriatzako. Horregatik, moztortuta etortzera bultzatu nahi ditugu herritarrak, kirola eginez urtea bukatzeko, baina, betiere, umorez...".

Gaineratu du auzo ezberdinetako herritarrak kalera eta parte hartzea animatu nahi dituztela: "Iazko ibilbide aldaketarekin, herri guztira zabaltzen da lasterketa, eta parte-hartzea ere ona izaten da".

Udalaren babesarekin

Maite Zubia izan zen egitarauaren aurkezpenean udal ordezkari gisa. Antolakuntza taldeari eskerrak eman zizkien eta egiten duten lana goraiatu zuen. "Sekulako lana dauka egun hau antolatzeak, eta antolaketa taldeari eskerrak eman beharrean gaude. Geroz eta jende gehiagok hartzen du parte ekimen honetan, eta giro ederra izaten da. Ea aurten ere arrakasta izaten duen...".

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | furgo@ibiltariak.com

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

IBILTARIAK
CAMPER EKIPAMENDUAK

www.ibiltariak.com

Fruteria MARTIN Fruteria

FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58

Errefuxiatuei laguntzeko arte martzial ikastaroa

Karate Atama Eskoriatza Elkarteak antolatuta, bihar, 10:30etatik 13:30etara, Joseba Iñurategi pilotalekuan, Greziako errefuxiatuei giza laguntza bidaltzeko materiala biltzeko kanpainarekin bat egiteko ekimena gauzatuko dute

I.B ESKORIATZA

Bihar, abenduak 17, 10:30etatik 13:30etara, arte martzialetakoa ikastaro solidarioa egingo dute Karate Atama Eskoriatzako Elkarteak Joseba Iñurategi pilotalekuan.

Publiko guztiarentzat irekia izango den ikastaroa izango da, eta ez dago aurrez izena eman beharrik. Bertan, arte martzialetan Euskal Herriko eta Espainiako irakasle onenen artean daudenak batuko dira, kirol hori gehiago ezagutu eta, era berean, solidaritatea erakusteko. Mario Hermo, Jose Luis Arranz, Valentin Carrascal eta Atama eskolako irakasleak izango dira bertan, nahi duenari erakusteko prest.

Atama Kenpo Taldeko Rafa Carriet arduradunaren esanetan: "Maila guztietako eta mota ezberdinetako arte martzialak erakutsiko dizkiegu herritarrei eta interesa duenari, kirol honetara gerturatzeko asmoz. Bo-



Eskoriatzako Kenpo taldekoak talde argazkian. RAFA CARRIET

rrokaz gain, balio ezberdinak sustatuko ditugu, solidaritatea oinarri izanik...".

Material bilketa frontoian

Arte martzialen ikastaroaz gain, Greziako errefuxiatuei laguntzeko materiala ere bertan batuko da. Horretarako, zerrenda bat egin dute, beharrezko gauzak bertara eramateko: janaria –fru-

ta-potoak, esne-hautsa, tomate, pasta, lekaleak, zukuak, olioak, atuna, azukrea, gatzak, galletak, eztiak...–, jaioberrientzako materiala –aulkiak, sehaskak, pixoihalak, umeentzat esnea...–, sendagaiak, etxeko tresnak, arropa –barruko arropa eta izarak–, garbitasunerako materiala eta beste batzuk –dendak, esterilak termoak...–.

Gospel doinuak beteko da domekan Zaldibar antzokia

Gospel doinuak eskainiko ditu The Upper Room taldea osatzen duten Mikel San Juan eta Iñaki Miguel bikote donostiarrek. Emanaldia domekan izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian. 2005ean sortutako taldea da The Upper Room, eta gospela euskaraz eskaintzen duen talde bakarra da.

Saioan zehar, eurek konposatutako abestiak aurkeztuko dituzte eta baita hainbat pieza antologiko jo ere. Sarrerak lau eurotan erosi daitezke, aurrez, Manuel Muñoz kiroldegian edo *bibe.me* webgunean. Bateria, baxua, pianoa eta Mikelen ahotza batuta eskainiko dute kontzertua.

'Cabaret' ikustera 51 lagun joango dira Eskoriatzatik

Amuska elkarteak Bilbon izango den *Broadwayko Cabaret* musikala ikustera joateko antolatuta duen irteera bihar izango da. Eskoriatzatik 16:30etan irteerako Bilbora, eta buelta 21:30ean egingo dute. Musikala 18:00etan hasiko da, eta bi ordu eta erdiko iraupena izango du, atsedendialdiarekin.

Musikalera 51 pertsona joango dira Eskoriatzatik; hori adierazi du Gurutze Idigorasek, Amuskako kideak: "Hasiara batean, 50 pertsonarendako sarrerak hartu genituen, baina azken momentuan beste batek ere eman du izena; beraz, 51 joango gara guztira, autobusa bete-beteta Bilbora".

Errege-opilak egiteko ikastaroa abenduaren 20an, kultura etxean

Talo masa eta talogintza ikastaroak izandako arrakastaren ostean, Gabonetarako errege-opilak egiten ikasteko ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Abenduaren 20an 18:00etan izango da kultura etxean, eta izena emateko azken eguna astelehena, abenduaren 19a izango da. Izena eman nahi duenak, kultura etxera joan beharko du, edo bertara deitu, 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Plaza mugatuak izango dira eta errege-opilak egiten ikasi nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu. Ikastaroa Bizkaiako Gordexola herriko enpresa batek emango du eta euskaraz izango da.

LEINTZ GATZAGA



Hilario Arana Gatzarra. ALBERTO ALTUBE

'Gatzarra': Herriak eman duen ziklista profesional bakarra

BH eta Orbea taldeetan aritu zen, 25 urte zituela Gerra Zibilean, 1936an, Oiartzunen fusilatuta hil zuten arte

Eneko Azurmendi LEINTZ GATZAGA

Hilario Arana Beitia *Gatzarra* (1911-1936) izan da profesionalerako jautzia egin duen txirrindulari gatzagar bakarra orain arte; BH eta Orbea taldeetan ibili zen. Hala ere, pasatu dira urte batzuk ordutik hona.

Dorleta txirrindulari elkarte-kide Alberto Altubek omenaldi moduko bat egin nahi izan zion aurtengo San Milixan azokan. "Sasoiko txirrindulariez bakarrik gogoratzen gara, eta, askotan, etxekoak ziren lehenagoko txirrindulariak ahaztu egiten ditugu. Beraz, gizon honi aipamen bat egitea egokia litza-tekeela pentsatu genuen. Eta, Fagor eta Kas taldeetako bailarako txirrindulariei aipamen bat egin geniela aprobetxatuta, haren argazki batzuk jarri genituen, omenaldi moduko bat egiteko", azaldu du Altubek.

Entrenatzeko, zaku patatak

Modu bitxian entrenatzen zen *Gatzarra*. Izan ere, zaku patata bat bizkarrean zuela entrenatzen zen. "Gaitasun handiak zituen, bai, baina adituek zioten indar handiagoa eta sasoi hobea lortzeko helburuarekin egiten zuela. Beste teoria bat da zaku patata hori beste nonbaiten saltzeko erabiltzen zuela, bidaia aprobetxatuz, baina ez dakigu", zehaztu du Altubek. Gaineratu du pisu dezente eramaten zuela zakuetan. "Herriak hori komentatzen bazuen, zerbaitegatik izango zen, ez ziren bi kiloko zakuak izango, diot nik".

Talde gizona

Taldekidetza mesedetan lan handia egiten zuen txirrindularia zen, laguntzailea zen. "Bizikletan ibiltzeko sekulako gaitasuna zuela zioten garaiko adituek, guztia aurretik eramaten zuela", adierazi du Altubek.

Horrez gain, hiru aldiz Espainiako txapelak izandako Luciano Monterok ere gauza bera esaten zuen eta gatzagarrik "etorkizun paregabea" izango zuela azpimarratzen zuen, Altuberen esanetan.

Gerra zibilean, fusilatuta

Adituek etorkizun oparoa zuela iragarri arren, oso gazterik hil zen, 25 urterekin. Izan ere, Espainiako gerra zibila hasi zen urtean, 1936an, Francoren tropek fusilatuta egin zuten, Oiartzunen, Gatzagako eta bailarako beste hainbat herritarrekin batera.

Altubek azpimarratu du ezin izan dutela *Gatzarra*-ri buruzko informazio gehiago eskuratu. "Sasoi hartako bizilagunik ez da bizi eta ez daukagu informazio gehiago hari buruz, ditugun datu bakarrak hauek dira. Herriko jendea ez da harekin gogoratzen, oso gazterik hil zelako. Adineko jendeak ere ez daki gauza garbirik hari buruz", dio.

Afizionatuetan, lau herritar

Profesional mailara ez iritsi arren, lau dira afizionatu mailan aritu diren herritarrek orain arte: Jon Sasiain, Igor Fernandez de Arroyabe eta Xabi eta Josu Beitia anaiak.



GABONAK 2016

+ SANTAMASAK



- Herriminak bultzatuta, bueltan etxera
- Olentzero eta Erregeak opariz beteta datoz
- Nostalgia zaporea duten Gabonak



gelatzo s.l.

***Kanpotik eta barrutik
giroa goxatzen...***

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxa: 943 78 15 51





Santamasa 2016

Preso eta
Iheslariak

KALERA
KALERA!



Osorik Jentz
Taupa Ekaitz Dat
Etxoste Jai Zale
Jrati

GABONETAKO AGENDA

EGUBAKOITZA 23

OÑATI Olentzero ikastetxeetan
Ikastetxeak / 10:00etatik aurrera

BERGARA Piztu Bergara!
Herriko plaza / 19:30ean

ARRASATE Izotz pista
Abenduaren 23an eta urtarrilaren
2an, 3an eta 4an: 16:30-21:00;
abenduaren 24an eta 31n:
11:30-13:30 eta 16:30-20:00;
urtarrilaren 1ean: itxita;
gainerako egunak: 11:30-13:30
eta 16:30-21:00.
Biteri plaza / Urtarrilaren 8a arte

BERGARA 'Bubisher'
dokumentala eta solasaldia
Gaztetxea / 18:00etan

BERGARA Aldeta taldea
Aroztegi aretoa / 19:00etan

OÑATI Oñatiko kirol sariak 2016
Udaletxea / 19:00etan

ELGETA Eskolako azoka eta
Olentzeroren etorrera
09:30-11:30: San Tomas azoka
txikia Herriko plazan; 17:00: plaza
apaintzeko eskulan tailerra; 18:30:
Olentzerori harrera Herriko plazan.

ZAPATUA 24

ANTZUOLA Olentzerori eta Mari
Domingiri ongietorria
11:00: Eskolako umeen eta
gurasoen eskutik, kalejira,
Errekaldetik irtenda. Euria eginez
gero, eskolako patioan.
18:30: Olentzero eta Mari
Domingiren jaitsiera San Josetiki.
Ekitaldi nagusia, plazan.

ARRASATE Artisau azoka
Eskuartearen elkartaren eskutik
Seber Altube / 11:00-14:00

ARETXABALETA Gabon kantuan
umeak eta erretiratuak

Bukatutakoan
txistor-mokadutxoak jango dute
elkarrekin.
Herriko Plaza / 10:00etan

ARRASATE Goikobalu abesbatza
Iturbide egoitza / 17:00etan
Ospitalea / 17:30ean
Kalejira / 19:00etan

ARETXABALETA Olentzero eta
Mari Domingi bisitan
Arratsaldean, kalejira egingo
dute Ibarra kiroldegitik
plazaraino, 18:30ean irtenda.
Herriko Plaza / 12:00etan

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia
eta Olentzero
11:20: Txoronpio, Txoronpia eta
Ttarttalok eskutitzak jasoko
dituzte. 13:15: Txoronpio,
Txoronpia eta Ttarttalo Seber
Altuben. 18:15-19:00: Olentzero.

BERGARA Olentzero eta Mari
Domingi
Ikastetxeak frontoi parean
elkartu eta beraiekin plazaraino
joango dira. Olentzerok eta Mari
Domingik gutunak jasoko dituzte
arratsaldean.

Frontoi pare / 11:45ean
Udaletxea / 19:00etan

BERGARA Olentzero Osintxun
Osintxuko zubia / 18:00etan

OÑATI Gabon kantak Txantxiku
ikastolan
12:00etan

BERGARA Olentzero Angiozarren
Angiozar / 18:45ean

OÑATI Olentzero eta Mari
Domingirekin kalejira

Parte-hartzaileak: Jose de
Azpiazu musika eskola,
Haitzondo kuadrilla,
Irazan Antzerki taldea.
Otaui Zuhaiztia / 17:30ean

OÑATI Musika bandaren Gabon
kanten emanaldia
Foruen plaza / 19:00etan

OÑATI Presoen aldeko azoka
Foruen plaza / 12:00etan

ARAMAIO Olentzeroren etorrera
Bizente Goikoetxea / 18:30ean

ELGETA Gabon kantak
Eskolatik abiatuta / 11:00etan

BERGARA Mojito gaua eta
herriko gazteen musika
Gaztetxea

ASTELEHENA 26

ARRASATE Mirandaolara irteera
Ludotekako kideendako.
09:30-13:30

ELGETA Haur parkea
Udal pilotalekua / 16:00-20:00

OÑATI Gabonetako eskulanak
Ludoteka / 10:30-13:30

BERGARA Umeendako antzerkia
3-6 urte bitarteko umeentzako.
Zabalotegi aretoa / 17:00etan

ARAMAIO Umeentzako tailerra
Ludoteka / 12:00etan

ARAMAIO Kosmetika tailerra
Jubilatuaren Egoitza / 17:00etan

ANTZUOLA San Esteban krosa
17:30ean: 5-8 urte artekoak;
17:45ean: benjamin-alebin-infantil;
18:00: kadeteak eta hortik
gorakoak

ARETXABALETA 'Aretxabaletako
ziklo-krosa' dokumentala
Arkupe kultura etxea / 19:30ean



GOIENA

DEBAGOIENA Olentzero eta Mari Domingi

Abenduaren 23an iritsiko dira eskualdeko zenbait ikastetxetara Olentzero eta Mari Domingi; eta Debagoiengan geratuko dira, biharamunean dituzte-eta hitzordu nagusiak herriz herri; iluntze partean, gehienetan. Abenduaren 23a eta 24a, goizean, eguerdian zein iluntzean.

BERGARA Aldarrikpant solasaldia eta tailerra
Gaztebtxea / 18:30

MARTITZENA 27

ARRASATE Jolas kooperatiboak
Ludoteka / 17:00-20:00

OÑATI Buztingintza
Ludoteka / 10:30-13:30

ARETXABALETA Mendi irteera
Gaztelekuko kideendako. Goizez.

ELGETA Haur parkea
Udal pilotalekua / 16:00-20:00

ESKORIATZA Sukaldaritza lehiaketa
Gaztelekua / 16:30-20:30

BERGARA Familientzako tailerra
Laborategiko jolasak. Izen ematea: www.laboratorium.eus.
Laboratorium / 12:00etan

ARAMAIO Umeentzako tailerra
Ludoteka / 12:00etan

BERGARA Sukaldaritza tailerra: turroia

Gaztelekuan

OÑATI Go!Azen antzerkia
Sarrera: 3 euro.
Gaztelekua / 17:00etan

BERGARA 'Baserri 21' hitzaldia eta dokumentala
Gaztebtxea / 18:30ean


ARRASATE 'Emakume bertsolariak, ahanzturatik diskurtso propiora'
AED eta Ekin Emakumeak.
Kulturate / 18:30ean

OÑATI 'X planeta, eguzki sistemaren maizter ikusezinaren bila'
Hizlaria, EHUKo Ricardo Hueso.
Kultura etxea / 19:00etan

ARRASATE Gabonetako truke azoka eta sorpresa
Gaztegunea / 17:00-21:00

ARETXABALETA Bixente Etxeandia txapelketa
Abenduaren 26tik 29ra bitartean.
Ibarra futbol zelaia / 15:00-19:00

zenbaki 
aholkulariak-abokatuak

Zenbaki aholkulariak - abokatuak osatzen dugunon partetik

Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!!
Zure konfiantza mantentzeko eta zerbitzu hobereana eskaintzeko,
ilusioz lan egiten jarraituko dugu.

EGUAZTENA 28

OÑATI 'Phantom Boy' filma
gaztetxoendako, euskaraz
Zinema aretoa / 17:00etan

OÑATI Talogintza
Ludoteka / 10:30-13:30

ARRASATE Kurtzetxikira irteera
Ludotekako umeendako.
10:00-14:00

ARAMAIO Badut ipuin kontalaria
Liburutegia / 17:00etan

OÑATI Gabon jaia
Musika eskolako en
laguntzarekin.
Eguneko zentroa / 11:00etan

ARETXABALETA Zirku
tailerrekoen emanaldia
Arkupe kultura etxea / 12:30ean

BERGARA Pupu eta Lore
Pupu eta Lore haizearen herrira
antzerkia. Sarrera: 4 euro.
Zabalotegi aretoa / 16:30ean eta
18:30ean

ARRASATE Inuzente egunerako

'gag'-en prestaketa
Gaztegunea / 17:00-20:00

ARRASATE Micah P. Hinsonen
kontzertua
Amaia antzokia / 20:00etan

OÑATI 'Nekazaritza Eskola
Oñatin (1851-1869) eta bere
garaia'

Aritxa kultura elkarteak
antolatutako hitzaldia da.
Hizlaria, Pedro Berriotxo.
Kultura etxea / 19:00etan

OÑATI Txuletonsen kontzertua
Antixena gaztetxea / 22:00etan

ELGETA Musika ikasleen
Gabonetako kontzertua
Espaloia antzokia / 19:00etan

BERGARA 'Night on earth' filma
Gaztetxea / 21:00

ARETXABALETA Imanol Ituiño
magoaren ikuskizuna
Helduendako. Sarrera, 4 euro.
Arkupe kultura etxea / 22:00etan



THE UPPER ROOM

ARETXABALETA, ESKORIATZA The Upper Room: gospela euskaraz

Mikel San Juanek eta Iñaki Miguelek euren kantu ezagunenak abestuko dituzte eta gospel abeslari handienei omenaldia egingo diete kontzertuetan. *Abenduaren 18an, domeka, Eskoriatzako Zaldibar aretoan, 19:00etan. Abenduaren 27an, martitzena, Aretxabaletako Arkupen, 19:00etan.*

EDERTASUNA OPARITU GABONETAN

%15eko deskontua

Aurpegiko tratamenduan · Aurpegiko higienerako 3 produktu erosterakoan
promozio baliagarria urtarrilaren 9ra arte

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

25.URTEURRENA

Erdiko kalea 54, behe 20500 ARRASATE 943.79.09.09 www.amagaraestetikazentroa.es

AMAGARA
Estetika Zentroa

OLGETA

GOZATU - HEZI - MAITATU

JOLAS ETA JOSTAILUEN AHOLKULARITZA,
MAILEGUTZA ETA SALMENTA ZERBITZUA

Ondo ibili
santamasetan!

Zerkaosteta 4 behea • Tel.: 628 67 35 50 • www.olgeta.eus • olgeta@olgeta.eus



ARRASATEKO UDALA

ARRASATE Goiengazte eguna, bailarako nerabe eta gaztetxoendako

Bailarako udalek elkarrekin antolatu dute beste urte batez Goiengazte eguna, bailarako nerabeek elkar ezagutzeko eta elkarlanean aritzeko. Jolas erraldoiak, kontzertuak eta sorpresak izango dira.

Abenduaren 26a, astelehena, Herriko plazan, 16:00etatik 20:00etara.

EGUENA 29**OÑATI** Markogintza

Ludoteka / 10:30-13:30

OÑATI Gabonetako irteera

Gabonetako Irteera 3., 4. eta 5. mailetakoekin.

OÑATI Gabonetako ur jolasak

10:30etik 12:30era eta
16:30etik 18:30era. (13 urtera arte).

Zubikoa

BERGARA Haurren eguna

Gaztetxea / 17:00etan

BERGARA Pintxopotea

20:00etan

ARRASATE Bingoa eta afaria

Gaztegunea / 18:00-22:00

ARETXABALETA, ESKORIATZA

Izotz pistara irteera + Gasteizko alde zaharra ezagutu

Gaztelekutik / 11:00-17:00

OÑATI Mendi irteera Arantzazu

aldera, gaztetxearen eskutik

Gaztetxea / 09:00etan

BERGARA Azkaiter Pelox Trio

Xabier Arrillaga Bengoaren omenezko kontzertua.

Seminarioko karpa / 19:00etan

ARETXABALETA Aretxabaleta

Abesbatzaren kontzertua

Parrokia / 19:30ean

OÑATI 'Spotlight' filma,

zineklubean

Zinema aretoa / 20:00etan

EGUBAKOITZA 30**BERGARA** Tailerra: 'Ugaztunak'

Izena emateko: www.laboratorium.eus.

laboratorium.eus.

Laboratorium / 10:30ean

ARRASATE Mendira irteera

Gazteguneko kideendako

Goizez izango da

OÑATI Buztina margotu

Ludoteka / 10:30-13:30

ANTZUOLA Haur parkea

11:00-13:30 eta 16:30-19:00.

Eskolako patioa

ALDEDI

Ondo pasau santamasak!



ARETXABALETA Urteko azken afaria eta Wii dance

Gaztelekua / 18:30-22:30

ESKORIATZA Urteko azken afaria eta bingoa

Gaztelekua / 18:30-20:30

ARETXABALETA

Emakumezkoen Gabonetako futbol txapelketa

Taldeak: Arizmendi, Aloña Mendi, Bergara, Lagun Onak, Eibar, Lazkao, Urki, Antzuola eta Mutriku.

Ibarra futbol zelaia / 09:30-18:30

ARAMAIO Umeentzako tailerra Bizente Goikoetxea / 12:00etan

OÑATI 'Uluburun' urperatze jolasak

15:30-17:30 (10-12 urte).

18:30-20:30 (13-15 urte). 3 euro.

Igerilekua / 15:30ean

ANTZUOLA 'Bi poliedro' saioa

Garikoitz Mendizabal txistularia eta Aitor Furundarena akordeoilaria.

Torresoroa / 18:30ean

ARETXABALETA 'Mami

Lebrun' Kepa Errastik idatzitako antzezlan. Sarrera, 4 euro.

Arkupe kultura etxea / 19:00etan

OÑATI Zirku ikuskizuna

Lunaticus circus zirku ikuskizuna.

4 euro (aurrez salgai: bibe.me).

Santa Ana antzokia / 22:00etan

ARAMAIO Bertso saioa

Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Oihana Iguaran eta Iker Agirre.

Kultura etxea / 22:30ean

BERGARA Gabonetako pilota txapelketaren finalak

Udal Pilotalekua

OÑATI Gabonetako kuadrillen arteko saskibalo txapelketa

Zubikoa / 10:00etan

ZAPATUA 31

BERGARA San Silvestre txikia

Irala kalea / 11:30ean

BERGARA San Silvestre trail-a San Martin plaza / 12:00etan

OÑATI Gabonetako kuadrillen arteko saskibalo txapelketa

Zubikoa / 10:00etan

OÑATI San Silvestre herri lasterketa

Foruen plaza / 16:00etan eta 16:30ean

ARETXABALETA II. San Silvestre mozorro-krosa

Mitarte kalea / 17:00etan

ARETXABALETA Bizarzuriren kalejira musika eskolarekin

Ibarra kiroldegia / 18:30ean

ARETXABALETA Goi mailako futbola hiru talderekin

Debagoieneko selekzioa, Real Sociedad eta Oiartzun taldeak.

Ibarra futbol zelaia / 09:30-14:30

ARRASATE Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua

Amaia antzokia / 13:00etan

ARRASATE Txorbela otxotea Kalejira / 18:30ean

OÑATI Musika Bandaren kalejira Oñatiko kaleak / 19:00etan

OÑATI DJ karaokea

Antixena gaztetxea / 22:00etan

OÑATI Presoen aldeko kale agerraldia

19:00etan

BERGARA Presoen aldeko flashmob erraldoia

Barrenkale / 18:00etan

BERGARA Nebulosa + ...

Gaztetxea / 01:00etan

ELGETA Pilota txapelketako finalak

Pilotalekua / 12:00etan

DOMEKA 1

ANTZUOLA Urte berriari ongietorria Arrola mendian

Arrola mendia / 00:00etan

ASTELEHENA 2

ESKORIATZA Errege opilen tailerra 6-12 urte artekoendako

Tortolis ludoteka / 17:00etan

ANTZUOLA 'Ezer ez da dirudiena' umeentzako saioa

Torresoroa / 18:00etan

MARTITZENA 3

ESKORIATZA Bost baietz proba jolasak 6-12 urte artekoentzat

OÑATI Gabonetako jolas parkea

Zubikoa / 11:00-14:00 eta

16:30-20:00

EGUAZTENA 4

OÑATI Gabonetako jolas parkea

Zubikoa / 11:00-14:00 eta

16:30-20:00

BERGARA 'Lock and stock' filma

Gaztetxea / 21:00etan



carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

ZEURE NEURRIRA, ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, 14-15. pab. • Uribarri auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com



GOIENA

DEBAGOIENA Errege magoen desfileak

Errege magoek, urteroko bisitan, kale egin barik etorriko dira gutunak batzera eta opariak banatzera. Besteak beste, Arrasaten, Bergaran –Elosuan ere bai– eta Oñatin izango dira.

Urtarrilaren 5ean, iluntzean.

EGUENA 5**BERGARA Bizarzuri eta Errege magoen desfilea**

Gutun-bilketa eta txokolate-jana: udaletxean, 19:00etan

Errege magoen desfilea: Udal Biltzean hasita, 19:00etan

OÑATI Oñati ezagutu jolasten. Ginkana

Informazio gehiago: 943 78 34 53 edo turismo@onati.eus. Turismo bulegoa / 10:30ean

BERGARA Ipuin kontaketa eta Errege magoen desfilea Elosuan

Ipuin kontaketa pilotalekuan 17:00etan. Desfilea, plazatik hasita, 18:00etan.

OÑATI Errege magoen desfilea

Txanda elkarteak antolatuta. Oñatiko kaleak / 17:30ean

OÑATI Errege bezperako bertso saioa, bertso eskolaren eskutik

Andoni Egaña, Urko Arregi, Ohiana Iguaran, Andoni Goitia, Sustrai Colina, Sebastian Lizaso. Zubikoa / 22:30ean

BERGARA DJ Loro Gaztetxea / 19:00etan**EGUBAKOITZA 6****OÑATI Musika Bandaren kalejira eta kontzertua**

Kalejira 11:00etan, eta kontzertua, 12:45ean.

OÑATI Gabonetako areto futbol txapelketa

Argibideak: Antixena gaztetxean

ZAPATUA 7**OÑATI Historiaurrera bidaia, Arrikutzen**

Informazio gehiago eta izen-ematea: 943 08 20 00 edo turismo@onati.eus. Arrikutz kobak / 10:30ean

OÑATI Txantxakale gala

Irazan Antzerki Guneak antolatuta. Irazankide gazteek txantxak egin eta grabatu dituzte Oñatiko kaleetan. Txantxa horiek proiektatzeaz gain, sorpresa ugariz apainduko da gala. Sarrerak salgai: 3 euro, Txokolateixan eta Gaztelekuan. Santa Ana antzokia / 22:30ean

BERGARA Urteberriko xake txapelketa

Gaztetxeak antolatuta. Eguraldi onarekin, herriko plazan / 16:30ean

DOMEKA 8**BERGARA Oliver magoa**

Sarrera: 4 euro; Zabalotegi aretoa / 17:00etan

BERGARA Sukaldaritza begano ikastaroa

Izen ematea, gaztetxean



Janira



IMPETUS



felina

Urtaza

Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia
Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89



TRIKITX

130 m²-ko amets ez
beteriko denda

Jostailu eta paper denda
Kale Barria 44 - Oñati
943 08 82 28



Herriminak bultzatuta, bueltan etxera

Etxetik urrun dauden debagoiendar ugari itzuliko dira berriro ere jaioterrietara, Gabonetarako, familiartean pasatzeko diren egun hauek aprobetxatuta

Ander Larrañaga DEBAGOIENA

Dagoeneko piztu dituzte Gabonetako argiak, gaztaina erre usaina nabari da kaleetan, komertzioetako erakusleihoak apainduta daude eta Olentzeroen bat edo beste ikus daiteke balkoietatik zintzilik. Euskal Herrian biziki bizi dira Gabonak, eta, duda barik, oso errotuta dago egun berezi horietan familiartean pasatzeko ohitura: lauzpabost orduko bazkariak, baserriz baserri Gabon kantak abesten joatea, Errege magoen desfilea...

Ikasketengatik, lanagatik edo beste faktore batzuegatik, debagoiendar askok kanpora joan behar izan dute euren bizitzetako momenturen batean, eta, Gabonetan, familian igarotzeko egunak izanda eta herriminak bultzatuta, jaioterria zapalduko

dute horietako batzuek, euren senitartekoen pozerako.

Kontuak kontu, argi dago zer egingo duten debagoiendar horiek Gabonetarako bueltatzen direnean: etxeko janaria dastatu, familia zein lagunekin urtean zehar pasatzen ez duten denbora berreskuratzen saiatu eta parrandaren bat edo beste egin, besteak beste.

Askotariko ohiturak Gabonetan

Jakina da munduko txoko bakoitzean modu desberdinetan bizi dituztela Gabonak: kontsumismoak, kulturak eta erlijioak eragin nabarmena dute horretan.

Horren harira, atzerrian bizi diren debagoiendar batzuekin egon da GOIENA, euren bizitokietan Gabonak nola bizi dituzten eta oporrak etxean nola aprobetxatuko dituzten jakiteko.



LORENA ALVAREZ
ARGENTINA

Aretxabaletako Lorena Alvarez Internet bidez maitemindu zen argentinarrarekin eta Laguna Nainek herrixkara joan zen duela ia zazpi urte.

"Gabonak konparatzen jarrita, ez dago alde handirik, desberdintasun nabarmenena klima dela esango nuke; hemen uda da orain. Bestetik, Argentinan ez dago Urtezahar gauean mahatsak jateko ohitura hori, hemen petardoak botatzen dira urteari ongietorria emateko", azaldu du. Gabonetarako etorriko ez den arren, urtarrean bueltatuko da herrira bisitan, familia eta betiko lagunak izugarri igartzen ditu-eta faltan.

GAIZKA MORALES
ESPAINIA

laztik dago Elgetako Gaizka Morales Madrilen, dantza garaikidea ikasten.

Madrilen Gabonak beste hiri batzuetan bezala bizi direla dio gazteak. "Plaza Nagusian txibi ogitartekoak jatea edota *Manolita*-n loteria jokatzera da tipikoa hemen", azaldu du. Halere, gurago ditu etxeko Gabonak: "Baserritar jantzi eta etxez etxe Gabon kantak abestea, poteoa kuadrillarekin, herriko giroa... ez dago ezer hoberik". Bestalde, Elgetako haize freskoa faltan igartzen duela onartu du: "Herriko paisaiak ikusten ditudanean konturatzen naiz halako toki batean jaiotzeagatik dudak zortzarekin".



MAIALEN CALDERON
AUSTRIA

Martxoan ezker bizi da Arrasateko Maialen Calderon Vienan, baina santamasetarako etorriko da, "txerri dantza dantzatzu Gabonei hasiera emateko".

Bestalde, Vienako Gabonek zentzu berezia dutela dio eta askotariko ohitura bitxiak daudela. "Gabonetako merkatu ikusgarriak, hiriko argiak, Danubioko balsa... orokorrean, turismoak gora egiten du neguan. Badago Austriako lagun batzuek kontatu zidaten ohitura kurioso bat: metal zati bat urtu, eta, hoztu ostean, bertan sortutako forma horretan iragarri omen daiteke urte berriak ekarriko duena", azaldu du Arrasateko gazteak.



CITROËN C3 BERRIA ZU BEZAIN BEREZIA

ConnectedCAM Citroën™
36 pertsonalizazio aukera
Citroën Advanced Comfort®



CITROËN-ek nahiago du TOTAL

Kontsumo mistoa (l/100 km) / CO2 isurpena (g/km): Citroën C3: 3,2-4,7 / 83-109

**ONDO IBILI
SANTAMASETAN!**



f t y + citroen.es

TALLERES CHAPIME

San Andres 5, 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22



JOSE MARI GALANTE
ESPAINIA

Salamancan bizi da Jose Mari Galante eskoriatzarra eta Gabon gaua gertuko herri batean igarotzen du, Hinojosa del Dueron.

"Abenduaren 24a izan ohi da egun polita hemen. Arratsalde txaranga egoten da eta 00:00etan sua pizten dute kintoek; ondoren, berbena bat egoten da eta parranda egiten dugu goizaldera arte", azaldu du Galantek. Bestetik, Gabon zahar gaua kuadrillakoekin pasatzea gurago duela onartu du, Eskoriatzan: "Salamancan, beste hiri askotan bezala, jendea dotore janzten da, eta hori, niretako, *pijoegia* da; horrekin batera, hiria askotariko argiekin apaintzen dute".

JOANE AMOSORRAIN
AUSTRALIA

Urrian joan zen Australiako Byron Bay hirira Bergarako Joane Amosorrain, ingelesa ikasteko asmoz, eta, Gabonak han igaroko baditu ere, familia bisitan joango da. "Auto bat hartu eta hemengo txoko desberdinak bisitatuko ditugu", dio.

Nahiz eta kaleak argiz apainduta egon, benetako Gabonen sentsazioa ez duela azaldu du gazteak, han uda baita. "Udako festa tropikal batean nagoela iruditzen zait; eskiatu beharrean, surfa egiten dute. Bestalde, Sydney munduko suzko gurpil handienak jaurtitzeko dituzte eta hiria argiz betetzen da", gaineratu du.



XABIER DERTEANO
ZEELANDA BERRIA

Duela lau urte Oñati utzi zuten Xabier Derteanok eta neskalgunak eta 2013az geroztik Zeelanda Berrian bizi dira: gaur egun, tatuajeak egiten dihardu.

Etxetik kanpo igaroko Gabonak dira; hala ere, Asian bidaia bat egin ostean herrira itzuliko dira.

"Hemen ez dago Gabon espiritu hori; uda denez, jendea oporretan joaten da. Desberdintasun modura aipatuko nuke Gabonetako pinua jarri ordez pohutukawa delako zuhaitza jartzen dutela. Bestalde, maori kulturalan urte berria ekain-uztail inguruan ospatzen da, Matariki izar konstelazioa ikusten denean", azaldu du.

KATALIN ANTZIA
FRANTZIA

Uztailera arte Bordelen egon da Katalin Antxia aretxabaletarra eta ostean Poitiers hirira joan zen, eta han oso gustura dagoela esan du: "Hiri tamaina hau atsegin dut, erraza delako alde batetik bestera mugitzea, eta eskaintza kulturala itzela da".

"Hasieran iruditzen ez bazaigu ere, ohiturak oso parekoak dira hor eta hemen. Aldaketa handiena ordutegiarena da. Eta detaile txiki horrek uste baino eragin handiagoa du ospakizunetan, baita kulturalan ere", dio Antxiak. Bestalde, Gabonak urtero familian igarotzen dituela azaldu du, eta aurten ere herrira etorriko da.



OLAIA OTERO
MEXIKO

Aurten joan da Mexikora Oñatiko Olaia Otero, Lan Harremanen eta Giza Baliabideen ikasketak egitera, eta han igaroko ditu Gabonak. Orain, eskolak bukatuta, bi hilabetez bidaiatzen ibiliko da: "Abenduaren 24a San Cristobal de las Casasen (Chiapas) igaroko dut eta Gabon zahar gaua Cancungo Playa del Carmen-en; urtea bikinian eta *piña colada* batekin hasiko dut. Ostean, Kubara goaz, eta gero, Los Cabosera".

Aurten familia faltan igarriko duela onartu du, baina, aldi berean, dio esperientzia ahazteezin hori ez lukeela ezergatik aldatuko.

Paraje eder baten kokatua

Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina

Bazkaria hasteko beste modu berezi bat

◆ Menu bereziak aukeran: 18 €

◆ Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartzza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Zorionak eta urte berri on!

Gabonetako opariak geurean

*Eguberri
Zoriontsuak!*



Jaio berriak

Ume arropak

Emakume
arropak

UME www.umearrasate.es



Umetxoentzako, haurrentzako, gazteentzako eta emakumezkoentzako arropa. Gabon zoriontsuak!

UME.

Garibai 6, ARRASATE - Tel.: 943 79 97 86



Etor zaitez, lentzerian azkena dena ezagutzera. Iratxo-ren partez, Gabon jai zoriontsuak izan!

IRATXO.

Telesforo Aranzadi kalea 2 - BERGARA - Tel.: 943 76 00 79



2 eta 16 urte arteko umeentzako. / Denetariko jantziak eta gustu guztientzako. Bergara erdialdean gaude. Zatoz!

SUBIJAI.

Irizar Pasealekua 1. BERGARA. Tel.: 943 76 42 41



Gabon jai hauetan eta 2017an eraman ezazu zure estiloa aldean. Mujika jantzi dendak jai zoriontsuak opa dizkizue!

Mujika Jantzi denda.

Barrenkale 1 - BERGARA - Tel.: 943 76 29 91



Gabonetan, oparitu etxekoei negu honetarako behar dutena: Barruko arropa, pijamak, batak, osagarriak... Ondo pasa gabon jaietan!

IGARZA LENTZERIA.

Domingo Irala 5 - Bergara - Tel.: 943 76 24 88



Olentzero eta Erregeak opariz beteta datoz

Dagoeneko hasi dira Debagoieneko haurrak egutegiko laukitxoak ezabatzen Olentzero eta Erregeak etortzeko gelditzen diren egunak zenbatzeko

A. Larrañaga DEBAGOIENA

Eskualdeko umeek aspalditik dute buruan zer eskatuko duten aurtan Gabonetarako. Eta gehienek gutunak idatzi dituzte, baita bidali ere. Urte osoan zehar txintxo portatu badira, behintzat, Olentzerok edo Errege magoek eurek eskatutakoa ekartzea espero dute. Gainera, etxe batean baino gehiagotan jasoko dituzte opariak: aitona-amonen edota osaba-izeben etxeetan sorpresaren bat espero dute gehienek.

Puntako jostailuen eske

Badaramate denboratxo bat jostailuen iragarkiak ematen telebistan, eta umeek horiek ikusi ostean idatzi dituzte Gabonetako eskutitzak; haurren ilusioak beteko dituzten opariak izango dira, duda barik.

Betiko jolasak urtero eskatzen dira, iragarkiak ikusi besterik ez dago, baina gehienek gaur egungo marrazki bizidunetako jolasak edo gailu elektronikoak eskatuko dituzte.

Opariak: zer eskatuko duzu eta nori?



AYANE DIAZ
LEINTZ GATZAGA

"Txintxo-txintxo portatu naiz aurtan eta Olentzerok eskatutakoa ekarriko didala uste dut. Lagunekin-eta jolasteko tren bat gurako nuke, eta panpinatxo bat ere bai. Lehengusuendako ere zerbait eskatuko diot: panpinak eta liburuak. Horrekin nahiko; beste umeendako opariak ere ekarri behar dituelako. Erregeak ez dira nire etxera etortzen, Leintz Gatzaga oso urruti dago eta".

AIMAR ZUBIRIA
ARETXABALETA

"Olentzero etortzen da nire etxera, nire amamaren etxera eta nire beste amamaren etxera. Auto-karrera urdina eta gorria eskatuko dizkiot eta bost metroko zirkuitua; gero, betaurreko batzuk zonbi batzuk agertzen direnak eta pistola bat horiek akabatzeko. Eta urrezko gerriko bat ere bai. Errege magoak ere etortzen direla uste dut, baina urtarrilaren 5ean nire eguna da eta opari asko omen dira egun bererako".



LUR BIAIN
OÑATI

"Nik Olentzerori bakarrik eskatzen dizkiot opariak, eta, aurtan eskutitza oraindik idatzi ez badut ere, egin dut zerrenda dagoeneko: eskulanak egiteko Bunchems jolasa, tableta bat eta jostailu bat gura ditut. Seguru sorpresaren bat edo beste ere ekarriko didala. Urtero-urtero eskatzen diodana ekartzen dit, formal portatzen naiz eta; iaz, jostailuez aparte, bere argazkia ere oparitu zidan!".

Zorionak!

Gabonak magia betetako egunak dira, maite ditugun senideekin eta lagunekin elkartu, eta gure maitasuna erakutsi nahi izaten diegu, oparien bidez. Ez da erraza zer oparitu erabakitzea eta denbora ateratzea, EROSKI horretan lagundu nahi dizugu.

Hemen aurkituko dituzu Gabonetarako zure opari guztiak!

EROSKI
ARRASATE

Musakola 11 ARRASATE
 Tel.: 943 71 10 30



ANER ORTIZ ESKORIATZA

"Ikastolatik Olentzeroren etxera eramán gutuzten eta han eman nion gutuna, eskura. Bertan idatzi nituen gura nituen jostailuak: Marshall-en kamioia, suhiltzaileen kamioia, Mantibulas jokoa eta Yo Kai-watch erlojua. Eta ea sorpresatxoren bat ere erortzen den... Olentzero bisitatu nuenean, ondoan zaku erraldoi bat zeukan; eta ziur nago han barruan zituela gordeta nire opariak".



HODEI ARRIETA ARRASATE

"Urtero-urtero eskatutako guztia ekartzen dit Olentzerok; aurten ere horrela izango da, ziurrenik, oso ongi portatu naiz eta: Hot Wheels Sierra Veloz jostailua eta horko autoak gordetzeko garaje erraldoia, liburu bat irakurtzeko eta auto telegidatu bat eskatuko dizkiot. Gainera, eskutitza dagoeneko idatzita daukat; Txoronpiori emango diot eskura lehendabizi, eta gero, hark Olentzerori emango dio".

URKO LOZANO ELGETA

"Nik Olentzerori eskatzen dizkiot beti Gabonetako opariak. Gutuna prestatzen diot eta Elgetara etortzen denean ematen diot urtero. Gabon guztietan ondo portatzen da nirekin eta orain arte, behintzat, eskatutakoa ekarri izan du. Aurten, Harry Potterren pelikula, Simon jolasa, patinete bat, liburu batzuk eta telegidatutako auto bat eskatuko dizkiot eta ziur nago eskatutako guztia ekarriko duela".



ENEKA MONDRAGON BERGARA

"Nire etxera Olentzero etortzen da urtero eta aitona-amonen eta osaba-izeben etxeetan ere zerbait uzten du niretako. Hiru gauza gura ditut Gabonetarako: patinak, nireak txikiegi gelditu zaizkidalako; aurikularrak, hondatuta ditudalako; eta argazki-kamera, argazkiak ateratzea gustatzen zaidalako. Formala izan naiz aurten, baina, ikatza ekartzen badit, baserrian sua egiteko erabiliko dugu".

EKHI CABO ANTZUOLA

"Nahiko txintxoa izan ohi naiz urtean zehar eta, normalean, eskatutakoa ekartzen dit Olentzerok; agian, guzti-guztia ez, baina... Aurtengo Gabonetan lau gauza eskatuko dizkiot: Yo Kai-watch erlojua, albama eta Nintendorako jolasa, baita Bomba jokoa ere. Ez dakit sorpresaren bat gehiago izango dudan... Dena den, aitona-amonen etxean Errege magoek zer edo zer utziko didatela uste dut".



Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"



www.bidebarri.org



Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com



Nostalgia zaporea duten Gabonak

Euren erlijioa izan edo ez, kristautasunean oinarritutako Gabonak bizi behar izaten dituzte Debagoiengan bizi diren atzerritarrek

A. Larrañaga DEBAGOIENA

Gabonek zapore gazi-gozoa dute askorendako. Duda barik, familiar eta alaitasunez bizitzeko egunak dira; baina zer pentsatuko genuke gertukoengandik urrun biziko bagina?

Horixe bera gertatzen zaie eskualdean bizi diren atzerritarrei, hain justu ere. Kanean, lanean, ikastetxeetan... gero eta ohikoagoa da gaur egun etorkinak gure artean ikustea, eta euren egun gogorak izaten dira, etxetik milaka kilometrora daudelako.

Gabon desberdinak

Txapelpunk taldearen abesti batek dioen moduan, *Zergatik ez? Olentzero ez da pasatzen Afrikatik, zergatik ez?* Bada, ez, ez Afrikatik, ezta Erromatik ere. Herrialde bakoitzean desberdin bizi dira Gabonak; kulturak edo erli-

jioak baldintzatuta, bestelakoak dira jai horietako ohiturak.

Nahiz eta gaur egungo gizarteak Gabonak nola edo hala desakralizatu dituen, eta alor hori bigarren plano batean utzi duen, ukaezina da erlijioan oinarritutako jaiak direla.

Eskualdean –eta orokorrean mendebaldeko gizarteetan– errotutako erlijioa kristautasuna izanik, hementxe bizi diren atzerritarrek erlijio horretako ohituretan oinarritutako Gabonak bizi behar izaten dituzte: hala ere, argi dago euren erlijioetatik jaiotako tradizioak mantentzen saiatzen direla.

Kontuak kontu, bailaran bizi diren hiru kanpotarrekin izan da GOIENA –Lili Gonzalez, Ouisal Amalal eta Ben Semples–, euren jaioterrietako Gabonak geratuagotik ezagutzeko.



Hondurasen oso ohikoa da Gabonetan lankideekin bazkariak egitea. LILI GONZALEZ

LILI GONZALEZ
HONDURAS



"Hondurasko Gabonak alaiagoak dira"

Orain dela sei urte etorri zen Eskoriatzara Lili Gonzalez, Hondurastik, eta, ordutik hona, behin bakarrik bueltatu da hara, jaioterrira. Bada, Gabonen bueltan beti sentitzen du herrimina, familiarren falta igartzen du eta.

Nolakoak dira Gabonak Hondurasen?

Abendu hasieratik Gabon espiritua usain daiteke, oso errotuta dago eta. Kaleak eta etxeak apaintzen dira. Orokorrean, Gabon gaua eta Eguberri eguna familiar ospatzen dira, eta oso ohikoa da parkeetara joatea. Gu Santa

Luzia parkera edota Yojoa lakura joaten ginen bazkalostean.

Eta Gabon zahar gaua?

Kale bakoitzeko kuadrillen artean panpina bat egiten da eta jendeak urteko pentsamendu txarrak idazten ditu eta ostean bolborarekin erretzen da. Erritual horri *año viejo* esaten diogu. Ostean, jendea parrandan irteten da; oso ohikoa da karibeko erritmoak dantzatzea punta deitzen den musika

"AEB-ETAKO KULTURAK ASKO KUTSATU DITU HANGO GABONAK ETA OHITURA ASKO GALTZEN ARI DIRA"

batekin. Bestalde, bazkarietarako-eta ohitura da etxe bakoitzean zerbait prestatzea eta kalera irtetea bizilagun guztiekin bakoitzak egin duena partekatzeko; hango Gabonak alaiagoak dira.

Zein da desberdintasun handiena, zure ustez?

Ameriketako Estatu Batuetako kulturak asko kutsatu ditu hango Gabonak eta ohitura asko galtzen ari dira. Hemen betiko ohiturak mantentzen dira.

Zer igartzen duzu faltan Hondurastik?

Niri dagokidanez, familia ez ikustea da gogorra.

SANTAMASAK

'DEBAGOIENA ZUZENEAN'

EGUENA 22, 20:00-21:00-22:30

TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

goiena^{''}
ZU HEMEN ZAUDE





lazko Gabonetarako egin zuten txokolatezko pastela. OUISSAL AMALAL

OUISSAL
AMALAL
MAROKO



"Gozotegiak txokolate-pastelez betetzen dira"

Orain dela hiru urte etorri zen Ouissal Amalal marokarra Arrasatera.

Zein berezitasun dute Marokoko Gabonek?

Ba, egia esan, ez da larregi ospatzen den jai. Normalean, lagunekin elkartzen gara zerbait hartzeko eta. Ez dira erlijioarekin lotura estuegia duten egunak, hemen bezala.

Oientzero ez da, ba, Marokoraino joango, ezta?

Ez, ez da inor etortzen opariak banatzera. Bikoteen artean bai egiten dira opariak: mutilak lore-sorta oparitzen dio neskalagunari eta neskek txokolatezko zerbait erosten dio mutil-lagunari.

Ba al duzue Gabonetan jaten den plater tipikorik?

Txokolatea, duda barik. Gozotegiak txokolate-pastelez betetzen dira eta horiek jaten dira Gabonak bueltan.

Nongo Gabonak gurago dituzu?

Normalean, Marokoko jaiak gurago ditut, baina Gabonak hemengoak: kaleko argiak, herriko giroa... asko gustatzen zaizkit.



Boxing Day eguneko ibilaldian. BEN SEMPLE

BEN SEMPLE
IPAR IRLANDA



"Gabonetarako etxera bueltatuko naiz"

Oñatiko Nazioarteko Lege Soziologia Institutuko ikaslea da Ben Semple gaztea, Belfastkoa. Oñatin bizi izaten dago hilabete batzuetarako, ikasketek dirauten artean.

Ze plan dituzu Gabonetarako?

Jai hauek familiarekin etxean pasako ditut. Niretako, oso garrantzitsua da Gabonak etxean igarotzea. Sei urte daramat etxetik kanpo bizi izaten, eta behin ere ez dut hutsik egin. Garai berezia da.

Zelan ospatzen dituzue Gabonak Belfasten?

Familiaren arabera da, baina, orokorrean, jai lasaiak izaten

dira, familiarrak, etxeokak; gainera, hotza eta elurra egiten du garai horretan eta giro berezia sortzen da. Gabon gauean familian egoten gara, elkarrekin afaltzen; gauerdian, oilar-meza entzutera joaten gara. Eguberri eguneko goizean, opariak ematen dizkiogu elkarri eta patxadan pasatzen dugu goiza; gero, kozinatu egiten dugu. Eta hurrengo eguna Boxing Day

"ETXETIK KANPO SEI URTE DAROAT ETA INOIZ EZ DUT HUTSIK EGIN GABONETAN ETXEAN EGOTEKO"

da, eta goiz jaiki eta paseo luze bat egiten dugu; gure etxetik gertu baso-parke bat dago, eta hara joaten gara, nire elizako lagunekin eta. Segidan, aitona-amonak ikustera joaten gara, eta gero, familian afaltzen dugu.

Zein da ospakizun kutunena?

Eguberri eguneko ilunkeran, etxetik irten eta lagunak bisitatzen ditugu, ardoa edan, indioilarra jan, hurrengo etxera joan... eta horrela, talde handia elkartzen gara, eta denok batera, ospakizun handi batekin bukatzen dugu eguna.

Aldape Taberna Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE • Tel.: 943 79 63 69



SANTAMASAK 2016



Kiroldegian egin izan den herri bazkaria Azoka Plazan egingo da aurten. GOIENA

Nork bere alea jarrita, festez gozatzeko proposamena

Urteroko ekintzak nobedadeekin tartekatu dituzte kultura taldeek, Santamas Komisiñuak eta Udalak; herri bazkaria Azoka Plazan egingo da, kiroldegian beharrean

Jokin Bereziartua ARRASATE Arrasateko hainbat kultur taldek, Udalak eta Santamas Komisiñuak egitaraua potoloa antolatu dute aurten ere. Txerrita txerria bera bezain potoloa izango da ekintza sorta. Abenduaren 22koa da egun handia, arrasatear askorentzat urteko egunik bereziena eta kutunena. Horregatik, antolatzaileen helburua da herritarrak santamasen parte sentitzea: "Astindu armaixue, gozatu kale giruen, jarri zuen alie ikuskizun, dantza, kantu, bazkari eta lagunartien, gertuen falta dittugunak goguen eta irribarre bat aldien. Ondo

pasau santamasetan!". Ondoko egitarauan ikus daitekeenez, urteroko ekintzarik ez da faltako, baina berrikuntzak ere badaude. Berrikuntza aipagarrietako bat da orain arte Musakolako kiroldegian egin izan den herri bazkaria Azoka Plazan egingo dela. Azokak askotariko erabilerak eskaintzen dituela, erdigunean kokatuta dagoela eta gune estalia dela nabarmendu dute, baina baita leku murriztua duela eta, beraz, txartelak lehenbailehen erostea komeni dela ere; Bengoa, Kajoi, Irati eta Iluntz tabernetan daude salgai, 18 eurotan.

EGITARAUA

EGUAZTENA 21

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA
SARI BANAKETA.
18:00ETAN.

SUZIRI JAURTIKETA
18:30EAN.

ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA
HERRIKO PLAZAN, 19:00ETAN.

'TXERRITA' TXERRIAREN AURKEZPENA
HERRIKO PLAZAN, 19:00ETAN.

KANTU KALEJIRA
PORTALOI TALDEAREN ESKUTIK.
PORTALOTIK HASI ETA HERRIKO KALEETAN, 19:00ETAN.

DANTZALDIA: AKERBELTZ
HERRIKO PLAZAN, 20:00ETAN.

BERTSO SAIOA AED-REN ESKUTIK
MAIALEN LUJANBIO, ANDONI EGAÑA, UNAI ITURRIAGA, AMETS ARZALLUS ETA OIHANA IGUANAN.
GAI JARTZAILEA: IKER IRIARTE.
AMAIA ANTZOKIAN, 20:00ETAN.

ZEZENSUZKOA
HERRIKO PLAZAN, 21:30EAN.

EGUENA 22

SUZIRI JAURTIKETA
09:00ETAN.

DIANA UDALAXPE TALDEAREKIN
HERRIKO KALEETAN, 09:30EAN.

GANADU ETA HEGAZTI FERIA
LAUBIDE PLAZAN, 10:00ETAN.

FRUTA, BARAZKI ETA HERRIKO SALTOKIEN ERAKUSKETA ETA LEHIAKETA
SEBER ALTUBE PLAZAN, 10:00ETAN.

BELLEN ERAKUSTALDIA
URTARRILAREN 8RA ARTE EGONGO DA ZABALIK, ABENDUAREN 25EAN ETA URTARRILAREN 1EAN IZAN EZIK.
SAN FRANTZISKO ELIZAN,
10:00-14:00 ETA 17:30-20:30.

ARTISAU LANGINTZEN FERIA
JOKIN ZAITEGI PLAZAN ETA BITERI ETORBIDEAN, 10:30EAN.

TALOAK
HERRIKO PLAZAN, 11:00ETAN.

KALEJIRA
ARROSTAITZ ETA LORE GAZTEAK DANTZA TALDEAK, TRIKILARIAK, UDALAXPE TXISTULARI TALDEA, GAITEROAK, ALBOKARIAK ETA TXALAPARTARIAK.
HERRIKO KALEETAN, 11:30EAN.

ITURENGO JOALDUNAK
HERRIKO KALEETAN, 11:30EAN.

INCANSABLES TXARANGA
HERRIKO KALEETAN, 11:30EAN.

TRIKITILARIEN EKITALDIA
HERRIKO PLAZAN, 11:30EAN.

HERRI KIROLAK
HARRI-JASOTZEA, AIZKORA, TRONTZA, LOKOTX BILKETA ETA ERAKUSTALDIA MOTOZERRAREKIN.
ZALDIBAR FRONTOIAN, 12:00ETAN.

FRUTA ETA BARAZKI LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
SEBER ALTUBE PLAZAN,
12:00ETAN.

LORE GAZTEAK DANTZA TALDEA
ORDU ERDIKO SAIOA.
HERRIKO PLAZAN, 12:10EAN.

ARROSTAITZ DANTZA TALDEA
ORDU ERDIKO SAIOA.
HERRIKO PLAZAN, 12:50EAN.

TXERRI DANTZA HERRIKOIA
HERRIKO PLAZAN, 13:45EAN.

HERRI BAZKARIA
TXARTELAK SALGAI 18 EURO TAN: BENGOA, KAJOI, IRATI ETA ILUNTZ TABERNETAN.
AZOKA PLAZAN, 14:45EAN.

'DINBI DANBA MAILUKAREN HOTS'A' ERAKUSKETA
DOKUMENTALAREN EMANALDIA.
HARRESI ARETOAN, 18:00ETAN.

ESKUZ BINAKAKO PILOTA TXAPELKETAKO PARTIDUAK
EZKURDIA-MERINO II.A ETA URRUTIKOETXEA-BEROIZ UARKAPEN, 18:00ETAN.

'BATZEN' DANTZA HERRIKOIA
ARBOLAPETAN, SEBER ALTUBEN ETA HERRIKO PLAZAN, 19:00ETAN.

TXERRI DANTZA ETA LARRAIN DANTZA HERRIKOIAK
HERRIKO PLAZAN, 19:30EAN.

TXERRI ZOZKETA
HERRIKO PLAZAN, 20:00ETAN.

DANTZALDIA: HAITZAMA TALDEA
HERRIKO PLAZAN, 20:00ETAN.

DJ MAKALAREN SAIOA
KOOLTUR EKINTZA ETA GAZTETXEAREKIN ELKARLANEAN.
GAZTETXEAN, 22:00ETAN.

Urtero errotuago dagoen azoka, santamasetakoa

Hainbat zonatan banatuta egongo da azoka, beste urte batzuetan bezala: ganadua eta hegaztiak Laubide plazan; elikagaien eta baserriarren postuak Biterin eta Seber Altuben, hurrenez hurren; eta artisauak Biterin eta Jokin Zaitegi plazan

Ander Larrañaga ARRASATE

Urtero moduan, santamasetako azoka da jaietako izarretako bat: goiz osoan zehar, ganadua, hegaztiak, baserrietako produktuak eta askotariko langintzen postuak egongo dira ikusgai Arrasaten banatuta.

Animaliak Laubiden

Iaz moduan, ganaduaren eta hegaztien feria bateratuta egongo da. Hori horrela, ganadu erakusketa Laubide plazan egongo da eta hegaztiarena Garibai hiribidean, Forum Sport sarre-rako aterpean.

Ganaduari dagokionez, sei behi mota ekarriko dituzte; pi-



Askasibar baserriko Rakel Perez de Arenaza, iazko azokan. AITZIBER ARANBURUZABALA

riniotar arraza tartean. Eta horrekin batera, urteroko pottokak, moxalak, behorrek, zezenak, astoak eta ardiak ere bai.

Baserriarren 82 postu

Baserriko produktuak dira azokaren puntu indartsuenetakoa bat, bertako barazki, fruta, fruta-arbolek, kontserbek eta bestelakoek jende asko erakartzen baitute; hala, 82 postu egongo dira Biterin eta Seber Altuben.

Biterin elikagaien 60 postu jarriko dituzte: gazta, pastelak, ogia, ezti... egongo dira eta bertako postu gehienak eskualdekoak eta Euskal Herrikoak izango dira; salbuespena Salamancako almendra garrapiñatuen postua izango da. Seber Altuben, aldiz, baserriarrak egongo dira, 22 postutan, horietatik hamabi Arrasatekoak bertakoak; gainontzekoak gertukoak: Aretxabaleta, Bergara, Leintz Gatzaga, Aramaio, Sorraluze, Gabiria eta Mallabikoak. Horiek euren baserrietan ekoiztutako frutak, barazkiak eta bestelakoak ekarriko dituzte. Eta hain justu, gune horretakoak, Seber Altubekoak, izango

dira lehiaketetan parte hartuko dutenak: herriko postu onena, fruta onena eta barazki onena sarituko dituzte.

Lanbide zaharren erakusleihu

Iraganeko eta geroko lanbide zaharrak balioan jarri eta sustatzeko asmoz, 78az geroztik urtero antolatzen du Santamas Komisiñuak artisau azoka. Hala, bi gunetan banatuta egongo dira datozen 43 artisauak -25 bailarakoak-: Jokin Zaitegi plazan eta Biterin. Azken horretan Arrasateko artisauak egongo dira, gero eta gehiago baitira urtero. Betiko moduan, langintza desberdinen postuak egongo dira: abarkagintza, larrugintza, hargintza, xisteragintza, bitxigintza, tailagintza, pilotagintza, kaikugintza, zeramika... Artisauak euren lanak salgai jartzeaz gain, erakusleihu modura ere erabiliko dituzte postuak, ondoen egiten dakitena zelan egiten duten erakusteko.

Edozelan ere, datorren egue-nean, hilaren 22an, izango da azokaz gozatzeko hitzordua, 10:00etan hasita.



HOTEL JATETXEA SANTA ANA

Uribarri 37 (Udala bidean) Arrasate

Erreserbak: 943 79 49 39

www.santaanamondragon.com

Santamas bezperan afariak emango dira.



GABONETAKO MENUAK

MENU 1

Olasko-entsalada epela gaztarekin
 •
 Perretxiko eta kipula nahaskia
 •
 Entrekota plantxa hornigaiarekin
 edo
 Bakailoa plantxan barazki-panatxearekin
 •
 Jijona-turroi izozkia
 edo
 Gazta-tarta marmelada-frutarekin
 •
 Errioxako ardoa, urtekoa
 •
 Kafea

22 €
(BEZa barne)

MENU 2

Iberikoak
 •
 Perretxikoak eta berakatz freskoak papillotean
 •
 Bieira betea eta gainerrea
 •
 Legatza plantxan panatxearekin (½)
 •
 Solomilloa plantxan hornigaiarekin (½)
 •
 Krema frijitua turroi-izozkiarekin
 edo
 Mango-sorbetea cavarekin
 •
 Sonsierra ardo ondua (botila bat hiru pertsonarentzako)
 •
 Kafea

33 €
(BEZa barne)

Eguneko menua: 18,50 € (kafea eta BEZa barne).

Gabonetako opor bezperan eta Errege egunerako menu bereziak.

Karta

Enpresentzako catering-a (kafea, etxeko pastak, pintxoak, arrazioak...)

Etxera eramateko janaria prestatzen dugu.

Neguan, jangelan zerbitzatuko da: Plater konbinatuak eta ogitartekoak.



Ibai Alberdi, Txerrita-rekin, Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña baserrian. JOKIN BEREZIARTUA

"Oso ona eta lasaia" den 'Txerrita', aurtengo izarra

Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña baserrikoa da aurtengo santamasetako txerria eta ia 300 kilorekin helduko da Herriko Plazara abenduaren 21ean (19:30); Luis Mari Alberdik hazi du: "Baserri kanpoan egoten da, gustura; bizimodu ederra eraman du"

Jokin Bereziartua ARRASATE

Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña baserrikoa da aurtengo txerria, frantziar arrazakoa, eta ia 300 kilorekin agertuko da Herriko Plazara –abenduaren 21ean, 19:30ean–. Komisiñoak *Txerrita* izenarekin bataiatu du, bi arrazoiengatik: batetik, Jose Manuel Lujanbio Retegi *Txirrita* bertsolari ezaguna hil zela 80 urte bete direla gogora ekarri nahi izan dute, eta, horrez gain, kasualitateak gura izan zuen txerria zein izango zen erabaki zuten egun berean hil zela Valentzia-ko alkate ohi Rita Barbera.

Alberdi, ganadu feriako ohikoa

Aretxabaletako Zaloña baserriko Luis Mari Alberdik ondo ezagutzen ditu santamasak. Hamar bat urte daramatza euskal arrazako ganadua erakusten Arrasaten: "Ferien egotea harro egoteko modukoa da eta balio du herritarrek ikus dezaten baserrian lan handia egiten dugula". Azokako ohiko bat izateak ahalbidetu du aurten txerria Alberdik jartzea: "Enteratu nintzen Komisiñoak txerri bila ari zirela eta kanpora jo beha-


rrean esan nien nik banuela txerri eder bat baserrian. Ikustera etorri, eta asko gustatu zitzaien". Zaloña baserrian urte asko daramatzate ondoren hiltzeko txerria hazten, baina azken sei edo zazpi urteotan txerri emeak ere izan dituzte. "Hau [*Txerrita*] ere, gainerakoak moduan, baserri kanpoan egon da, gustura eta lasai. Bizimodu ederra eraman du orain arte". Baina-leku propio eta guzti izan du: "Lokatz artean gustura ibili ostean baineran *garbitzeko* aukera izaten du". Uda partean, bereziki, zelai zabalean ere ibili da *Txerrita*, gustura asko.

"Ondo egokituko da Arrasatera"

Ingurune paregabekoa eta lasaia izan du *Txerrita*-k orain arte Galartza auzoan, eta, horregatik, Komisiñoak arrasatearrei eskatu die animalia errespetuz zaintzeko. Aholku horren aurrean lasai dago Alberdi, ondo ezagutzen du eta *Txerrita*: "Oso ona eta lasaia da eta ondo egokituko da Arrasatera eta arrasatearren konpainiara". Datorren urtean ere laguntzeko gertu dagoela dio Alberdik.

SANTAMASAK 2016 ARRASATE

GIRORIK ONENA GEUREAN!



Txerri dantzak 25 urte, elkarlanaren adierazle

Pieza ezagunaren egile Jose Ramon Vitoria eta Jon Iñaki Izarzelaia omenduko ditu Komisiñoak aurten; Vitoriak lehen aldiz aitortu duenez, down sindromea duen Beñat Barrutiarentzat egindako melodia batetik eratorritakoa da txerri dantzaren musika

Jokin Bereziartua ARRASATE

Mende laurdena beteko du aurten txerri dantzak, jai herrikoiaren eta parte-hartzaileen adierazle garbienetakoak. Izan ere, elkarlanaren adibide garbia da txerri dantza, musikaren egile Jose Ramon Vitoriak gogoratzen duenez: "Komisiñoaren bileretako baten proposatu genuen kultura talde guztien artean zerbait berria sortzea eta gogoan dut erantzuna izan zela hori lortzea zaila izango zela. Baten batek ezinezkoa izango zela ere esan zuen. Gaur egun instrumentuen arteko fusioetara ohituta gaude, adibidez, baina hori ez zen argi ikusten garai hartan". Vitoriak erronka hartu zuen bere



Txerri dantzaren eguerdiko saioa, artxiboko irudi baten. IMANOL SORIANO

gain eta egun gutxira musika proposatu zuen. Musika konposatu ostean abesteko eta dantzan egiteko koplak sortu zuen Jon Iñaki Izarzelaia. Abestia osatu ostean, Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz taldeek ekin zioten dantza berria sortzeari. "Lan kooperatiboa izan zen, elkarlanaren lehen harrietako bat. Izan ere, ordura arte nor bere aldetik zihotan...", gogoratzen du Vitoriak.

Hasiera baten, *Santamasetako dantza-kantua* zen izenburu ofiziala, baina herriak txerri dantza moduan izendatu zuen. Ordutik hona, urtero egin da, etenik barik: "Ez nuen espero herrian horrela errotuko zenik, oso pozgarria da. Musikak, koplak eta dantzak lotura estua dauka jaiarekin; gertzeko sortu zen, baina hori ez dago norberaren eskuetan. Harro senti gaitezke". Txerri dantza ez zen dantzariendako soilik pentsatu, herri osoarendako baizik. Eguerdian (13:45) saio bat egiten da eta iluntzean (19:30) beste bat; azken hori, larrain dantzarekin batera.

Komisiñoak Vitoria eta Izarzelaia omenduko ditu. "Asko eskeretzen da keinua, duela 25 urte nola

geunden gogoratzeko eta egun nola gauden ikusteko balioko du. Hala ere, hainbat dira omenaldia merezi dutenak: dantzariak, gaiteroak, trikitilariak, txistulariak, txalapartariak, abesbatzak...". Txerri dantzaren etorkizuna herriaren eskuetan dagoela nabarmendu du musikaren egileak: "Suposatzen dut mantenduko dela, Arrasateko ikurrekin bat egiten du eta".

Istorio ederra atzean

Txerri dantzaren sorrerak badu orain arte Vitoriak publikoki kontatu ez duen istorio eder bat. "Garai hartan hainbat pieza konposatzen nituen, baina banuen gordeta melodia bat eta hori aprobetxatu nuen kantua musika egiteko; melodia hori pertsona berezi batentzat sortu nuen, Beñat Barrutia Roarentzat". Down sindromearekin jaio zen Beñat; egun, *Porrotxin* moduan ere ezaguna da, besteak beste. Vitoriak Beñat jaio zenerako sortu zuen melodia: "Hark badaki eta esan izan diogu askotan: 'Hau zure abestia da, Beñat!'. Aurten 25 urte bete direla-eta merezi du benetako jatorria zein izan zen azaltzea".



GABONETARAKO, ANIMATU ETA EGIGUZU ENKARGUA!

Berezitasunak:

- Tartak, polikarpo, milorriak eta hojaldrea.
- Betiko pastelak eta bonboiak.

Ordutegia:

Astelehenetik zapatara: 07:00 - 20:30
Ilgandean: 07:00 - 16:00

Erdiko kalea 28 Arrasate | 943 79 15 34

GOZOTEGIA - PASTELERIA
MURUAMENDIARAZ

1939a ezkerreko arrasatearren zerbitzura.

Zorionak eta ondo
ibili santamasetan!



Gabon jai zoriontsuak

Mima ezazu zeure burua

Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria
80€

"Pindas" masajea

*Ekialdeko masajea, nekearen
eta estresaren aurkakoa*
70 €

Aurpegiko hidratazioa

*Azal hidratatua, bizia eta leuna;
zetazko ukipena*
55 €

Ton Bao masajea: 5 sentimenez gozatzuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin
50 €

Eskaintza zabala poltsa eta osagarrietan.
Sartu gure webgunean

www.lirainestetika.com

Laser plataforma

Diodo Lightsheer
Alejandrita
IPL-Arri Pulsatua

Hanka osoak 100 €
Izterondoak 50 €
Besapeak 45 €

**Hanka osoak+izterondoak+
besapeak 150 €**

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA



RPS: 48/14

Ez da osasun zentroa

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17

Elikagaiak, euskaraz badira, askoz goxoago

Idazlaguna. Euskara begibistan ekimena du martxan Jardunek, eta elikagai dendetan doaz orain kanpaina egitera. Kontua da jaki bati argazkia ateratzea eta, euskara dendetako hizkuntza ere izatea aldarrikatuko duen mezu batekin batera, partekatzea

Julen Iriondo BERGARA

Dendetan bistan dauden kartel eta bestelako idatzietan euskararen erabilera bultzatzeko sortutakoa da *Idazlaguna*. Euskara begibistan programa. Programaren barruan, tabernetan egindako aurtengo lehen kanpainaren ostean, elikagai dendetan egingo dute bigarrena datorren astelehenera aurrera –urtarrilaren 1era arte–.

Esku-orriak jarriko dituzte horietan, kanpainaren gaineko informazioarekin. Parte hartzeko, erositako –edo prestatutako– jaki bati argazkia atera beharko zaio, *Niri inporta dost erosten doten dendan txartelak*

euskaraz egotia edo antzerako esaldi batekin lagunduta. Argazkia, norbere datuekin batera, Jardunera bidali beharko da WhatsApp-ez –605 71 24 69– edo posta elektronikoz –*idazlaguna@gmail.com*–; *Idazlaguna*-ren Facebookean jarriko dituzte gero. Pertsona bakoitzeko hiru argazki onartuko dituzte gehienez. Parte hartzen duten guztien artean "saski eder bat" zozkatuko dute urtarrilaren 2an. Dendetan jarriko dituzten esku-orriek, kanpainaren gaineko informazioarekin batera, errezetak ere izango dituzte.

120 komertzio –euren idatzizko mezuak nagusiki euskaraz

jartzeko konpromisoa hartzen dutenak– daude, gaur egun, programa honetan izena emanda, eta beste 60 inguru boluntario, eskatzen duten dende laguntza emateko prest daudenak.

Irakurzaletasuna bultzatuz

Bestetik, domekan egingo dute plazan euskarazko liburuen truke azoka, 10:00etatik 14:00etara –egunean bertan ere eraman ahalgo dira trukekoak–. Horrez gain, Lev Tolstoinen *Zenbat lur behar ditu gizon batek?* liburuaren irakurketa kolektiboa egingo dute, 12:00etan, herriko eragileen eta herritarren artean, Barrenkaleko lokalean.

Zurekin euskaldunago!



SAIOA GARITANO JARDUN

Jardunen erronken artean dago martxan dugun bazkietza kanpainarekin lortu nahi duguna: sorkuntzarako, euskaltzaleak biltzeko, aisialdi euskaldunaz gozatzeko, kultur ekintzetarako, berbalagunak elkartzeko... gune berri bat izatea! Gune berria... ze gune berri? Bazkietza kanpainak irauango duen bi hilabete hauetan gune bat izango dugu Barrenkalean, eta bertan aukera izango duzue informazioa lortzeko, bazkide egiteko... Baina, honez gain, amesten dugun gune berri hori irudikatzen lehen urratsa ere bada. Erdigunean, herritarrengandik gertu, euskaltzaleak biltzeko gunea. Izan proiektu berritzaile honen parte! Gune, aurpegi, egitasmo eta ideia berriak nahi ditugu erronka handi hau egi bihurtzeko! Proiektu ilusionagarria, parte-hartzailea, ekintzailea, herritarra eta bateratzailea sortzera goaz, eta zurekin egin nahi dugu! Batu elkartera, egin bazkide! Bergara euskaldunagoa lortuko dugu zurekin!

Xaxau birpentsatzeko eta berrantolatze jardunaldia, bihar

Eta hemendik aurrera? leloarekin egingo dute biharko jardunaldia, 09:30 eta 12:30 artean, kartzela zaharrean. "Xaxau, jai herrikoien konpartsa, birpentsatzea eta berrantolatzea" da jardunaldiaren helburua. Gaur egun Xaxau osatzen dutenak eta interesa duten beste denak daude bilerara gonbidatuta.

"Bertan, denon ideiak batu eta gure gogoak, proposamenak eta dauden aukerak zehaztu nahiko genituzke. Zuen parte-hartzea oso aberasgarria litzatekeela pentsatzen dugu", diote herritarrei deialdia luzatuz atera dituzten esku-orrietan.

Gaineratzen dute azken urteetan "aldaketa asko" izan direla Xaxaun: "Kolektiboek gero eta pisu txikiagoa dute, eta talde eragilea norbanakoz jantzi da. Taldea koskortzen dabilen arren, jende gehiago batzeko beharra ikusi dugu, eta kolektiboekin izango dugun harremana ere denon artean pentsatzeak on egingo digu".

Nafar produktuak eta beste, San Antonioko biharko azokan

Napar Feria 11:00etan irekiko dute. Ordurako lanean ariko dira sukaldaritza lehiaketako parte-hartzaileak. 11:30ean meza izango da, eta 12:30ean Gabonetako postalen lehiaketako sari banaketa eta poniak eta zezentxoak. Alai Taldeak emanaldia egingo du 13:00etan, eta goiz osoan Angie DJak giroa du Napar Feria.

Erabilitako jostailuak batuko ditu Aranzadik Caritansi emateko

Bihar egingo du Aranzadi ikastolak urteroko jostailu bilketa, erabilitako jostailuena. San Martin plazan egingo dute bilketa, 11:00etatik 14:00etara. Batutako jostailuak Caritansi eramango dituzte ikastolako ordezkariak, beharra duten bailarako familien artean bana ditzaten gero horiek. Gabonetan, ahal beste umek oparia izatea da helburua.

Bazkietza kanpainarako gune berria

Bazkietza kanpainarako lokala inauguratuko du Jardunek bihar, Barrenkalean: 17:30ean haur eta gurasoentzat jolasak izango dira; 18:30ean, *Euskeria hegaran* paperezko hegazkin jaurtiketa lehiaketa –sariak: jolas parkerako bonua, eta gazta eta turroia–; 19:00etan, Alex eta Mariñeren kontzertua; eta 19:30ean, luntxa eta topa herrikoia.



Barrenkaleko 19.ean egongo da Jardunen lokala. JULEN IRIONDO

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

AKORT

PRINT SOLUTIONS

ERROTATIBA INPRIMATZEA · SERIGRAFIA · TANPOGRAFIA
TRANSFERRA · ERROTULAZIOA · PACKAGINGA
LANERAKO ARROPA · KUADRILLENZAKO KAMISETAK
PROMOZIO ARTIKULUA...

Gabon zorientsuak izan!

Mugarza 7 behea BERGARA | 943 765039 | info@akortprint.com



Gure Artera ekimenak egindako agerraldian batutakoak. ENEKO AZURMENDI

Presoen etxeratzerako bi ekimen Gabon bueltan

Kalera Kalera! dinamikak *Piztu Bergara* mobilizazioa antolatu du abenduaren 23rako: herriko hainbat musikari lagun, "kantuz eta aldarrikapenez" piztuko dute plaza; hilaren 31n, berriz, *flashmob*-a egingo dute, Gure Artera ekimenak antolatuta

Julen Iriondo BERGARA

Ekimen batean zein bestean oso presente izango dute Jose Migel Gaztelu, Euskal Herriko gatazkarekin lotuta egun kartzelan dagoen bergararra –bakarra–: "Oso urruti dago, Estatu espainiarrean urrutien dagoen kartzelan, Algecirasen. Urrunegi. Bera ikusteko 2.400 kilometro egin behar dira, ia asteburu oso bat autobus baten sartuta –28 ordu zehazki– eta 200 euroko gastua pertsonako. Egoera hau irauli beharra daukagu, honekin berehala amaitu behar da", adierazi dute astean Gure Artera ekimeneko kideek.

Gabonen bueltako lehen ekimena, baina, Kalera Kalera! dinamikak antolatutakoa izango da, abenduaren 23an, *Piztu Bergara*: "Kartzelan dagoen Gazteluren ahotsa eramango dugu Bergarako plazara eta bereziki senideak babestuko ditugu. Gabonen bezperan, gure animo eta indar guztia emango diegu senideei, Bergarako plaza

kantuz eta aldarrikapenez piztuz; horretarako, Bergarako hainbat musikari izango ditugu gurekin 19:30ean. Ekimen jendetsua, bizia eta erakargarria izatea espero dugu. Presoen etxeratzearen aldeko sua piztuko dugu abenduaren 23an, ea su horrek senideak goxo-goxo berotzen dituen eta sua piztuta mantentzen dugun preso guztiak etxeratu arte".

Oraindik kartzelan direnen askatasuna eskatzeko "euskal preso politiko eta errepresaliatu" ohiek sortutako dinamikak Usurbilen jarri duten Kalera Gunera joateko dei ere egin die bergararrei, eta, aldi berean, abenduaren 31n Bergaran egingo den *flashmob*-ean parte har-

**JOSE MIGEL GAZTELU
PRESO BERGARARRA
IZANGO DUTE GOGOAN
URTEA AMAITU
AURREKO EKINTZETAN**

tzera animatu ditu herritar guztiak.

Gure Artera ekimenak antolatuta egingo dute Urtezahar Egunean *flashmob*-a Barrenkaletan. 18:00etan izango da, eta iragarri dute ekimena izango dela: "Kololetsua eta dinamikoa; herrikoia; polita; laburra; ikusgarria. Herria batuko duen ekimen bat burutzea nahi dugu. Horretarako, harreman dinamika bat martxan jarriko dugu herriko talde, eragile, sindikatu, alderdi eta pertsonekin. Izan ere, presoak etxera ekartzeak denon inplikazioa eskatzen duelakoan gaude, eta ziur denon arteko olatuarekin emaitzak lortzeko abiapuntu ederra jartzeko gai garela".

Preso bakoitzeko lagun bat, 360 pertsona batu nahi dituzte, gutxienez, *flashmob*-erako. Kartzeletan egoerak ez duela hobera egin azaldu zuten aurkezpenean, eta, hasteko, gaixo dauden presoen askatasuna eta disperzioaren amaiera eskatu zuten.

Udalak erosi egin du etxe tutelatu gisa erabiltzen dena

Martxan daramatzen ia bi urteetan zerbitzuak izan duen harreragatik hartu dute orain erabakia

J.I. BERGARA

Iazko urte hasieran martxan jarri zenetik, San Antonioko Eskusarte kaleko 2.eko adineko pertsonentzako apartamentu tutelatu komunitarioak erantzun ona jaso duela-eta, erosi egin dio Udalak Eusko Jaurlaritzari, 66.127 eurotan.

Udalak azaldu du Eusko Legebiltzarrak onartutako gizarte zerbitzuei buruzko 12/2008 legea "betetzen hasteko lehen urratsa" dela hau, gaineratuz, lege horren arabera, EAEko administrazioek zortzi urteko epea zutela "gizarte zerbitzuak zehazteko eta zerbitzu horien mapa osatzeko". Oraingo erabakiarekin nagusienganako konpromisoa erakusten duela dio Udalak, "ulertzen duelako hiru-garren adinekoen beharrak oso garrantzitsuak direla eta hainbeste urte lan egin ondoren gi-



Eskusarte kaleko 2.a. JULEN IRIONDO

zarteak hori bueltatzea merezi dutela".

Une honetan hiru erabiltzaile ditu etxeak –lau izan dira 2016an– eta beste hainbesterentzako lekua dago: "Mendekotasunik izan ez baina jarraipena edo laguntza behar duten pertsonentzako da".

Bestelakoa da Irabazik bidegorrirako duen proposamena

Ezkerreko koalizioak "ez ditu bere osotasunean ontzat jotzen" Udal Gobernuak herriko bidegorri sarea osatzeko berriki aurkeztutako asmoak. Adibidez, autobus geltokitik San Antoniora doan bidegorria "txikiegia" geratuko dela uste du Irabazik. "Katabia pareko bidegorri altxatua, berriz, arriskuz beterik dagoela ikusten dugu, eta, hori

konpontzeko, bidegorria errepi-dearen altuerara jaistea eskatu dugu. Zati berriari dagokionez, San Joxepe alboan kendu behar den berdegune zatia eta bideak hartu behar duen bihurtura erabaki txartzat jotzen ditugu". Boni Laskurain kalean bidegorria egitea "zorakeria" da Irabazirentzat, eta oinezkoen eta bizikleten arteko arazoari ez dio irtenbidea emango, "ez behintzat proiektua eginda dagoen moduan". Bidegorria Matxiategitik joatea proposatzen dute.

'Kazetari kanaia' proiektua aurkeztuko dute eguaztenean

Angiolillo Liburutegiaren eskutik, Igor Meltxorrek Kazetari kanaia –*elperiodistacanalla.net*– ekimena, "ikerikuntza kazetaritza eta salaketa sozialera-ko proiektua", aurkeztuko du hilaren 21ean, 19:00etan, kartzela zaharrean. Meltxorrek ustezko irregulartasunen gaineko hainbat lan plazaratu ditu, Bidegiri buruzkoa, esaterako.

Pop Up azokaren bigarren edizioa, asteburu honetan

Bergara Bizi ekimenaren barruan Bedelkarrek antolatuta, Pop Up azoka egingo dute bihar –10:00-14:00 eta 17:30-20:30– eta etzi –11:00-14:00– plazan, Biltoki denda egondako lekalean. Hogei komertziok eramango dituzte bertara euren produktuak, %10eko deskontuarekin. Zozketa bat ere izango da, 100 eurorena –bertan gastatzeko–.

Isidro Monzonen lanaren berri, liburu baten bidez

Etxeak. Sormen berezi bat Euskal Herrian; izenburu hori du Baionako Arkitektura Artxibategiak, Olaso Dorrea Fundazioaren laguntzaz, kaleratu duen liburuak. Arkitekto bergararrak 1957 eta 1985 artean burututako lanik berezienak azaltzen dira bertan

Julen Iriondo BERGARA

Erbestean, Venezuelan, Kolonbian eta Mexikon, baina Iparraldean ere bizitzako zati handi bat egin zuen Isidro Monzonek, eta bertan gauzatu zuen bere lanaren gehiengoa, *Neobasque* estiloarekin. "Guretako garrantzitsua den lan bat egin zuen; izan ere, Iparraldean etxe guztiak zuriak, gorriak eta berdeak dira. Isidrok, aldiz, etxeak egiteko Larrun mendiko harria erabiltzen zuen, borden edo artzain txabolen modelo jarraituz", azaldu zuen liburuaren egile Jean Idiartek astean egindako aurkezpenean. Idiartek nabarmendu zuenez, tradizioa eta

modernismoa uztartzen zituen Monzonen etxegintza estiloak. "Gaur egun, oso ongi zahartu dira; etxe modernoak ziren garai hartan, eta gaur ere moderno mantentzen dira".

Libururako dokumentazioa biltzeko, Olaso Dorrea Fundazioaren laguntza jaso dute Baionako artxibategikoek. Jose Luis Elkorok aurkezpenean azaldu zuen lan honek bergararren zein Euskal Herritarren jakintza aberasteko balioko duela. Liburuko testuak euskaraz zein frantsesez daude, eta argazkiek, planoek eta kronologia batek osatzen dute lana. Liburuak Elkarren dendetan dago eskuragarri.



Idiart eta Elkorok. MAITE TXINTXURRETA

Herriko bertsolari txapelketa jokatu da gaur gaztetxean

22:00etan hasita, zazpi bertsolari ariko dira kartzela zaharrean: Iñigo Artzelus, iazko txapeliduna -aurreko asteko zenbakian, akatsez, egongo ez zela adierazi zuen aldizkari honek-; Gari Lopez de Munain, iazko bigarrena; Jon Patxi Aiastui; Enaitz Alustiza; Jon Altuna *Oxan*; Unai Arantzabal; eta Eñaut Uriarte. Gaiak jartzen, Ibon Leibar *Txinbo*.

'Benito Lertxundi eta Ez Dok Amairu', Imanol Artolarekin

Hitzaldia eguaztenean izango da, Laboratoriumen, 19:00etan. Mikel Laboa Katedraren beka jaso eta Benito Lertxundiren kantagintzaren gaineko hainbat hitzaldi egin ditu Imanol Artola amezketarrak: "Kanta guztiak hartu eta ikusi haren kantagintzan dauden aldaketak, ea garai soziopolitikoekin antzekotasunik baduten".

Fernando Gonzalo, San Pedroko organoaren aldekoan

Fernando Gonzalo izango da domekan, 19:00etan, Santa Marina elizan, Stoltz-Freres organoaren aldeko kontzertuan. Donostian jaioa, Zientzia Kimikoetan lizentziatu zen, eta pianorako eta organorako tituluak lortu zituen. Kontzertuak ematen ditu nazioartean, eta hainbat lan idatzi ditu, organorako bakarrak, nagusiki.

Gabonetako kontzertu bi frontoian, gaur bat eta bihar bigarrena

Gaur, 18:30ean, izango da Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. 12 urtetik beherakoek 2 eurotan eskuratu ahaliko dute sarrera, eta gorakoek 4tan. Bihar, berriz, 20:30ean hasiko da saioa; parte hartuko dutenak: Udal Musika Banda; Aritzeta Abesbatza; Orkestra Sinfonikoa; Orfeoia eta Orfeoi gaztea; eta Musika Eskola. Sarrera, 8 euro.

Mirari

Gabon zoriontsuak guztioi!
Ibargarai hiribidea 14 • Bergara • Tel.: 943762393

Bergara Kirol Elkarteko futbol jokalariek, kromo bilduman

Herriko hainbat goxo-denda, denda eta tabernatan eskura daitezke; hamabost taldeak daude ordezkaturatu

Maite Txintxurreta BERGARA

371 kromok osatzen dute Bergara Kirol Elkarteko Futbol Sailak kaleratu duen bilduma. Bertan, 2016-2017 denboraldiko hamabost taldeak eta bertako jokalariek eta teknikariak ageri dira, alebinen mailatik nagusien mailaraino. Talde horietatik, hamar gizonezkoenak dira eta bost emakumezkoenak.

Iñigo Zaitegi presidentearen esanetan, ekimen horren helburu nagusia "taldearen nortasuna lantzea" da, ume eta gaztetxoendako erakargarria den modu

batean. Hala, klubak herriaren duen presentzia areagotu egin nahi dute bilduma kaleratuta.

Klubeko neska-mutilek aste honetan jasoko dute albuma, doan, eta gainontzekoek bost euroren truke erosi ahal izango dute. Album horrek klubaren historia azaltzen duen testua darama hasierako orrietan, eta, haien ostean, taldeen argazkiak eta jokalariek eta teknikariak bakoitzaren kromoa itsasteko laukiak.

Kromo-pakete bakoitza euro batean salduko dute, bost kromorekin. Honako toki hauetan



Bergarako jokalariek, kromoetan. MAITE TXINTXURRETA

izango dira salgai: Tximeletan, Goxoaken, Sorgintxon, Bule tabernan, Depor tabernan, Agorrosin futbol zelaiko tabernan eta Osintxuko dendan. Gorbeat Sport enpresa arduratu da kromok ekoizteaz.

Gainera, bilduma osatzen duen lehenengok sariak jasoko dituzte. Bestetik, emakumeen eta gizonen talde nagusietako zenbait jokalariek albumak sinatuko dituzte bihar, Ilintxaren kontrako partidua amaitutakoan.

Gipuzkoako final-laurdenak eskuz eta finala paletan

Gipuzkoako Txapelketako final-laurdenetako bi partidu jokatuko dira domeka eguerdian -12:00- Udal Pilotalekuan. Kadeteetan, Azpeitiko Ilunpe klubeko ordezkaria, Alberdi, izango du kontrario Ander Etxanizek. Gazte mailan, berriz, Ander Murua ariko da Oiartzungo Seinen kontra.

Gomazko paletan, berriz, Bi-garren Mailako finala jokatuko dute Bergarako gazte mailako neskek. Intxurre izango dute kontrario. Finala gaur izango da, 20:00etan, Alegiako Elorri frontoian, eta Bergara ordezkaturatu duten pilotariak Irene Murua eta Idoia Agirrezabal izango dira.



Begarako udala

Ondo pasa Gabon jaietan!



ABENDUA

OSTIRALA 16

Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua
18:30 Udal Pilotalekuan

LARUNBATA 17

XVIII. Napar feria
San Antonio auzoa
Gabonetako kontzertua
20:30 Udal Pilotalekuan

IGANDEA 18

Domeka Azoka
11:00 San Martin plazan.
Organo Kontzertua
Fernando Gonzalo-ren eskutik
19:00 Santa Marina Elizan

ASTEAZKENA 21

Haurrentzako eskulan tailerra
18:00-19:30 Oxirondo Azokan
Hitzaldia "Benito Lerbundi eta Ez dok Amairu"
19:00 Laboratorium museoa
ZINE-KLUBA. Las ovejas no pierden el tren
20:00 Zabalotegi

OSTIRALA 23

Aldeta taldearen kontzertua
19:00 Aroztegi aretoa

LARUNBATA 24

Olentzero eta Mari Domingi
11:45 Ikastetxeen kalejira frontoitik plazaraino.
19:00 Plazan Olentzerok eta Mari Domingi haurren gutunak jasoko dituzte.
20:00 Alai taldea plazan

Osintxun:

18:00 Olentzeroren etorrera menditik

Angiozarren:

08:45 Olentzero kantuan irteera Angiozarko auzotara
19:00 Olentzeroren ailegaera plazara

ASTELEHENA 26

Hiruko saskibaloit txapelketa
10:00-14:00 / 16:00-20:00 Udal Pilotalekuan
Izen-ematea: Eskoletan eta Agorrosinen.
"Baserrian amets"
3-6 umeentzako antzerkia
17:00 Zabalotegi aretoa. (4€)

ASTEARTEA 27

Hiruko saskibaloit txapelketa
10:00-14:00 / 16:00-20:00 Udal Pilotalekuan
Izen-ematea: Eskoletan eta Agorrosinen.
Laborategiko jolasak. Familientzat tailerra.
12:00 Laboratorium museoa

ASTEAZKENA 28

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00
- 8 urte gorakoentzako gomendatua.
Labegarietan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)



"Pupu eta Lore haizearen herrira" antzerkia
16:30 / 18:30 Zabalotegi aretoa (4€)

OSTEGUNA 29

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00
- 8 urte gorakoentzako gomendatua.
Labegarietan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)

OSTIRALA 30

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00
- 8 urte gorakoentzako gomendatua.
Labegarietan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)
Gabonetako pilota txapelketako finalak
Udal pilotalekuan
UGAZTUNAK Familientzako tailerra
10:30 Laboratorium museoa

LARUNBATA 31

San Silbestre Trail
11:30 San Silbestre Trail lasterketa solidarioa
12:00 Nagusien irteera

URTARRILA

ASTELEHENA 2

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00
- 8 urte beharagoentzako gomendatua.
Udal Pilotalekuan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)
Lauko hockey torneo
09:00 Labegarietan
Izen-ematea:
Eskoletan eta Agorrosinen.

ASTEARTEA 3

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00

- 8 urte beharagoentzako gomendatua.
Udal Pilotalekuan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)

Irteera ornitologikoa
Salburua / Arabako Zientzia Naturalean museora
Izen-ematea: www.laboratorium.eus

Haurren saskibaloit torneo
Labegarietan

ASTEAZKENA 4

JOLAS PARKEA
11:00-13:00 / 17:00-20:00
- 8 urte beharagoentzako gomendatua.
Udal Pilotalekuan
(4€ sarrera - 10€ 3 eguneko bonua)
Haurren saskibaloit torneo Labegarietan

OSTEGUNA 5

Bizarzurik haurren gutun bilketa.
17:00 Udaletxe atarian
Ondoren txokolatea San Joxepe elkarteak prestatuta.

Errege kabalgata
19:00 Udal biltegitik hasita.

Elosun.
Ipuin kontaketa: 17:00 Pilotalekuan.
Kabalgata: 18:00 Plazan

IGANDEA 8

Oliver magoa
17:00 Zabalotegi aretoa (4€)

LEHIAKETAK

Erakusleho lehiaketa
Abenduak 21 Sari banaketa udaletxean
Amodiozko Gutunen XXV. Lehiaketa
Informazio gehiago: www.jardun.eus

ERAKUSKETAK

ARROZTEGI ARETOAN

BEART elkartearen pintura erakusketak:
Abenduaren 9tik 18ra.

Taila elkartearen erakusketak:
Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra.

LABORATORIUM MUSEOA

Ikimilikilikilik; Artzeren unibertsoa
Urtarrilaren 8ra arte

BESTELAKO ERAKUSKETAK

Nahikari: Kontxi Idigoras, akuarelak.
Pol-Pol: Jesus Zabaleta, margoak.
Dixula: Zuribeltzeko txirindulariak - Lokatza.
Hamaika: Azur, argazkiak.
Artesan: Jon Lopez, margoak
Raizabal: Guillermo Azkarate / Agustín Amasorain, argazkiak.

BEDELKARREN ESKUTIK

Haur eta gaztetxoendako jolas-parkea
Abenduak 17, 28, 23 eta 30
11:30.13:30 / 17:00-20:00
Seminarioko patioa.
Pop Up - Biltokiko lokalean
Abenduak 17, 18
Abenduak 10:00-14:00 / 17:00-20:00



Astelehen iluntzean egindako osoko bilkuraren une bat. MAIDER ARREGI

Soberan geratzen diren elikagaiak batuko dituzte

Astelehen iluntzean egin zuen udalbatzak abenduako ohiko osoko bilkura. Hainbat gai onartu zituzten. Tartean, Alderdi Sozialistak aurkeztutako mozioa. Bertan, elikagaien bankuari laguntzeko ekimen aktiboak abian jartzea eskatzen dute sozialistek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Elikagaien bankuari laguntzeko asmoz, Antzuolako Alderdi Sozialistak ekimena aurkeztu du udalbatzaren aurrean. "Datu makroekonomikoez egoera askoz ere hobea dela dioten arren, familia asko bizi da oraindik ere egoera oso larrian. Denetarik falta dute; tartean, elikagaiak, segurtasuna... Eta elikagaien bankuek, hain justu ere, jatekorik ez duten pertsona horiei laguntzen diete. Azaldu ezin daitekeen lana egiten dute", argitu du Miren Arrate Gallastegi zinegotzi sozialistak.

Horren aurrean, soberan, saldu ezinka geratzen diren elikagaiak biltzeko proposamena aurkeztu du abenduako ohiko osoko bilkuran. Bertan, Alderdi Sozialistak planteatzen duena da herriko ostalaritza eta dendetan saltzeko atzera botatuko elikagai horiek, egoera onean daudenak, batzea. "Badaude euren borondatez lan egiten duten pertsona eta elkar-

te ugari. Baina Udalaren bultzada eta babesa beharrezkoa dute aurrera egiteko eta kontzientzian eragiteko".

Mozioak alderdi guztien onarpena izan du. Antzuolan, baina, elikagaien bankurik ez dagoen arren, Beñardo Kortabarriak azaldu du ekimena aurrera eramateko talde bat sortu beharko dela: "Borondatea badaukagu, baina nola antolatuta gaitezkeen erabaki behar dugu orain".

Aztergaiak

Bestelako gaiak ere izan zituzten mahai gainean astelehenean. Hala, zerga ordenantzei behin betiko onarpena eman zitzaien EH Bilduren aldeko botoekin. EAJ eta PSE-EE alderdiak abs-

2017KO ZERGA ORDENANTZA BEHIN BETIKO ONARTU DUTE EH BILDUREN ALDEKO BOTOEKIN

tenitu egin ziren. "Ez gaude ados zaborraren tasarekin; ezta ere Ondasun Higiezinaren zergaren igoerarekin, eta, horregatik, abstenitu egingo gara", azaldu zuen Basilio Ormazabalek, jeltzaleen bozeramaileak. Beñardo Kortabarria alkateak argitu zuen ez dela alegaziorik aurkeztu.

Aho batez onartu ziren, aldiz, Itelazpi enpresarekin egingo den lankidetzaren hitzarmen berria eta kultura elkarteekin adostutako hitzarmena. Hain zuzen ere, kultura elkarteei kirol elkarteei aplikatuko zaien hitzarmen berak eragingo die. Hau da, Maiuraren Alardea elkarteak, Oinarin dantza taldeak eta herriko txistulari taldeak aurrez jasoko dute diru laguntza euren ekintzak egin ahal izateko.

Udal aurrekontuak

Hurrengo ohiko osoko bilkura 2017ko urtarrilaren 17an egingo da. Eta Udal Gobernuak 2017ko aurrekontuen proposamena aurkeztuko du.

'Kalera kalera' ekimenarekin bat egiteko dei egin dute

'Ez dut moztuko bizarra' taldeak eta EH Bilduk babestuta, makina bat ekintza egingo dira

Maidar Arregi ANTZUOLA

Kalera kalera ekimenarekin bat eginez, asteburuan behi jezte apustua eta elkarretaratzea egin ziren plazan. "Badira jada bost urte Aieteko nazioarteko konferentziak gatazkaren konponbidea sustatzeko ate bat zabalduta zuela. Geroztik, aurrerapauso ugari eman dira norabide honetan. Tamalez, giza eskubideak ez dira unibertsalak herri honetan eta egungo legedia ez da baliozkoa herritar ororendako. Ondo jakina da euskal preso politikoko eta iheslariaren senide eta lagunentzat. Amesten dugun etorkizuna eraiki ahal izateko, herritar guztien eskubideen berdintasunaren aldeko aldarria lau haizetara zabaltzea ezinbestekoa da", aldarrikatu dute.

Hala, Gabonetan egingo diren ekintzetan parte hartzeko dei egin dute. Abenduaren 23an,



Behi jeztea. IMANOL SORIANO

elkarretaratzea, 19:00etan, Zurrategin. Argazki erraldoia aterako dute. 24an, eguerdian, luntxa, Zurrategin. Iluntzean, Olenzterori harrera ekitaldia. Eta urtarrilaren 14an Bilboko manifestazioan parte hartzeko dei egin gura diete antzuolarrei.

Sahararen aldeko festa egingo dute bihar, Zurrategin

Udan Debagoienara haur Saharar gehiago etorri ahal izateko festa antolatu du gazte txokoak, Anelkarren eta Sagiri elkarteekin laguntzarekin. Hala, gaztetxoekin kontzertua, haima muntaketa eta tortilla pintxoak salgai egongo dira. Sahararen aldeko festa bihar, 19:00etan, Zurrategin da. Batzen den dirua haurrak opor sasoiaren ekartzeko da.

Jose Antonio Pascual organo jolearen emanaldia domekan

Gipuzkoako Diputazioak babestuta, Jose Antonio Pascual organo jolearen eta irakaslearen zuzeneko emanaldia entzuteko aukera egongo da domekan, abenduaren 18an. Aurretik, baina, Antzuolako parrokiaren meza nagusia izango da, eta ondoren izango dute bertaratzen direnek Pascualen kontzertua entzun eta gozatzeko aukera.

San Tomas ospatuko dute ikasleek eta erretiratuek

Abenduaren 22an, eguena, ospatuko dute San Tomasen biharan eguna. Eskolako patioan San Tomas feria egingo dute ikasleek, arratsaldeko lauretan hasita. Txokolatea eta txistorra banatuko dituzte. Herriko erretiratuek, aldiz, txistor-jana egingo dute Landatxoepi erretiratuen elkarteko egoitzan, arratsaldeko bostetan hasita.

Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua


Astelehenean, abenduaren 19an, Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua izango da, 19:00etan, Torresoroan. 60 lagun igoko dira oholza gainera. Aurtan, txistua, biolontxelo, gitarra, pianoa, oboea, biolina, flauta, klarineteak, saxofoia, perkusioa, akordeoia, ahotsa eta abesbatza entzuteko aukera izango dute gerturatzen diren antzuolarrek.



Udal gobernuak konpontzea proposatzen duen hilerriko horma. L.Z.



Martitzenean egindako batzarra. L.Z.



Egokitzeko dagoen kiroldegiko atea. L.Z.

87.300 euro besterik ez inbertsioetarako 2017an

Udalbatzak martitzenean egingo du aurrekontu berria onartzeko osoko bilkura. Astebete lehenago Udalaren egoera ekonomiko "tristearen" berri eman du alkateak

Larraitx Zeberio ELGETA

Bi milioi eurotik gorako zorra du Elgetako Udalak —kalte-ordainetan 1.295.435 euro, banke-txeei 557.341 euro, eta Domingo Iturbe eraikina zegoen lursaila erosteagatik 151.000 euro—. Udal gobernu taldeak 2017ko aurrekontu proposamena aurkeztearekin batera eman ditu Udalaren egoera ekonomikoaren gaineko datu eguneratuak. "Udalaren zorpetze maila azken urte askotako handiena da. Aurreikusten dugu 2017an 263.834,52 euro bideratu beharko ditugula zorra ordaintzera", azaldu du Iraitx Lazkano alkateak.

Udal gobernuak milioi bat eta erdi euro inguruko aurrekontu proposamena du esku artean. Zorra kitatzera %17,5 inguru bideratuko du. "Udalak, gainera, gastu finko ugari ditu: mantenu gastuak, kontsumo gastuak, soldata... Horiek kontuan hartuta 2017an inbertsioetarako gelditzen dira 87.300 euro, aurrekontuaren %5,6 inguru". Kopuru "oso tris-

tea" dela esan du alkateak. "Saia-tuko gara ahalik eta etekin handiena ateratzen, lehentasunak ondo markatuz eta gastatzen dugun zentimo bakoitza helburu zehatz batekin gastatzen dela bermatuz". Aurreikusitako inbertsioen artean hilerriko horma bat konpontzea da kopuruz handiena. "Gero eta baldintza okerragoetan dago horma hori, eta ezer gertatu aurretik derri-gorrezko ikusten dugu konpontzea. Aspalditik egon beharko luke eginda", esan du Lazkanok. Adineko pertsonendako parkea ere 2017an egitea aurreikusten du Udalak.

Egoarbitzako lursaila enkantera Udalak jakinarazi du, bestalde, enkantera aterako duela Egoarbitzako lursail baten erabilera. Ordaindu beharreko gutxieneko kanona da 90 euro urteko. Interesatuek hilaren 23ra arteko epea dute eskaerak eta eskaintzak udaletxeko erregistroan aurkezteko.

Inbertsio proposamenak

| Egitasmoa | eurotan |
|--------------------|---------------|
| Hilerriko horma | 25.000 |
| Bideak | 20.000 |
| Adinekoen parkea | 10.000 |
| Lanak eskolan | 7.000 |
| D. Iturbe (lurrak) | 6.000 |
| Irisgarritasuna | 5.000 |
| Traktorea | 4.000 |
| Museoko argia | 2.000 |
| Brigadarako | 1.500 |
| Kiroldegiko atea | 1.200 |
| Haurreskola | 1.000 |
| Kirol materiala | 1.000 |
| Kaleko altzariak | 1.000 |
| Bulegoko tresnak | 1.000 |
| Informatika | 1.000 |
| Ur putzuak | 600 |
| Guztira | 87.300 |

ITURRIA: ELGETAKO UDALA

Aste bukaeran abiatuko dira Gabonetako lehen ekintzak

Kiroldegiko gimnasioan egingo dute berrerabilpena sustatzeko azoka berezia domeka goizean

L.Z. ELGETA

Jostailuak trukatzeko eta bigarren eskuko gauzak zein artisautezko produktuak saltzeko edo erosteko aukera izango dute herritarrek, domekan, Elgetan. Azoka 11:00etan zabalduko dute.

Truke azokarako jostailuei dagokienez, 10:00etatik 10:30era aurkeztu beharko dira gimnasioan. Egoera onean daudenak, hizkuntzarik izatekotan euskarazkoak direnak eta eduki sexistarik ez dutenak onartuko dituzte.

Erakusketa eta irteera

Iazko Gabonetan moduan, erakusketa berezia hartuko du, aurten ere, buztin gelak. Herritarrek egindako eskulanak erakutsiko dituzte bertan abenduaren 23tik 28ra. Gaur, barikua, entregatu behar dira lanak buztin gelan, 17:30etik 19:00etara.

Gazteleku zerbitzutik, berriz, irteera antolatu dute urtarrilaren 7rako Barakaldoko Gabonetako haur parkera. Bosgarren mailatik gorako neska-mutikoendako da. Izenematea zabalik da udaletxean gaurtik abenduaren 23ra bitartean. Argibideetarako jo gaztelekura.

Egitaraua

Barikua, hilak 16

- **17:30** Eskulanak jasoko dituzte buztin gelan 19:00ak arte.
- **16:40** Ipuin kontalari saioa liburutegian.
- **18:00** Erretiratuen luntxa Ozkarbi elkartearen.
- **21:00** Garagardo jai gaztetxean.

Domeka, hilak 18

- **11:00** Azoka gimnasioa. Jostailu trukea, bigarren eskuko artikuluak eta artisautea. 14:00ak arte.

Martitzena, hilak 20

- **19:30** Kantsatzeke Mendi Taldearen urteko batzarra kultura etxean.

Eguaztena, hilak 21

- **16:00** Urteroko bisita Mizpirualde egoitzako Elgetako egoiliarrei.

PILOTA TXAPELKETA, FINALERDIAK GAUR

EMAITZAK, 8. JARDUNALDIA

| | |
|---|--------------|
| A. Elorza - O. Sarasua / E. Ormaetxea - A. Valle | 18-9 |
| J. Mañarikua - B. Arabaolaza / D. Cantabrana - T. de Vega | 18-12 |
| O. Erostarbe - G. Arizmendiarieta / M. Beretxinaga - I. Unzetabarrenetxea | 8-18 |

SAILKAPENA

NAGUSIEN TXAPELKETA

| | I | G |
|------------------------|---|---|
| 1 Retolaza-Elkoro | 4 | 0 |
| 2 Zubiaurre-Larrea | 3 | 1 |
| 3 Gallastegi-Askasibar | 2 | 0 |
| 4 Telleria-Ibarluzea | 1 | 3 |
| 5 Ugarteburu-Bouzas | 0 | 4 |

GAZTEAGOEN TXAPELKETA

| | | |
|-----------------------------|---|---|
| 1 Elorza-Sarasua | 5 | 1 |
| 2 Beretxinaga-Unzetab. | 4 | 2 |
| 3 Mañarikua-Arabaolaza | 4 | 2 |
| 4 Garate-Maguregi | 3 | 3 |
| 5 Ormaetxea-Valle | 3 | 3 |
| 6 Cantabrana-De Vega | 2 | 4 |
| 7 Erostarbe-Arizmendiarieta | 0 | 6 |

FINALERDIAK

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

| |
|--|
| I. Retolaza - M. Elkoro / A. Telleria - A. Ibarluzea |
| J.M. Zubiaurre - P. Larrea / H. Gallastegi - O. Askasibar |
| A. Elorza - O. Sarasua / E. Garate - E. Maguregi |
| M. Beretxinaga - I. Unzetabarrenetxea / J. Mañarikua - B. Arabaolaza |

Itxialdia egingo dute gauean presoan alde

Duela 40 urte sortutako 'Kalera, kalera' abestiaren mezu bera duen ekimena jarri dute martxan preso eta iheslari ohiek eta Oñatin ere ekintza bat baino gehiago egingo dituzte; adibidez: itxialdia, herri bazkaria, hitzaldiak eta musika kontzertuak

Oihana Elortza OÑATI

"Azken bost urte hauetan presoan egoera ez da batere aldatu eta garbi ikusten dugu herri mugimendu bidez bakarrik lor daitekeela hobetzea. Horregatik, herritarrek astinduko duten bide baten hasiera indartsua izango da ekimen hau". Horrelaxe azaldu du Jesus Mari Goitia *Manueltxok* Euskal Herriko preso eta iheslari ohiek antolatatu duten *Kalera, Kalera* ekimena.

Urtarrilaren 8ra arte Usurbilen etengabe egongo dira herritarrek presoan egoera salatzen eta talde bat ere egongo da eragile eta erakundeekin gai horri buruz berba egiteko. Usurbildik, baina, herri askotara egin du salto ekimenak eta Oñatin ere antolatatu dituzte ekintzak ekimen horren bueltan.

Itxialdia

Gaur, egubakoitza, elkarretaraztea egingo dute Foruen plazan 19:30ean eta segidan, triki bertso poteoa. "*Kalera, Kalera* dioten edalontzi handiak baditugu eta barruan, piztutako kandelak sartuko ditugu. Herritarren artean banatuko ditugu. Eta gauean itxialdia egingo dugu udaletxean. Gura duen edonor etorri ahal da, denak daude gonbidatuta; beraz, oraindik ez dakigu zenbat



Kalera, Kalera egitasmoan parte hartzeko gonbidapena egin dute. KONTZEJUPETIK

lagunek pasako duten gaua han", azaldu du *Manueltxok*.

Zapatuan Aiert Larrarte abokatua eta Etixerat-eko kide Naike Diez etorriko dira kultura etxera, 11:00etan, eta presoan eta iheslarien egoerari buruz berba egingo dute. "Oñatikoek ere jardungo dute, nola ez. Joseba Arregik 25 urte egingo ditu preso datorren urtean eta Xabier Ugartek eta Xabin Usandizagak 20", dio *Manueltxok*. 14:00etan bazkari herrikoia egingo dute gaztetxean eta gauean What a Band eta Mery May entzuteko

aukera egongo da 22:00etan hasiko den emanaldian. 24 orduko areto-futbol txapelketa urtarrilean izango da.

Sozializatu

Urtarrilaren 8an, 14an egingo den manifestaziorako deia egingo dute ekimenaren bultzatzaileek. "Bestalde, presoan kolektiboak eztabaida prozesua jarriko du martxan laster bakegintzari ekarpenak egiteko, eta prozesu hori sozializatu eta babestu ere egingo dugu", azaldu du oñatiarrak.

Sutean kaltetu ziren aita-alabak etxean eta onik daude

Euren etxebizitza ez dago sartzeko moduan eta Donostian bizi den senide baten etxera joan dira

O.E. OÑATI

90 urteko gizonezko bat eta 65 urteko haren alaba bizi dira Portu kalean astelehenean su hartu zuen etxebizitzan. Biak ospitalera eraman behar izan zituzten gertaeraren ondorioz; konortea galdu zuen aitak eta eskuak erre zituen alabak. Haiei laguntzera joandako ertzain bat ere zauritu zen, kea arnasteagatik. Gizonezkoari gau hartan bertan eman zioten alta eta emakumezkoari, berriz, eguaztenean. Alaba Donostiako ospitalera eraman zuten, eskuetan erre-dura larriak zituelako, eta eguaztenean jaso zuen etxera joateko ziurtagiria. Suak eta suhiltzaileek erabilitako urak sortutako kalteak, baina, oraindik ez dituzte konpondu eta ezin dira etxera sartu. Donostian bizi den beste alaba baten etxera joan dira biak.



Astelehen gauean piztu zen sua. M.B.

Bizilagunen esanetan, sua "ikusgarria" izan zen, "beldurgarria" ere bai. Ondoko etxeetan bizi diren bizilagunetako batzuk korrika atera behar izan ziren etxetik. Hurrengo goizean Lope Agirre kalea itxita egon zen garbiketara lanak egiteko.

35 erakusleihoren artetik onenak aukeratuko dituzte

Gabonetako erakusleihen lehia-ketara herriko 35 denda aurkeztu dira eta bihar jakingo da politenak zeintzuk diren, epaimahaia osatu duten hiru pertsonen arabera. Osoko bilkuren aretoan izango da sari banaketa, 13:30ean. Herritarrendako erakusleihen politena zein den ere orduan jakingo da, eurek emandako botoak zenbatuta.

GNaturaldiaren lehen edizioa gaur iritsiko da Oñatira

Gipuzkoa Naturaldiak eta Natur Eskolak elkarlanean, glaziario ostetik gaur egun arte basoek izan duten bilakaeraren inguruko *Las estaciones* filma botako dute gaur, egubakoitza, 19:00etan, zinema aretoan. Ondoren, Iturrigorriri buruzko hitzaldia egongo da eta domekan irteera egingo dute "Iturrigorriko nobedadeak" ezagutzeko.

GABON HAUETAN GURE MENUAK ZURE ETXEAN IZAN DITZAKEZU



Informa zaituz! ☎ 943 781 306 ✉ restaurante@zelaizabal.com



"Oñati garatzeko" landu du aurrekontua EAJK

"Oñatiarren bizi kalitatea hobetzea" ere bada jeltzaleen helburua eta hauteskunde programa eta herritarren zein eragileen proposamenak kontuan hartutako gaiak jaso dituzte aurrekontuan, bost ardatzetan banatuta. Eguenean eztabaidatuko dituzte

T.M. / O.E. OÑATI

Helburua "Oñati garatzea eta oñatiarren bizi kalitatea hobetzea" dela adierazi dute jeltzaleek eta hori kontuan hartuta presatu dute 2017ko aurrekontua, "herritarren beharretara egokitutakoa".

Bost ardatz estrategiko ditu proposamenak. Adin guztiei egokitutako kirol osasuntsua sustatzea da horietako bat, eta bertan, besteak beste, San Martingo hariztian korrika egiteko bidea egokitzea eta igerileku irekia izango duen aisialdigune berria sortzea proposatzen dute. "Kanpoko igerilekuaren azterketa datorren urtean egitea proposatzen dugu. Ikustea leku aproposik dagoen eta baliabideak ere aztertzea", zehaztu du jeltzaleen udal bozeramaileak, Lourdes Idoiagak.

Oñatin udalerrri hezitzailearen eredu bermatzea eta kultura sustatzea da beste ardatzetako bat. Hala, gazteendako udaleku



Eguen goizean batzokian egindako prentsurrekoa. TXOMIN MADINA

teknologiko irekiak eta hainbat gai lantzeko ikastaroak antolatu nahi dituzte, eta, kultur alorrean, urteko kultura sariak eta urteko euskara saria sortu.

Hirugarren ardatz bat berdintasunaren aldeko apustua dela

Irazanen Txantxakale galarako sarrerak salgai daude

Irazan antzerki guneak antolatuta, Txantxakale gala egingo da urtarrilaren 7an, Santa Ana antzokian.

Irazan antzerki guneak kide gazteek, aurrez, txantxak egin eta grabatuko dituzte herriko kaleetan, eta txantxa horien bideoak erakutsiko dituzte emanaldi horretan.

Proiektzioez gain, sorpresa ugari egongo direla ere aurreratuta dute antzerkizaleek.

Emanaldi horretarako sarrerak dagoeneko salgai daude Gaztelekuan, 3 eurotan, eta Txokolateixia dendan ere jarriko dituzte, astelehenetik aurrera.

Gabonetako egitarauko azken ekintza izango da gala hori.

'Itxarongela' eta 'Eskutitza Ramoni' antzezlanak, bihar

Bihar, zapatua, Pake Leku erretiratuen elkarteak antolatuta, *Itxarongela* eta *Eskutitza Ramoni* antzezlanak eskainiko dituzte Ikusi Makusi taldeko antzezleek Santa Ana Antzokian, 19:30ean. Gaztelez izango dira emanaldiak eta sarrerak bost euro balioko du.

Hori ez da, baina, astebururako antolatu duten ekintza bakarra. Gaur, egubakoitza, txistorra jateko aukera egongo da Pake Leku bertan. Txistor-pintxoak euro bat balioko du bazkideendako eta bi euro bazkide ez direnendako. Bestalde, astelehenan, Pake Lekuko kideek osatzen duten Aloña abesbatzak Arrasaten emanaldia eskainiko du.

adierazi dute jeltzaleek eguen goizean egindako prentsurrekoan. "Langile, enpresa eta sindikatuekin batera kontziliazio erantzunkidea eta lan berdintasun eskubideak bultzatzeko plana garatzea eskatuko dugu", zehaztu du Marijo Etxegoien zinegotzi jeltzaleak. Argiteria hobetzea ere proposatuko dutela gaineratu du Etxegoienek, "herriko beldurguneen mapan identifikatutako puntu ilunak argizatuz. Puntu horietako batzuk zeintzuk izan daitezkeen ere aipatu dituzte: Bidaurreta, Olakua/Olapoto, Motxon, Otadui zuhaitzia eta San Lorentzo.

Eskaria

Laugarren ardatza hirigintzarekin dago lotuta, eta bi gai garrantzitsu lehenesten dituzte: batetik, inguruko herrietan bezala hondakin biltetarako edukiontzia sistema ezartzea, eta bestetik, etxebizitzaren inspektzio teknikoak egiteko datozen obrak diruz laguntzea.

Asteon ezarri duten txandakako aparkaleku sistema bi ordukoa izatea, bizikleten eta patineten erabilera arautzeko ordenantza

egitea eta landa auzoei dagokien argiteria plan orokorra egitea ere eskatu dute jeltzaleek.

Sozioekonomia garatu eta sustatzea da bosgarren ardatza. Beste bi plan proposatzen dituzte esparru honetan: bat, enplegua eta ekintzailetasuna sustatzeko, eta bestea, tokiko merkataritzari, autonomoei, lehen sektoreari eta enpresa txikiei zein ertainei laguntzeko. Turismo Plan estrategikoa berregitea ere eskatu dute jeltzaleek, herriko merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko helburuarekin.

Proposamen guztiak dagokion diru partidarekin aurkeztu dituztela diote EAJKo zinegotziek, eta Udal Gobernuko taldeari eskatu diote eskariak aintzat hartzeko 2017ko aurrekontuan.

Hilaren 22ko osoko bilkuran eztabaidatuko du udalbatzak 2017ko aurrekontua.

KANPOKO IGERILEKUAREN AZTERKETA 2017AN EGITEA PROPOSATU DU EAJK

Goiena Klubeko bazkide izan nahi duzu?



Abenduaren 19an, 20an eta 21ean
ARRASATEKO EROSKI HIPERMERKATUAN egongo gara.

Orduetgia: 10:00etatik 13:00etara 17:00etatik 20:00etara

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

21 artisau oñatiar batuko ditu biharko azokak

Aurten ere, urtero moduan, mota guztietako eta adin ezberdinetako herritarrei zuzendutako ekintzak egongo dira Gabonei begira antolatutako egitarauaren baitan; bihar, zapatua, plazan egingo den Artisauren Azoka izango da ekintza horietako bat

Eneko Azurmendi OÑATI

Gabonak gerturatzen ari dira, eta, urtero moduan, egun hauen bueltan egitarau zabala antolatu du Udalak, herriko eragile eta elkarte ezberdinekin batera.

Elkarlan horri esker, Udalaren esanetan, egitarau "aberatsa" lortu ahal izan da, bai ekintza kopuruaren aldetik, eta baita ekintza horiek duten izaeraren aldetik ere.

Artisauren Azoka

Bihar, zapatua, herriko 21 artisauren hartuko dute parte Oñatiko Artisauren Azokan, 10:30ean hasi eta 14:30ak bitartean. Mota guztietako produktuak egongo dira; xaboiak, ehungintzako eta larruzko produktuak, oihalak, eta bitxiak, esaterako.

Kontzertu berezia

Etzi, domeka, Gabonetako kontzertu berezia eskainiko dute San Migel parrokiaren Udala Musika Bandak eta herriko abesbatzek, 19:00etan.

Familiendako

Udalak azpimarratu du familiendako ekintzak programatu direla bereziki.

Horri lotuta, bihar, 6 urtetik gorako gaztetxoendako espeleotxiki abentura irteera egongo



lazio Artisauren Azoka. IMANOL SORIANO

da Arrikruz-Oñatiko kobetan, 15:30ean. Aurrez, 11:00etatik 13:00etara, III. Jostailuen Trukerako Azoka egongo da Txaloka ludotekan.

Bestalde, ur jolasak ere izango dituzte haurrek, kiroldegiko igerilekuan. Alde batetik, ohikoak direnak, abenduaren 29an, eta, bestetik, *Uluburun* urperatzeko jolasak, abenduaren 30ean. Azken horiek, "dibertigarriak" izateaz gain, helburu "didaktikoa" ere badute, Udalaren arabera. Izan ere, urpeko arkeologoen lana ezagutzeko aukera

emango die haurrei. Bi txanda egongo dira: batetik, 10-12 urte artekoendako; eta bestetik, 13-15 urte artekoendako.

Egun berean, Santa Ana antzokian, *Lunaticus Circus* haurrendako eta familiendako zirku ikuskizuna egongo da, 17:00etan.

Kirola

Urtero moduan, kirola egiteko aukera ere izango da Gabonetan, lagunarteko saskibaloia eta areto-futbol txapelketan eta Atxintxiketan-ek antolatutako San Silvestre lasterketa herrikoian.



Garazi Erostarbe. GOIENA



Xabi Gordoia. ARATZ LOSADA



Ane Erostarbe. A.L.

Hiru hautagai daude 2016ko herritarren kirol saria irabazteko

Garazi Erostarbe txirrindularia, Xabi Gordoia igerilaria eta Ane Erostarbe eskalatzaila dira hiru hautagaiak

E.A. OÑATI

2016. urtean kirol arloan nabarmendu direnei aitortzen bat egingo die Oñatiko Udalak, urtero moduan, abenduaren 23an –egubakoitza–, udaletxean.

Udalaren aitortzen gain, herritarrek ere izango dute urteko kirolari onena hautatzeko aukera, hiru hautagaiaren artean.

Abenduaren 21era arte

Herritarrek erabakiko dute saria nork eramango duen. Haiek abenduaren 21era arte izango dute bozkatzeko aukera, udalaren webgunean, eta botoa ematen dutenen artean zozketa bat egingo da; irabazleak kiroldegiko ekintza batean hilabetez parte hartu ahal izango du.

Bihar pailazoak izango dira eta etzi, Elkartasun Azoka

Bihar, zapatua, Tomax eta Kompainia pailazoen emanaldia izango da institutuko aretoan, Urgan ikastetxeak gonbidatuta. Bi saio egongo dira, bata 16:30ean eta bestea 18:00etan.

Domeka goizean, berriz, Elkar Hezik urtero antolatzen duen elkartasun azoka egongo da plazan, gobernuz kanpoko erakundearen azoka, 10:00etan hasita.

'Selfie' lehiaketa jarri du martxan KMK 2017k: '#lekaitxoka'

Lekaitxoka! dioten txokolate tabletak atera dituzte eta *selfie*-an txokolatea eta kilometroak 2017 agertu behar dira nola edo hala. Lehiaketan parte hartzeko, abenduaren 22a aurretik bidali behar da argazkiak km17argazkiak@txantxikuikastola.eus helbidera. Saria Oñatiko Txokolateixiako produktuekin osatutako saski bat izango da.



Zer emateko prest zaude?
Eta zer jaso nahi duzu?

INDARTU DEZAGUN
INDARTZEN GAITUENA
EZAGUTU HARPIDETZA EREDU BERRIA

www.argia.eus/eginargiako #ArgiaJendea



Ezkerretik hasita Beñat Rezusta, Iker Irribarria, Xabier Tolosa eta Aitor Mendizabal. X.URZELAI

Berraondoren eta Zezeagaren itzaletik

Gaur, egubakoitza, Aitor Mendizabal eta Beñat Rezusta aurrez aurre izango dira Eskuz Binakako Txapelketa barruan. 17 urte egin behar dira atzera Bergarako eta Antzuolako pilotari bana egoera horretan ikusteko; orainoan, baina, Oñatin da lehia

Xabier Urzelai GOIENA

Gaur, egubakoitza, gipuzkoarren arteko lehia izango da Eskuz Binakako Txapelketa barruan (22:00) Oñatin -Barriolak min hartuta jarraitzen du-. Eta harago ere egin daiteke, aspaldiko partez Debagoieneko bi pilotari izango direlako zein baino zein gehiago, Mendizabal III.a eta Beñat Rezusta. Antzuolakoak Tolosa izango du lagun, eta Bergarakoak Irribarria.

la bi hamarkada atzera

Urte asko egin behar dira atzera txapelketan Bergarako eta Antzuolako pilotari bana aurrez aurre ikusteko; eta, pilotaz zerbait badakien Joseba Lezeta kazetariak ekarri du datua gogora: 1999ko urtarrilaren 29an Zezeagak eta Berraondoren neurtu zituzten indarrak Iruñeko Labriten, Mikel Goñi eta Santi lagun zituztela. Orduan, 22-9 nagusitu ziren Goñi eta Zezeaga: "Saso hartan sei urte nituen nik", dio Rezustak, irribarrez.

"Gogoan dut Zezeaga pilotari moduan ikusi izana, herrikidea da, gainera, baina egia da ni gaztea nintzela erretiratu zela".

Mendizabal III.ak, berriz, harreman estuagoa du Aritz Berraondorekin: "Herriko pilotaria izanda mutiko-mutikotatik jarraitu izan dut Berraondoren ibilbidea, eta gainera, oso harreman ona dut harekin".

REZUSTA: "AKASO, GURE PILOTAK BIZIAGOAK DIRA; MATERIALA EZ DA AITZAKIA IZANGO"

MENDIZABAL: "GURE LANAK ONDO EGIN BEHARKO DITUGU; EA EUREK EZ DUTEN EGUNIK ONENA"

"Gustuko pilotak"

Gaurko lehia materiala ez da aitzakia izango: "Akaso, gureak biziagoak dira, euren bat motelxeagoa da, baina pilotak ez dira aitzakia izango", dio Rezustak. Mendizabal ere gustura dago aukeratutako materialarekin, eta baita gaurko eszenatokiarekin ere: "Etxean nagoela esan dezaket, txikitatik ordu asko pasatakoa naiz frontoi honetan, eta gustuko dut".

"Frontoian irabazi behar da"

Irribarria eta Rezusta faboritizat hartu dituzte hasieratik: "Baina partidua frontoian irabazi behar dira. Alde horretatik oso lasai gaude, serio hasi gara eta ondo gabiltza, baina ezin gara lasaitu, dio Rezustak.

Mendizabalek, berriz, argi du partidua irabazteko ia dena egin beharko dutela ondo: "Joko erritmoa gurera ekarri beharko dugu, eta gure lanak oso ondo egin". Ea frontoira etortzen den jendea gustura geratzen den".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREG.

Aretxabaleta-Touring

Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Oiartzun

Zapatua. 16:30. Moiategi.

Vasconia-Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Donostia.

E. PREFERENTEA

Eibar-Aretxabaleta

Domeka. 15:30. Unbe.

Zumaiako-Mondra

Domekan. 17:30. Zumaiak.

ERREGIONAL MAILA

Urki-Aloña Mendi

Zapatua. 17:30. Unbe.

Soraluze-Arizmendi

Zapatua. 16:30. Ezozia.

Antzuola-Bergara

Zapatua. 16:00. Estala.

EMAKUMEZKOAK

Mondra-Orioko

Domeka. 16:30. Moiategi.

Arizmendi-Ilintxa

Zapatua. 17:30. Ibarra.

Eibar-Bergara

Domeka. 15:30. Unbe.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Eskoriatza-Elorrioko

Zapatua. 17:50. M. Muñoz

Pescados Fer.-UDA

Zapatua. 16:00. Pasai D.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Ardoi

Zapatua. 18:30. Iturripe.

BIGARREN MAILA

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua. 19:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Izarraitz Muñoz-Urduliz
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Ford Mugarri-Deusto
Zapatua. Zehaztu barik.

PILOTA

Oñatin

Pilotari profesionalen jaialdia, gaur, 22:00etan:
Jaka-Martija
Dario-Irusta
Irribarria-Rezusta
Mendizabal III-Tolosa.

ZIKLISMOA

Oñatiko 12. ziklo-krosa
Domekan 09:10ean hasita.

ATLETISMOA

Santamasetako

Koadrilen Arteko Krosa
Domeka, 12:30. Arrasate.
Domekan 09:10ean hasita.

PIRAGUISMOA

Eskola arteko topaketa
Zapatua, 10:00. Bergaran.
Domekan 09:10ean hasita.

Jokin Etxabe: "Kirol eskaintza baloratu dut AEBetara joateko"

Bergarako ziklista Aevolo Cycling Team-ek fitxatu du; Las Vegasen du kontzentrazioa, urtarrilaren 9an

X.U. BERGARA

Txirindularitza profesionalen Debagoienak izango duen bosgarren ordezkaria izango da Jokin Etxabe, AEBetako Aevolo Cycling Team taldeak fitxatu berri du-eta: "Egutegi oso polita izango dut, 80 lasterketa-egun egingo ditudala esan didate, eta AEBetako lasterketa handietan

lehiatu ahal izango gara; esaterako, Kaliforniako Itzulian. Horrek animatu nau hara joatera".

Talde gaztea izango du; Etxabe izango da, 22 urterekin, berteranoena: "Ziklisten formazioa dute helburu". Eta garrantzitsua da, baita ere, talde amerikarra World Tour mailako Cannondale-Drapac taldearen filiala dela.

Domekan egingo dute Oñatiko ziklo-krosa, Urrutxuko lurretan

Ibarreko hainbat ziklista batuko dira irteera puntuan; tartean, zazpi oñatiar. 09:15ean hasiko dute proba

X.U. OÑATI

Joan den asteburuan lehiatu zituzten Euskal Herriko ziklo-kros lasterketa nagusiak, nazioartekoak diren Asteasuko, Elorrioko eta Igorreko probak, eta hitzordu horiek utzitako zapo gozoari jarraipena ematera dator domekako Oñatiko ziklo-krosaren 12. edizioa. Masterrak izango dira lehiatzen

lehenak (09:15) eta kadeteak izango dira hurrengoak, 10:00etan. Hor, Arrikruz taldeko Ander Blazquez, Aritz Torres eta Unai Cueva lehiatuko dira.

10:45ean juniorren txanda izango da, eta Caja Rural taldeko Garazi Erostarbe eta Arrikruztzeko Ander Gartzia lehiatuko dira. Open kategoriakoak, azkenik, 11:50ean lehiatuko dira.

Ikastetxeetan egiteko antzerki gidoiei saria

Bergarako Idazle Eskolak Aretxabaletako Udalaren eta Copreciren laguntzarekin sortutako Karmele Igartua bekaren sariak banatuko dituzte gaur, Arkupe kultura etxean, 18:00etan. Ikasleek ikasleei antzetzeko gidoiak sarituko dituzte oraingoan

A. Aranburuzabala ARETXABALETA

Ohikoak ez diren generoetan sortzaileei laguntzea da Karmele Igartua sariketaren helburua. "Ikastetxeetan egiteko antzerki gidoiak idaztea proposatu dugu seigarren sariketa horretan, konturatu gara-eta ikastetxeetan lantzen dituzten antzezlanak oso zaharkituak geratu direla, eta, beraz, ikasgeletan lantzeko material berrien beharrea gaude-la", azaldu du Tere Irastortzak, Idazle Eskolako zuzendariak.

Idazle eta irakaslearen omenez

Karmele Igartua Aretxabaletako idazle zenaren omenez sortutako beka aproposa da ikasgeletan sorkuntza bultzatzeko, antolatzailen esanetan. "Haur eta gazte literaturan jardun zuen Karmelek, eta, era berean, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako irakaslea ere bazen".

Igartuaren familiakoendako ere garrantzitsua da bekaren izaera. "Sariketaren berri jaso genuenean, pozez hartu genuen. Gure amaren lanek aztarna utzi dutela adierazten du, eta, era berean, literatura sari horrek haren lana zabaltzeko aukera ematen du. Gure amak beti idatzi izan zuen, baina Bergarako Idazle Eskolan izena eman zue-nean hasi zen bere talentuaz edo bere lanen garrantziaz konturatzen; azkenean, hiru poema liburu argitaratzera iritsi arte. Idazle Eskolan, gainera, beste idazle berri batzuk eta ezohikoak diren genero literarioak ere landu zituen. Amari ere gustatuko zitzaion, seguru, bere izenean beka hori sortzea", azaldu du Garazi Oiangurennek, Karmele Igartuaren alabak.

Zortzi lan aurkeztu dituzte

Irastortzaren esanetan, gustura daude aurtengo edizioak izan duen harrerarekin. "Antzerkia ez da argitaratzeko literatura genero samurra, eta zortzi lan



Karmele Igartua. MIRARI ALTUBE

SARIKETAKO LAN IRABAZLEA IDAZTEN. COM ATARIAN IZANGO DA IKASTETXEENDAKO ESKURAGARRI

jaso ditugu; beraz, kopuru polita da. Proposatu moduan, lau eta hemezortzi urte bitarteko ikasleek antzetzeko gidoiak dira guztiak. Obra konplikatuak behar-rean, ikasleek beraiek beste ikasle batzuen aurrean eskaintzeko ezaugarriak dituztenak: efektu berezi gabekoak, eta 20 eta 40 minutu bitarteko iraupena dutenak. Gaiei dagokienez, oso ezberdinak dira; parte hartzaileen batek bi lan aurkeztu ditu eta horien artean, akaso, badago antzekotasunik, baina, orokorrean, jasotako lanen artean denetik pixka bat dagoela esango nuke. Publikoari begira ere bai: haur txikien aurrean antzetzeko idatziak dira horietako batzuk, eta gazteen aurrean egiteko edo nerabeendako, berriz, beste batzuk. Idazleen jatorriari begiratuta, Euskal Herriko toki askotakoak dira".

Pako Aristi, Itziar Gomez eta Iñaki Zubeldia idazleek osatu dute aurtun epaimahaia. "Idazle Eskolan kolaboratzen dute hirurek, eta, era berean, hirurek ezagutzen zuten Karmele. Kopuruaz gainera, lanen maila ona azpimarratu dute, nahiko aho batez erabaki zuten saria nori eman. Emaitzak ikusita, iruditzen zaigu lan polita egin dugula aurtengo sariketarekin".

Gidoiak ikastetxeen eskura

Gaurko sari banaketan emango dute ezagutzera irabazlearen izena; hala ere, Irastortzak aurrreratu du 2.500 euroko saria eskuratuko duen irabazleaz gainera, aipamen berezia jasoko duela beste lagun batek. "Ekitaldi xumea izango da. Karmeleri buruzko hitzekin hasiko dugu, baina irabazleei espazioa eta hitza ematea da gure asmoa".

Lan irabazlea *idazten.com*, Idazle Eskolaren atarian argitaratuko dute. "Edozein ikastetxetan erabili gura badute, bertatik hartzeko aukera izango dute. Guretako, polita litzateke egunen baten Aretxabaletako eskolakoek antzetztea, baina hori ez dago gure esku".



Amaia antzokian abenduaren 21ean izango diren bertsolariak. LANKU

Belaunaldi berriko bertsolariak eta eskarmentudunak elkarrekin

Egaña, Lujanbio, Iturriaga, Martin, Iguaran eta Arzallus Amaia antzokian izango dira abenduaren 21ean (20:00)

A. A. ARRASATE

Urteroko ohiturari jarraituz, AED elkarteak -Santamas Komisiñoarekin eta Altutik bertso eskolarekin elkarlanean eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin- bertso saioa antolatu du. Sarrerak dagoeneko salgai daude Jaizale, Irati eta Monte tabernetan eta AEDren egoitzan. Hamar eurotan eskura daitezke; AEDko eta Goiena Klubeko kideek, berriz, zortzi eurotan.

Publiko gazteari gonbidapena

Azkeneko urteetako saioek publikoari dagokionez beherakada

izan badute ere, Itxaro Artolaren esanetan, euskara elkartearantz garrantzitsua da urtean antolatzen dituzten bi jaialdiei eustea. "Hainbat auzotan antolatzen diren saioez gainera, uste dugu Arrasateko bertsozaleei zor diegula horrelako jaialdiak ere eskaintzea. Bertsozale gazteak erakartzeko apustua egin dugu, eta horregatik saioa bezperan egiteko erabakia. Izen handiak batu gura izan ditugu eta adituen gomendioekin osatu dugu kartela. Iguaran izan ezik, gainontzeko guztiak aurrez Arrasaten izandakoak dira".

'Zinemauneak.eus': zinema eta euskara batzen dituen ataria

Atzo estreinatu zuten eta erabiltzaile guztiendako dago zabalik; hala ere, bazkideentzako txokoa ere badago

A. A. ARRASATE

Zinemari buruzko informazioa euskaraz zabaltzeko helburuarekin abiatu zuen Lander Arteagak *Zinema Uneak* izena duen ekimena. Hasiera baten proiektu pertsonala zena kolektibo bihurtu da, eta bost lagun daude orain lanean.

Atzo, eguena, estreinatu zuten *Zinemauneak.eus*. "Bereziki, arto komertzialetan eskaintzen dituzten filmen gaineko informazioa aurkituko duzue bertan: albisteak, kritikak, erreportajeak eta euskarazko azpigituluak di-


tuzten trailerrak ere bai. Ez dugu euskal zineman bakarrik jarri gura fokua; eta, era berean, proiektu multimedia izatea gura dugu, argazki eta bideo askorekin", azaldu du Arteagak.

'Crowdfunding' kanpaina abian

Dirua biltzeko, gainera, jendeak ekimenarekin bat egiteko abiatu zuten Verkami plataformaren bitartez. Abenduaren 21 da laguntza-kanpaina horretan parte hartzeko azken eguna, eta honako hau helbidea: vkm.is/zinemauneak.

ESKER ONA

Juan Aranburu Etxebarria
'Juanxu'



2016ko abenduaren 7an hil zen, 86 urte zituela.

Lerro hauen bidez *Juanxu*-ren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

—
Agur, Juanxu, bihotzean eramango zaitugu.

Irteera meza abenduaren 18an, domeka, izango da, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokiari.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2016ko abenduaren 16an.

ESKER ONA

Juana Arabaolaza Egaña
Felix Bolinagaren alarguna



2016ko azaroaren 30ean hil zen, 81 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—
Ondra meza domekan izango da, abenduaren 18an, 12:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko abenduaren 16an.

ESKER ONA

Frantziska Lete Madinabeitia



2016ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.


Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—
Ondra meza zapatuan izango da, abenduaren 17an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.


Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2016ko abenduaren 16an.

ESKER ONA



Jose Antonio Azurmendi Arenaza



2016ko abenduaren 9an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

—
Haren aldeko meza domekan izango da, abenduaren 18an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Batailatzailearen parrokiari.

Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.

Arrasaten, 2016ko abenduaren 16an.

ESKER ONA



Maria Jesus Urriategi Zabaleta



2016ko abenduaren 9an hil zen, 76 urte zituela.

Senide eta lagun guztion maitasunaren babesa izan genuen ama agurtzeko momentu latzetan.

—
Bihotzez, mila esker denoi, familiaren partetik.

Bergaran, 2016ko abenduaren 16an.

OROIGARRIA

Frantziska Lete Madinabeitia



2016ko abenduaren 9an hil zen, 91 urte zituela.


Betiko joan zaren honetan nahiz eta triste gauden benetan zure oroimena gordeko dugu gauzarik ederretan: Irei aldeko zelaietan eta Urzabaleko loretan, udaberri koloretan. Negu ondotik haize epela etorriko baita bueltan.

Zure ilobak: Gorka-Maialen; Arkaitz; Laida; Eneritz-Ainhoa; Unai; Ariz (†); Ibai-Irati; Aitor; Ane; Naiara-Joseba; Ainhoa-Mikel; Maiane; Irati. Birlobak: Ekain; Naia.

Oñatin, 2016ko abenduaren 16an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Azurmendi Arenaza



2016ko abenduaren 9an hil zen, 77 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

Hamaika Gazte elkarte.

Arrasaten, 2016ko abenduaren 16an.

OROIGARRIA

Andres Ugarteburu Laskurain



2016ko abenduaren 10ean hil zen, 92 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.

goiena™

Goiena Komunikazio Taldea.

Arrasaten, 2016ko abenduaren 16an.

URTEURRENA



Arantxa Gallastegi Arregi



Tomas Iribecamposen alarguna

2015eko abenduaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

Denboriek bere martxa daroie baina zure presentzia goxo eta bizirik dago Intraustiko sukaldeko epelien.

Urteurreneko meza igande izango da, abenduaren 18an, 12:00etan, Arrasateko parrokiari.

Mila esker bertaratuko zaretenoi.

Arrasaten, 2016ko abenduaren 16an.

HILDAKOAK

- Maxima Monllor Trigo.** Arrasaten, abenduaren 5ean. 93 urte.
- Maria Arriaran Agirre.** Arrasaten, abenduaren 7an. 89 urte.
- Gloria Galdos Zabalo.** Arrasaten, abenduaren 8an. 60 urte.
- Jose Antonio Azurmendi Arenaza.** Arrasaten, 9an. 77 urte.
- Maria Jesus Urriategi Zabaleta.** Bergaran, abenduaren 9an. 76 urte.
- Frantziska Lete Madinabeitia.** Oñatin, abenduaren 9an, 91 urte.
- Manuel Herbas Herbas.** Bergaran, abenduaren 9an. 86 urte.
- Andres Ugarteburu Laskurain.** Arrasaten, 10ean. 92 urte.
- Flora Arregi Murua.** Arrasaten, abenduaren 11n. 99 urte.
- Rufino Altuna Arana.** Arrasaten, abenduaren 11n. 82 urte.
- Maribel Oliva Vidriales.** Aretxabaletan, abenduaren 11n. 60 urte.
- Pedro Taboada Diego.** Arrasaten, abenduaren 11n. 85 urte.
- Eugenia Zilauren Azkargorta.** Arrasaten, abenduaren 12an. 89 urte.
- Norberto Galbete Lopez.** Arrasaten, abenduaren 13an. 88 urte.

URTEURRENA

Sofia Aranzabal Cacicedo



2015eko abenduaren 15ean hil zen, 97 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

—
Beti izango zara gura bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bergaran, 2016ko abenduaren 16an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.



maribi 617 44 21 55
BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. 90 urteko bazkideak**

Santa Luzia egunez, ohitura duten legez, omendu ditu Aretxabaletako Basotxo erretiratuen elkarteak 90 urteko bazkideak. Bederatzi omendu dituzte aurten.

2. Bergarako pintoreak

Bergaran pintore asko daudela jakinekoa da eta argazki hau da horren erakusle. Beart elkarteko margolariak daude bertan, Aroztegin zabaldu duten erakusketan.

3. Ordunten Aloña Mendirekin

Aloña Mendirekin azaroan Orduntera egindako irteerako argazkia da. Abenduko domekan izango da eta Erniora joango dira. Baba-jana egingo dute gero Tolosan.

**4. Herrixa dantzan**

Escamot Catala talde kataluniarrarekin batera egin dute dantzan Elgetan eta jende asko bildu da. Urteko azken Herrixa Dantzan saioa izan da.

5. Besaiderekin Orkatzategira

Urteko azken irteera egin zuen Besaidek abenduaren 11n: Orkatzategi, Txirikilaleku, uraren kanala eta Potorrosin ikusi zituzten. Hurrengo, urtarrilaren 1ean.

**6. Kontxi eta 'Txotxe'**

"Zorionak, bikote! 25 urte pasau die alkarri baietza emun eutsezuenetik, eta orduentxe moduen jarraiketari dozu alkarri gura izeten. Segi holaxe beti!".

#DIOTENEZ

OÑATI SESSIONS

Lege soziologiari buruzko **mundu mailako** jardunaldiak egiten dira urtean behin. Aurten **Austrian** izan dira eta datorren urtean, ekainean, **Mexikon** egingo dituzte. Bada, bietan **Oñati Sessions** izeneko saioa egongo da, Oñati non dagoen, nolakoa den eta zer egiten duten azaltzeko. Oraindik **Oñati** ezagutzen ez duen edonork Oñatiren berri izateko **aurkezpen** saioa izango da.

IÑIGO MARTINEZ

Realaren Oñatiko zaleek Iñigo Martinezen lagunartea dute osatuta eta **Oñatiko produktuen** sorta bat oparitzen diote **gola** sartzen duen bakoitzean; herrian egindako **txakolina** eta **gazta**, esaterako. Ondarrutarrak asko **estimaten** ditu lagunarte horretako kideak eta abenduaren hasieran **bisita** egiteko denbora hartu eta Oñatira etorri zen. Lagunarteko kide **Joseba**

Zabaleta agurtu zuen propio, indarrak eta animoak emanda.

DONOSTIA 2016

Irantzu Lekue artistak instalazioa jarriko du **abenduaren 22an** Oñatin. Marrakiz erraldoi bat egingo du **klarionekin** Foruen plazan eta helburua da hark marrakiz hori egiten duen bitartean jendeak Donostia 2016ri buruzko **iritzia** ematea. Kristalezko **botila** batzuk eramango ditu iritzia

barruan sartzeko. **Umeek eta gaztetxoek** ere izango dute aukera klarionak hartu eta berarekin batera marrakia egiteko.

ANTZOKIAN

Zapatuan, zuzenean joko du **Ruper Ordorika** musikari oñatiarrak Bilboko Kafe Antzokian. Urteroko ohitura izaten da eta urtero **oñatiar mordo** bat joaten da kontzertu horretara. Aurten ere Ruper **ez** da bakarrik egongo.

SEVILLARA

Bergarako San Pedro elizan dagoen Kristoa Sevillara eramango dute **martxoan**, hilabeterako. **Martinez Montañes** eskultoreak Babesgabeen Kristoa egin zuenetik 400 urte pasa dira eta ospakizunak egiteko eramango dute **Juan de Mesa**-ren Bergarako irudia. Bi horiek hirukotea osatuko dute **Pablo de Rojas**-en Granadako seminario nagusian dagoen gurutziatzatuarekin batera.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Mariñe Sotil Marchen
Abenduaren 22an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Egun zoragarria opa dizugu etxeko guztiak. Ondo pasatu laguntxoekin. Besarkada handi bat eta marrubizko muxu asko.



ESKORIATZA
Aitor Zubizarreta
Abenduaren 22an, 11 urte. Zorionak, Aitor! Oso ondo pasatu zure egunean, artista. Familiaren partetik, 11 muxu eta besarkada handi!



OÑATI
Libe Inurritegi Guridi
Abenduaren 21ean, 10 urte. Zorionak *guapetona*. Ederki pasatu zure eguna eta topera disfrutatu. Muxu handi-handi bat zurekin autokarabanan faten garienon partetik.



ANTZUOLA
Julen Zabalo
Abenduaren 19an, 2 urte. Zorionak, *txipiron!* Ondo pasatu eguna eta txokolatzeko muxu pila etxekuen partetik!



ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an, 13 urte. Zorionak, Irati! Muxu eta besarkada handia opa dizu familia osoak, anaia Haritzek eta lehengusu-lehengusinek. Iganetan ospatuko dugu!



LEINTZ GATZAGA
Eider Errasti Beloki
Abenduaren 18an, 3 urte. Zorionak, Eider! muxu handi bat etxekoen partetik eta ondo pasatu merendolan.



OÑATI
Ekain Azpiazu eta Irati Urtzelai
Iratik abenduaren 14an, urtebetetzea eta Ekainek 15ean, 2 urte. Zorionak eta muxu pila bat bixondako, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Anne Arrieta Zubielki
Abenduaren 16an, 3 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo ospatu eguna eta muxu potolo bat etxekoen partetik.



BERGARA
Beñat Arin Etxabe eta Patri Etxabe
Orobengoa
Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen urtebetetzean. Jarraitu holaxe urte askoan. Muxu handi bat, etxekoen partetik.



ARAMAIO
June Ballesteros Uribarren
Abenduaren 16an, 10 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo pasatu zure egune! Afari-merixendan ikusiko gara! Lur eta ilare.



ESKORIATZA
Amets Aguirre Gandarias
Abenduaren 16an, urtebete. Zorionak, Amets! Muxu potoloa etxekoen partetik. Jada urtebete bete duzu. Zorionak, maitia.



BERGARA
Aratz Aperribai Mujika
Abenduaren 14an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo asko, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Aner Horriño Zallo
Abenduaren 14an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat gurasoen, aitita-amamen, izeba-osaben eta birramama Inmaculada eta Angelesen partetik.



DONOSTIA
Sara Goñi Aiani
Abenduaren 14an, 2 urte. Zorionak, matraka, familiako danon partetik!



BERGARA
Mei Azkarate-Askasua Baleztena
Abenduaren 13an, 9 urte. Zorionak era urte askotarako, printzesa! Muxu potolo bat! Etxekoak eta, bereziki, ahizpa Laia eta Malen.



ARRASATE
Noa Perez Sanchez
Abenduaren 13an, 2 urte. Zorionak, Noa! Muxu pilo bat familiako partetik. Oso ondo ospatu zure bigarren urtebetetzea.



OÑATI
Amaior Igartua Garcia
Abenduaren 13an, 5 urte. Zorionak, *prexiola!* Ondo-ondo pasatu zure egunian. Patxo potolo bana, etxeko danon partetik.



BERGARA
Haitz Haas
Abenduaren 13an, 2 urte. Etxeko bihurritxoak bi urtetxo ein ditte. Muxu bat danon partetik, *prezioso!*



BERGARA
Paco Moreno
Abenduaren 12an, Zorionak, aitxitxa Paco! Egun politta pasatzia opa dotsugu. Eskerrik asko beti gurekin egoteagatik. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat. Alaine eta Kenar.



BERGARA
Aner Navajo Marquez
Abenduaren 12an, urtebete. Zorionak, maitia! Jarraitu orain arte moduan, irribarretsu eta alaia. Muxu potolo bat etxeko guztien eta, bereziki, Mainerren partetik.



ARETXABALETA
Zuriñe Larrinaga Perea
Abenduaren 12an. Urte askotarako, amaxo! Zahartzen zioiez, e? Ondo-ondo pasatu zure egunian eta jaso patxo handi bana, etxekuen partetik.



OÑATI
Irati Zumalde Altube
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Markel Arrieta eta Ibon Aguado
Abenduaren 20an, Markelek 10 urte eta 11n, Ibonen 19 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen eguneko ospakizunetan eta disfrutatu oparixekin!



OÑATI
Peru Orueta Santos
Abenduaren 11n, 5 urte. Zorionak, Peru, familixako danon partetik! Ein putz fuerte bost fandelairi! Zorionak!



ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, 8 urte. Zorionak, bikote! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta besarkada handi bat bixontzat, bereziki Liberen partetik!



ARRASATE
Naia Rueda Cabanillas
Abenduaren 8an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta patxo potolo bat, etxeko guztien partetik!



OÑATI
Izaro Telleria Gardoki
Abenduaren 7an, 6 urte. Zorionak seigarren urtebetetzean! Ederto pasatu dogu elkarrekin. Muxu potoloak, etxeko danon partetik.

Ibai-Arteren Gabonetako menua

UME eta GAZTEENTZAKO ANIMAZIOA 17

Ordutegia:
11:30-13:00 / 16:00-19:00

Seber Alfabeta Plaza

ERREGEETAKO LOTERIA BANATUKO DA

TXU-TXU TRENA

22-23-24

GABONETAKO 100 OTZARAREN ZOZKETA

Banaketa 23

Eta gogoratu..

Fidelizazio sistema berrira atxikituta dauden saltokietan hurrengo erosketarako deskontuak izango dituzu Arrasate Txartelarekin.

Aurrez eskuratutako Ibai-Arte erosketa txartelak trukatu ahal izango dituzu 2016-12-31 bitartean.

Abendua

Ordutegia: 11:00-14:00 / 17:00-20:00

ibai-arte

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 16

ARETXABALETA Txokolate-jana, jostailu bilketa eta eskulanak
Jostailu bat, irribarre bat kanpaina.
Herriko plazan, 12:00etan.

ELGETA Ipuinen ordua
Boluntarioen eskutik, euskaraz.
16:40an 5 urteko gelatik
gorakoendako, eta 17:25ean 2-4
urte artekoendako.
Liburutegian, aipatutako orduetan.

ARETXABALETA Jostailu eta diru bilketa
Jostailu bat, irribarre bat kanpaina,
Greziako eta Saharako umeendako.
Herriko Plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA 'Karmele Igartua' sorkuntza bekaren sari banaketa
Ekitaldi irekia egingo dute.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Txistor-jana eta dantzaldia erretiratuendako
Txartelak euro baten.
Pake Lekun, 18:00etan.

ELGETA Gabonetako luntxa erretiratuendako
Xalbadorpe elkarteak
bazkideendako.
Ozkarbin, 18:00etan.

BERGARA Gimnasia erritmiko erakustaldia
Bergarako eta Antzuolako 100
gimnasten saioa.
Labegaraietan, 18:30ean.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Musika eskolako kideen emanaldia:
txistu eta Suzuki taldeak.
Pilotalekuan, 18:30ean.

ELGETA Pilota txapelketako finalerdiak
Lau finalerdiak jokatuak dituzte.
Pilotalekuan, 18:30ean.

ANTZUOLA Txosna batzordearen batzarra
Batzordea sortzeko bigarren
batzarra egingo dute herritar
guztiendako.
Olaranen, 18:30ean.

ARETXABALETA Moda desfilea
Aretxarteko hainbat merkatariren
eta herriko hainbat talderen eskutik
egingo dute.
Herriko Plazako, 19:00etan.

OÑATI 'Las estaciones' dokumentala
Gizakien eta animalien arteko
berdintasunak erakusten ditu.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Bakarrizketa saioa
Juan Carlos Cordoba eta Jose
Campoy. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Soinu sakratuen' kontzertua
Julen Apezetxearen eskutik.
Matikua jatetxearen ondoan,
20:00etan.

ARAMAIO Tronpa kontzertua
Adarhots elkarteak kideen
emanaldia.
Kultura etxean, 20:00etan.

OÑATI Elkartasun afaria
Batzen den dirua Matthew urakanak
Haitin eragindako kalteak
konpontzeko izango da.
Bidaurretan, 20:30ean.

BERGARA Bergarako bertsolari txapelketa
Jon Patxi Aiastui, Enaitz Alustiza,
Jon Altuna, Unai Arantzabal, Iñigo
Arzelus, Gari Lopez de Munain eta
Eñaut Uriarte oholztan.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 17

ARETXABALETA Gabonetako azoka
Herriko 20tik gora saltzaile, ekoizle,
artisauek eta merkatariek elkartuko dira.
Herriko Plazan, 10:00etan.

OÑATI Artisaunen Azoka
Herriko artisaunen produktuak
erosteko aukera.
Foruen plazan, 10:30ean.

ESKORIATZA Arte martzialetako ikastaroa
Elkartasun ikastaroa izango da.
Pilotalekuan, 10:30ean.

OÑATI Cesar Barrioaren lanak
Artista asturiarraren lanak
ezagutzeko ate irekiak, Oteizak
deitutako Katedraleak gunean.
Arantzazun, 11:00etan.

BERGARA XVIII. Napar Feria
Askotariko ekitaldiak San Antonio
auzoan.
San Martin plazan, 11:00etan.

OÑATI Jostailuak trukatzeko
Azoka egingo dute.
Ludotekan, 11:00etan.

ARETXABALETA Jostailu bilketa
Jostailu bat, irribarre bat kanpaina,
Greziako eta Saharako umeendako.
Herriko Plazan, 11:00etan.

BERGARA Haur eta gaztetxoentzat ekintzak
Bergara bizi! ekimenaren bidez,
Bedelkarren eskutik.
Seminarioko patioan, 11:30ean.

ARRASATE 'Borobileko dantza'
Arrostitaitz eta Lore Gazteak taldeak.
Herriko Plazan, 13:00etan.

OÑATI Erakusleho lehiaketako sari banaketa
Gabonetako lehiaketa.
Udaletxean, 13:30ean.

OÑATI 'Espeleotxiki'
6 urtetik gorakoendako.
Arrikruzen, 15:30ean.

OÑATI 'Hiru ipuin' pailazo ikuskizuna
Tomaxen abenturak konpainiarekin,
Urgain-Errekaldeko Guraso
Elkartearen eskutik.
Zuazola institutuan, 16:30ean.

ARETXABALETA Opariak egiteko tailerra
Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ESKORIATZA Opariak egiteko tailerra
Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 16:30ean.

ARRASATE Opariak egiteko tailerra
Gaztetxoendako ekintza.
Erdiguneko gaztegunean,
17:00etan.



RAFA ROBLEDÓ

OÑATI Frank eta The Young Wait taldeen kontzertua
Frank bakarlariek folk doinuak joko ditu eta The Young Wait taldeak
rock-blues estiloa. Doako emanaldia izango da.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

ANTZUOLA Sahararen aldeko festa
Udan Debagoienara haur saharar
gehiago etorri ahal izateko
helburuarekin, festa egingo du
gazte txokoan.
Zurrategi plazan, 19:00etan.

OÑATI Erretiratuaren antzezlanak
Itxarongela eta Eskutitza Ramoni.
Santa Anan, 19:30ean.

OÑATI Oñati Abesbatzaren saioa
Gabonetako emanaldia.
Agustindarren elizan, 20:00etan.

BERGARA Gabonetako kontzertua
Musika Banda, Aritzeta Abesbatza,
Orkestra Sinfonikoa, Orfeoia eta
Orfeoi Gaztea eta musika eskola.
Sarrerak, zortzi euro.
Pilotalekuan, 20:30ean.

ARETXABALETA Mikel Unanueren omenez
Inalektrik eta Xistor bakarlariek eta
Akulu taldeak joko dute.
Herriko Plazan, 21:00etan.

ARRASATE Punk kontzertua
Libertad Condiciona, Batzuri Punk
eta WC Roca & Roll taldeak. Doan.
Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 18

ESKORIATZA Mendi irteera
Alberka-Nebera-Apotzaga.
Fernando Eskoriatza plazan,
08:00etan.

OÑATI Anfibioren putzuak ikustera
Iturrigorri basora.
Foruen plazan, 08:30ean.

ARETXABALETA Gabonetako azoka
Herriko 20tik gora saltzaile, ekoizle,
artisauek eta merkatariek elkartuko dira.
Herriko Plazan, 10:00etan.

OÑATI Ziklo-kros saria
Kadeteak, juniorrak, eliteak,
masterrak eta 23 urte azpikoak.
Urrutxun, 10:00etan.

OÑATI Elkartasun azoka
Gobernuz kanpoko erakundeak.
Foruen plazan, 10:00etan.

BERGARA Euskarazko liburuaren truke azoka
Bertara eraman behar dira.
San Martin plazan, 10:00etan.

ELGETA Berrerabilpena sustatzeko azoka
Jostailuak trukatzeko eta bigarren
eskuko gauzak zein artisautek
produktuak saltzeko aukera.
Mendizaleen plazan, 11:00etan.

OÑATI Cesar Barrioaren lanak
Artista asturiarraren lanak
ezagutzeko ate irekiak, Oteizak
deitutako Katedraleak gunean.
Arantzazun, 11:00etan.

BERGARA Haur eta gaztetxoentzat ekintzak
Bergara bizi! ekimena.
Seminarioko patioan, 11:30ean.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

PISA

PISA izeneko mundu mailako azterketa egiten da 15 urteko nerabeen artean 3 urtean behin. Asteotan Pisako dorrea baino famatuagoa egin da hezkuntza sistema baino ikasleen gaitasunak neurtzen omen dituen proba hau.

Euskadiko emaitzek hautsak ederki harrotu dituzte, alajaina! Berehala hasi gara hondamendia aurreikusten: hezkuntzan diru gehiago inbertitu behar duela Jaurlaritzak, autokonplazentzian erortzeko joera dugula, bizilagunak baino hobeak ginelakoan geundela, ia denak besteei, batez ere erakundeei, leporatutako kritikak.

Emaitzak publikatu eta berehala, inolako azterketa eta gogoetarik egin gabe, bla, bla, bla bota ditu jende askok mingainera etorri zaizkion guztiak. Zer gertatu da, ba, 3 urtetan? Emaitzak onak zirenean noren meritua zen, ba? "Zer ikusi hura ikasi", ikastola, ikastetxe, eskola, unibertsitateetako zenbait arduradun izan dira zapoak botatzen lehenak, hauek ikasle guztien adibide izan beharko luketenean.

Inteligentzia emozionalari leku handiagoa egin beharko genioke, bata bestearen lekuan jartzea da ariketarik interesgarrienetakoa, bai nerabeentzat eta baita "helduentzat" ere.

BUKATZEKO



Ekaineko kontzertua gertatzeko entsegua, Xabier Arrillaga mikrofonoan dela. AITOR ARANBARRI

Rock kontzertua Xabier Arrillaga omentzeko

Urrian hil zen musikazale gaztea izango dute gogoan abenduaren 29an Bergaran egingo duten kontzertuan; musika eskolakoak eta Azkater Pelox Trio, Diablues & Bluecifer, Su Ta Gar, EH Sukarra eta Emon taldeetako kideak elkartuko dira, besteak beste

Mirari Altube BERGARA

Hutsune handia utzi zuen Xabier Arrillaga Bengoa gazte bergararrak senideen eta laguneren artean urrian hil zenean, eta, hura gogoan, kontzertua antolatuko dute senideek eta lagunek. Abenduaren 29an izango da, eguena, Bergarako Seminarioko karpan, 19:00etan, eta hainbat musikari elkartuko dira han.

Urri amaieran, Soraluze eta Osintxu arteko errepidean gertatutako ezbehar latzaren ondorioz hil zen gazte rockzale bergararra. Eta hura agurtzeko egokiena kontzertu bat zela erabaki zuten: "Segituan hasi zen ideia garatzen. Izan ere, musika eskolako haren irakaslearen, laguneren eta familiakoen ustez, hura omentzeko ez dago

rock kontzertu bat baino ekimen hoberik", dio Unai Azkarate musikariak, Azkater Pelox Trioko kideak. Perkusio ikaslea zen Arrillaga, Bergarako musika eskolan, baita rockzale amorratua ere: "Rock musikari eta talde esanguratsu askoren nondik norako guztiak ezagutzen zituen eta rock musikak berebiziko garrantzia zuen Xabierrentzat".

Haren perkusio irakaslea zen Aitor Aranburuk dio ez zegoela hura bezalakorik musikaren gaineko jakintzari zegokionez: "Mutil benetan jatorra zen. Eta bere adinekoen artean musikaz gehien zekiena; musika zen haren afizioa eta izugarritzko jakin-mina zuen". Azken kontzertua ekainean eman zuen musika eskolako gainerako kideekin batera Laino skate parkean: "Gurekin, Azkater Pelox Trio taldearekin, batera jo zuten orduan eskolako ikasleek, eta Xabierrek, perkusioa jo ez ezik kantu asko abestu zituen".

Talde askotako musikariak

Oso kontzertu berezia izango da abenduaren 29koa. Azkater Pelox Trio taldea erreferente dela beste musikari mordoak elkartuko da oholtzan, besteak beste, musika eskolako kideak, perkusio taldea, Diablues & Bluecifer bikotea, Su Ta Gar eta EH Sukarra taldeetako Aitor eta Mikel Gorosabel eta Emoneko musikariak: "Geure abestiak joko ditugu, baina Xabierren gustuko beste kantu asko ere bai, Guns N' Roses eta Queen taldeenak, adibidez. Country musika ere entzungo da biolin doinuek lagun eginda eta Aritz Alustiza trikitiarekin ere gerturatuko da. Hala, perkusio taldearekin elkarlanean ibilitako asko elkartuko gara", jakinarazi du Aranburuk.

Arrillagaren argazkiak ere emango dituzte abestu bitartean eta kontzertua bukatuko dute *Knockin' on Heaven's Door* kantarekin: "Kanta hori izan zen. hain zuzen, ekaineko kontzertu hartan Arrillagak abestu zuen azkena".



% 30 DESKONTUA EGUZKITAKO BETAURREKOETAN

RALPH *Ray-Ban* *BAKLEY* *arnette* eta askoz gehiago...

www.multiópticasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRETERIA
LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan